

# Agosti Chaho eta erromantizismoa Euskal Herrian

Baiona, 2011-XII-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. Bilbo  
ISSN 0210-1564



# Sarrera

KINTANA, Xabier  
Euskaltzaindiko idazkaria

*Euskera*. 2011, 56, 3. 659-662. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Behin, orain dela berrogei urte inguru, Gabriel Arestirekin Baionako karriketarik nabilela, halako batean, Bilboko poeta etxe baten horman atxikirik zegoen plaka bati begira gelditu zen. Hura Agosti Xahoren omenez jarria zela ohartzean, honela esan zuen irriño batez: «Begira, Xabier: hemen-txe du Xahok bere kalea. Bere garaian idazle madarikatua izan zen bera ere, baina azkenean, haren izena ipini diote kale bati. Beraz, besteok ere ez dugu esperantza galdu behar!».

Bai, hori zioen, nolabaiteko umore-harrotasunez, Gabriel Arestiri bere burua poeta madarikatutzat aurkeztea gustatzen zitzaiolako, sarritan egia desegokiak esaten –eta idazten– zituen eta. Hargatik, txalo eta laudorioen artean, batzuetan gaitzespen eta kritika latzak ere jasotzen zituen. Agosti Xahok bezala nonbait. Gabrielen kasuan behintzat, aitortu behar da haren iritziak aurkezteko maneran, maiz, bereziki zirikatzaile eta sumingarria izaten zela, horrela sorrarazten zuen eskandaluarekin, segur aski, oihartzun handiagoa lortzeko esperantzarekin.

Agosti Xahoren izkribuetan, aldiz, ez da eskuarki irakurlearekiko probokaziorik nabaritzen, eta eskandalua, izatekotan, zerabiltzan gaietan zetzan, irudimenezko gauza berri eta harrigarriak agertzeko moduan, haien laikotasun eta heterodoxian, garai hartan gure artean hura aski gauza ezohikoa baitzen. Izan ere, hemeretzigarren mendearen hasieran jaio zen Zuberoako idazle hau oso nabarmen agertu zen ezkertiar, iraultzaile eta errepublikar erradikal gisa. Eta jarrera ideologiko hori, gurean berritzaile, ez zetorren beti bat tradiziozko orduko pentsaera nagusiarekin, hots, *euskaldun fededun* delakoarekin. Halere, ezkerreko ikusmoldea ukanik ere, Xahok, aldi berean, bere burua beti euskaldun erakusten zuen inolako konplexurik gabe, eta *avant le mot*, abertzaletzat ere bai. Horrexegatik karlistadak euskaldunen nazio-askatasunerako borrokatzat hartzen zituen.

Garai hartan Frantzia zen, Europa osoan, Gobernu Errepublikarra zuen estatu bakarra, Frantses Iraultzaren ondorioz lorturiko eskubide formal askorekin, eta hartan Elizaren legeria eta Estatuarena banaturik zeuden. Xahok biziki balioesten zuen aurrerapauso hori, anitz arlotan gizateria osoarentzako eredu bilakatuko zena. Izan ere, erlijioa eta politika, hots, arimen salbazioa eta hiritarren askatasuna eta eskubideak, elkarrengandik bereiz-

teko urrats hura erabakigarria gertatu zen. Ondoren, jokabide hori Europa osoan eta Amerikan imitatzen hasi zen, eta gaur egun ere horren atzetik dabilta oraindik hirugarren munduko jende asko, atzora arte konfesionalak izandako musulman estatuetan bereziki.

Aitzindariak, ordea, gehienetan oso kario ordaindu behar izan dituzte beren ausartzia eta urrutikusmena. Zorionez, denborak justizia egiten ere bada-ki, eta gaurko euskaldunok mirespenez eta esker onez dakusagu Atharratzeko semearen jarrera aurrerazalea. Euskal hizkuntza, historia, ohiturak, poesia-kantuak, mitologia etab. ere berreskuratzen eta lantzen saiatu zen bera. Jakina, euskal balioak goraiatze aldera, munduko apologista gehien antzera, lantzean behin gehiegikeria batzuk ere esan zituen. Ez ordea, inoren ideal patriotikoak gugan txikitandik txertatzeko xedearekin. Gainera, Xahorenak ez ziren azken mendeotan gureko erdal eskoletan besteek atertu gabe irakatsi dizkigutenak baino potoloagoak. Helburuetan ere ezberdinak izan dira: Agostik, txarrenean ere, euskal iragana apaintzen zuen, gu geure etorkiaz harro senti gintezen, euskaldun iraun genezan, bertoko erro eta nortasun nazionalari atxikiz. Erdal eskolak, ordea, sarriegitan gu ahalkez deserrotzeko, eta geure hizkuntza eta kultura gal genitzan, zituen bere istorioak apailatzen.

Javier Diaz Nocik, UPV/EHUko irakasleak, A. Xahok pertsonaia erromantiko peto-petotzat jotzen du, hots, idazle, kazetari, bidaiari, politikari erradikal eta kanpoko hizkuntza eta kulturen zalea. Ni neu ere iritzi berekoa nauzue. Bere garaiko semea izanik, eta batzuetan darizkion aje, uste xeble eta fantasiak gorabehera, A. Xahok leku ongi merezia dauka gure historian, eta euskaldunon buru-bihotzetan ere bai. Bere azti-begi zoliari esker, geure etorkizun hobearen iragarle izan genuen, jada gero eta argiago mamitzen ari zaigun errealitatearena. Gainera, alegiazko Aitor zaharraren asmatzaile izandako hura, gaur mila Aitor berrien aitaponteko bilakatua zaigu.

Bidezkoa bezain noraezekoa zen, hortaz, Euskaltzaindiak euskal idazle zu-berotarra gogoan izan eta, haren jaiotzaren bigarren mendeurrenean, bere bizitza eta lanari buruzko jardunaldi batzuk eskaintzea. Horrexegatik antolatu dira Baionan 2011ko abenduaren 16an Agosti Xahoren inguruko ikerketa eta hitzaldiok. Guztiek Zuberoako autorearen inguruan beren txostenak aurkez-tu dituzte, orain orrialde hauetan argitaraturik eskaintzen dizkizuegunak.



# *Grammaire euskarienne delakoaz*

*Sobre Grammaire euskarienne*

*À propos de la Grammaire euskarienne*

*About Grammaire euskarienne*

OIHARTZABAL, Beñat  
Euskaltzain osoa. IKER-CNRSko ikerketa zuzendaria

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 663-686. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan Chahoren *Grammaire euskarienne* delakoa (1836) aztertzen da. Lanaren argitaratzeko modua azaldu ondoan, haren egitura aurkezten da, eta dituen hiru partee-tako edukia argitzen. Chahok hizkuntzaz eta euskaraz zituen ideiak garaikoak baziren (naturaltasuna bereziki), ez da dudarik lan originala dela. Ondoko hamarkadetan guziz arrakastatsua izanen zen aditz bakarraren teoriak Chahoren azterketan hartzen du itxura garbia. Eskaintzen dituen hizkuntza datuak ere, aditz paradigmak eta hauen sailkapena bereziki, harenak dira, eta zubereraren oinarrituak.

**Hitz-gakoak:** Chaho, euskal gramatika, aditz bakarra, zuberera.

En este artículo se analiza el *Grammaire euskarienne* (1836) de Chaho. Después de explicar el modo de publicación de la obra, se presenta la estructura de la misma, aportando luz sobre el contenido de sus tres partes. Si las ideas que tenía Chaho sobre la lengua y el euskera (sobre todo la naturalidad), son contemporáneas, no cabe duda que es un trabajo original. La teoría del único verbo, que fue totalmente exitosa en posteriores décadas, se presenta de forma nítida en el análisis de Chaho. Los datos lingüísticos que se ofrecen, especialmente los paradigmas verbales y la clasificación de éstos, también son de él, extraídos del dialecto suletino.

**Palabras clave:** Chaho, gramática vasca, verbo único, dialecto suletino.

Cet article analyse la *Grammaire euskarienne* (1836) de Chaho. Après une explication du type de publication de cette oeuvre, on en explique la structure et le contenu de ses trois parties. Si les idées qu'avait Chaho sur la langue basque sont contemporaines, il ne fait aucun doute qu'il s'agit d'un travail original. La théorie du verbe unique, qui eut beaucoup de succès au cours des décennies postérieures, est présentée de façon très claire dans l'analyse de Chaho. Les données linguistiques, et plus particulièrement les paradigmes verbaux et leur classification, sont aussi de lui et viennent du dialecte souletin.

**Mots-clés :** Chaho, grammaire basque, verbe unique, dialecte souletin.

This paper examines Chaho's *Grammaire euskarienne* (1836). After explaining how the work was published, its structure is presented and the content of its three parts is explained. Even though Chao's ideas about languages and Basque are contemporary (above all their natural aspect), there is no doubt that this is an original work. The theory of the single verb, which became highly successful over the decades to come, is clearly presented in Chaho's analysis. The linguistic data offered, in particular the verb paradigms and their classification, are his and are based on the dialect of Zuberoa (Soule).

**Keywords:** Chaho, Basque grammar, single verb, dialect of Zuberoa (Soule).



Chahoren sortzearen mendemuga honetan, gramatika sailean egin zuen lanaren aipatzea galdegin zidan duela zenbait denbora J. Haritschelharrek, eskerrak ematen baitizkiot, egun, zuen aitzinean, 1836an argitara eman zen *Grammaire euskarienne* delakoaz zenbait hitzen errateko parada emanik. Alabaina lan hori izan zen, B. Coyosek geroxeago aipatuko dituen hiztegi eta ortografia lanak bazterrean uzten badira bederen, euskal gramatika azalduz Chahok argitara eman zuen lan bakarra.

Gómezek (2006) azpimarratzen duen bezala, aipamen zerbait izan bazuen gramatika lan horrek 19. mendean, eta uste baino eragin handiagoa ere ondoko hamarkadetan (Oyharçabal 1991), ez dute gramatika lanek famatu Chaho, bai, ordea, egungo biltzar honetan ideien historia ikertzen dutenek bereziki aztertuko dituzten bertzelako batzuek.

Bizkitartean, euskarari buruzko gramatikografia den bezalakoa delarik, uste dut merezi duela lan honek, gaur doi bat aipa dezagun. Has nadin beraz.

### ***Etudes grammaticales sur la grammaire euskarienne :* liburu bakarra, bi idazlan**

1836an, Parisen, *Etudes grammaticales sur la grammaire euskarienne* izenburuko liburu bat argitaratu zen, bi egileren deituekin, hauek honela emanak baitziren: A. Th. d'Abbadie eta J. Agustin Chaho, de Navarre, auteur des *paroles d'un voyant*. Liburu bakarra izatea engainagarri gerta daiteke kasu honetan, ezen, egiazki, liburuak bi idazlan dauzka, lan bakoitza bere egileak izenpetzen duelarik : lehena, *Prolegomènes* deitua, A. d'Abbadiek sinatu zuen, eta bigarrena, *Grammaire euskarienne* izenburua dakarrena, A. Chahok. Orrialdeen zenbaketa bera ere bereiz eginga da bi lanetan. Baina liburuak ez baitu ez aurkibiderik, ez bertze paratesturik,<sup>1</sup> eta bereziki ez ira-

<sup>1</sup> Halere, liburuaren estalkiko orrialdean, euskararen garbitasuna azpimarratzen duen Axularren aipu bat agertzen da, frantseserako itzulpenarekin, eta hirugarren orrialdean *zazpi uskal-herrietako uskalduner* egin eskaintza.

kurtzaileari egin aitzinsolasik, ez dakigu zer gisaz batera, liburu bakarrean, argitara eman ziren bi estudioak.<sup>2</sup>

Guziz desberdinak dira bi idazlanak. Alabaina Abbadiek 50 orrialde dituen bere sarreran, euskararen aurkezpen tipologikoa egin zuen, eta ordu arteko euskalaritzaren historia labur bat ere, ezagutzen zituen euskarazko eta euskalaritzako liburuen zerrenda jakingarri batekin aurkeztua (Oyharçabal 1998, Gómez 2006). Ez du iduri deusetan parte hartu zuen lan horretan Chahok, eta beraz ez dugu gehiago aipatuko hemen, non ez den bazter ohar zenbaiten egiteko. Bertze lana, *Grammaire euskarienne* delakoa, 184 orrialdekoa, egiazko gramatika da, eta Chahok bere izen-deituren lehen letrekin hondarrean izenpetu zuen : *J.A.C. Gramatika* hasten den lehen orrialdean egilearen izenik ez da agertzen, bai haatik, Leloren kantako azken koplak, honela izenpetua : *Improvisateur cantabre (Siècle d'Auguste)*. Humboldtenganik hartua bide zen koplak, zeharka seguraz ere.<sup>3</sup>

## Gramatikaren egitura

Chahoren gramatikak hiru parte ditu, orrialde kopuruaren aldetik guziz desorekatuak direnak :

- *De la vocalisation* (1-32 or.)
- *De la déclinaison* (33-47 or.)
- *Du verbe* (49-184 or.)

Gure gaurko kontzeptuen arabera interpretatuz eta gauzak pixka bat bortxatuz erran daiteke lehen partean fonologia aztertua dela, bigarrean izen morfologia, eta hirugarrean aditz jokatuaren morfologia. Ikus daitekeen bezala, aditzaren parteak kasik lanaren hiru laurdenak hartzen ditu, orrialde

<sup>2</sup> Abbadieren idazlana Chahok idatzi gramatikaren sarrera gisa ere har daiteke, izenburuak gisa hartara interpretaturik (Gómez 2006). Halere, Abbadiek Chahoren estudioa aipatu bazuen ere (*Prologomènes*, 11. or.), ez zuen haren aurkezpenik egin.

<sup>3</sup> Honela emana da koplak liburuan: *Andi arichak, / Guezto seïndoaz, / Betigo naïaz / Nardoa !* Koplak horien bertsioez eta kopiez, ikus J. de Urquijo (1922).

haiek aditz jokatuen paradigmez bereziki osatuak direlarik. Alderdi horretarik (eta bertze batzuetarik ere, gero ikusiko dugun bezala), gramatika hau 19. mendean eginen diren bertze gramatika lan askoren aitzindaria da, haie-tan ere aditz paradigmek izigarriko tokia hartuko baitute. Frantsesez idatzia da gramatika, eta euskarazko datuak zubereratik hartuak nagusiki, euskalki hura baita egilearentzat euskalkirik osoena.<sup>4</sup>

Lanaren hastapeneko orrialdeetan Chahok lanaren helburua, eta len-goiaz oro har, eta euskaraz bereziki, duen ikuspegia azaltzen ditu. Euskal gramatika konparazio lan zabalago baten parte gisa aurkezten du, konpara-zio lan hura bera ere hizkuntzez haragoko obra are handiago batean sartze-koa zelarik :

*Je me propose d'examiner dans un livre spécial les rapports qui existent entre la langue euskarienne, le Sanscrit, ou sam-skra-da des brames indiens, et les dialectes primitifs de l'Amérique. Ce travail exigera des rapprochements de vocabulaires et des tables philologiques, qui ne peuvent trouver de place dans cet aperçu grammatical, destiné à lui servir d'introduction ; comme il sera lui-même le précurseur d'un livre plus vaste, où je déroulerai, conformément à la promesse que j'ai faite au public, l'Explication comparée de tous les mythes connus dans la religion universelle.*  
(4. orr)<sup>5</sup>

Ikusten denaz, Chahok euskararen gramatika gogoeta ingurumen zaba-lago batean ezartzen zuen, mitologia eta ohiz kanpoko pentsamendu erli-jiozkoa baitzituen urrunagoko gogamenak. Ez da gure asmoa hemen mito-logiaz eta erlijioaz zituen ideiez aritzea, gai horietan gu baino ikasiago norbaitek egin behar bailuke (orduko frantses literaturan pentsamolde ho-rrek izan zuen oihartzunaz, ikus Juden 1971), baina on da gibe-leko irudi hori

<sup>4</sup> Gramatikaren lehen lerroetan, Chahok sei euskalki bereizten ditu (garai nafarrera, zuberera, baxenabarrera, lapurtera, gipuzkera, bizkaiera), baina zuberera iduritzen zitzaion perfektuena (fo-netikari dagozkion arrazoiengatik, iduriz): *Nous avons employé le plus régulier et le plus parfait des dialectes vascons, qui est le souletin ; non sans regretter vivement de ne pouvoir reproduire avec l'alphabet français les aspirations, l'accent et la prosodie qui servent à graduer et à différencier leur prononciation significative.*

<sup>5</sup> Orripeko ohar batean *Parole d'un voyant* urte berean argitaratu liburua aipatzen du Chahok eta baita *Philosophie des Révélations* ere; hau 1835 argitaratu zen.

gogoan atxikitzea gramatikan eskaintzen dituen azterbideen hobeki ulertzeko (ikus 13. oin-oharra).

Chahoren ikusmoldean, Astarloarenean bezala, hizkuntzak ez dira Jainkoak emanikakoak, baizik ere gizakien ahalmen baten adierazpenak. Trufarik baizik ez zuen Chahok hizkuntzen jatorria jainkozkoa zela sinestedunen alde-  
ra. Hizkuntzez jabetzeko ahalmena gizakiak berezkoa zuela zeukan berak, jabetze hori garaien eta gizartearen aitzinamenduaren arabera izanik :

*Nos Croyans<sup>6</sup>, à qui les miracles ne coûtent rien, on fait tomber du ciel une langue toute faite ; en cela, les bonnes gens ont pris à la lettre quelques allégories ; ils ont été la dupe de quelques mythes. Admettons un instant que l'homme est doué d'une organisation assez parfaite pour acquérir de lui-même un idiome, suivant les développements de la société et le progrès de ses besoins. (5. or.)*

Hizkuntzaren naturaltasuna 18. mendeko ideia da bereziki, nahiz asko autorek bestalde konbentzioz ere eratuak zirela defendatzen zuten. Chahok, ordea, hizkuntza konbentzionalismoa osoki baztertzen du:

*La convention n'entre pour rien dans l'invention du langage. L'homme naturel et passif se fait un dialecte par instinct, par organisation, par besoin, à peu près comme il se reproduit. (6. or.)*

Ikuspegi hori izanik, Chahok ez ditu hizkuntza guziak maila berean ematen eta bi oinarritzko tipotara bil daitezkeela uste du: ipar aldekoak eta hego aldekoak, tipologia honen oinarriak klimak eragin gizarte antolamendu desberdinak izanik :<sup>7</sup>

*Les savants finiront quelque jour par ne plus reconnaître avec l'histoire que les deux idiomes types du nord et du midi, qui, par une communauté*

<sup>6</sup> Chahok letra berezietan markatzen du hitza. Hitz hau kasu honetan Lammenais-en liburuaren izenburuaren oihartzun gisa heldu da, urte horretan berean «Paroles d'un croyant» liburuari (1834) ihartdetsiz «Parole d'un voyant» argitara eman zuen Chahok.

<sup>7</sup> Ez da argi eduki linguistiko zehatzik ematen zion Chahok tipologia horri. Itxuren arabera, hizkuntzarekin lotura laxoa zuten bertze ideia batzuetan finkatua baitzen bereziki hizkuntza. Halere, gramatika han-hemenka barreiatuak diren ideiak kontuan harturik, iduri luke «hego aldeko» hizkuntzak naturaltasuna atxikia zutenak zirela, eta «ipar aldekoak» berriz, nahasiak izanik, konbentzionalismoan oinarritzen zirenak.

*de causes et d'effets, tirée de l'organisation de l'homme en rapport avec les climats, doivent toujours renaître les mêmes et différer fort peu dans la succession des Temps géodésiques. (5. or.)*

## Euskararen goraipamena

Nahiz iduri duen Astarloaren ikusmoldeen berri ez zuela Chahok garai horretan, lehen hizkuntza kutsatugabearen ideia aurkitzen da haren idatzian. Erran gabe doa, euskara dela haren ustez hizkuntza hori : «lehen denboretan hego aldean sortu mintzaira» baita, «bokalizazio jainkozkoa» eta «izendadura simple eta nahasigabea» dituen, «gramatikaren egitura ere simple eta erregularra» duena, hots, «giza hizkuntzarik filosofikoena» :

*La langue euskarienne date des premiers siècles de notre Temps historique ; elle naquit, durant le premier âge, dans le midi ; sa vocalisation vierge est divine, sa nomenclature est originale et sans mélange ; l'architecture merveilleusement régulière et simple de son système grammatical achève d'en faire le dialecte le plus philosophique, le plus complet du verbe humain. (3. or.)*

Hizkuntza batek hastapeneko garbitasuna eta naturaltasuna atxiki duelako ideiak berez ondorio hau dakar : hizkuntza horren oinarritzko osagaiak ez direla arbitrarioki sortuak, hots, hartan hizkuntz unitateen adieraziaren eta adierazlearen arteko lotura nolabait naturala eta zuzena dela. Chahok hizkuntzaren maila desberdinetan ikusten zuen lotura hori, eta soinuen mailan lehenbizikorik («bokalizazioa» haren hitzetan). Maila horretan hiru unitate mota bereizten zituen : bokalak («bozak» ere deituak), kontsonanteak («artikulazioak» ere deitzen zituenak) eta doinua, eta bakoitzak bere eduki semantiko berezia zuela zeukan. Gisa horretan, bokalek adieraren oinarria ematen zuten, kontsonanteek bokalen adiera erlatiboa, eta akzentu-doinuak, berriz, solas mementoko sentsazio mailak :

*Les vocales, dans l'idiome primitif, expriment un sentiment général, toujours réfléchi ; l'inflexion chantée leur imprime un degré de sensation actuelle ; les articulations déterminent leurs nuances significatives. Ces articulations, qui s'adaptent également à toute l'échelle des vocales, n'ont*

*par elles-mêmes qu'une valeur relative, toujours subordonnée à la valeur générale des voix simples. (14. or.)*

Chahoren ikusmoldean, oinarri horretarik abiatuak eraikitze-jokoa batean bezala moldatzen dira hitzak.<sup>8</sup> Astarloaren lanen berri ez zukeenagatik Chahok, azpimarratzekoa da bien ideiek zuten antzekotasuna. Guretzat hain urrun diren ikusmolde hauen hobeki ulertzeko, har dezagun Chahok berak azpimarratzen duen adibide bat.

### Naturazko motibazioa hitzetan : *iao* eta *iz* > [h]itz > *izen*

*Iao* zen Chahoren arabera euskaldunek jainkoari ematen dioten izena (hitza deklinatzerakoan *jaun-* bihurtzen bada ere). Hitz horren egokitasun eta naturaltasunaren erakusteko, dituen hiru bolaken berezko adiera agerian eman zuen, bokal horien ahoskagunea edo ahoskamoldea kontuan hartuz. Horrela *a* bokala, gizonak ahoa irekirik heriotzako azken hatsa ematean egiten duen korrokarekin lotu zuen. Alderantziz, *i* bokalean bizi indarren sinboloa ikusi zuen. Hau soinurik zorrotzena izanik,<sup>9</sup> Brasilgo indiarrek jainkoari ematen dioten izena ere (*hi*) zela zioen. Azkenik *o* erdiko bokala miresmenaren adierazlea zela erranez osatu zuen hitzaren azalpena:

*Contemplez l'homme qui se meurt: l'angle guttural reste ouvert, et laisse errer la vocale a sur le ton de plus bas et le plus creux, dernier accent de la voix humaine, que nous appelons r ale. Tout au contraire, dans une pl nitude de force et de sant , lorsqu'un sentiment  nergique de plaisir soul ve comme un levier toutes les puissances de la vie, le Br silien fait entendre son*

<sup>8</sup> Chahok, halere, kontsonanteak eta bokalak elkartzean erlazio anizkuna eta iheskorak sortzen zirela zioen : *si l'on vient   rechercher la valeur propre   chaque articulation ou consonne, dans sa fusion avec les voix simples, les rapports deviennent tellement multipli s et fugitifs qu'il est assez difficile de les saisir (15. or.)*. Haien ulertzea are zailagoa zen, haren ustez, hizkuntza mistoetan usatuak diren jendeentzat, haiek galdu baitute lehen hizkuntza eta idealitate sentikorren artean dagoen erlazio harmonikoa (maiz manera horretan adierazten du naturazko motibazioa). Aitzineko aipua hone-larik jarritzen da : *et surtout de la rendre sensibles   des esprits auxquels l'habitude des langues mixtes aurait cr e un sentiment tout conventionnel, et qui n'auraient point ainsi la mesure commune du rapport harmonique qui existe entre le langage primitif et les id alit s sensibles dont il lest l'expression. (id.)*

<sup>9</sup> Ikus beherago, *iz* erroa aztertzean *i* bokalaz egiten duen deskripzio fonetikoa.

*cri d'allégresse hii, sur une note aiguë, qui est certainement la dernière limite du chant dans chaque individu. Or le cri de nature hi est le nom que la langue brésilienne donne à l'Être suprême ! Ainsi se trouve fixée la valeur absolue des vocales A, I. La vocale O, médium exact de la gamme parlée, est dans sa valeur moyenne une exclamation admirative. (14. or.)*

Chahoren arabera, beraz, *a* eta *i* bi muturretako soinuak izanki eta *o*, al-diz, erdikoa, «bizia eta inkarnazio unibertsalaren ideiak» (?) biltzen zituen *iao* hitzak, denbora berean miresmena adieraziz. Haren ustez, irakurleak hori ikusirik, ez zuen zalantzarik izanen guziz «inspiratua», «primitibo», «jainkozkoa» dela euskaldunek jainkoari ematen dioten izena:

*Je laisse à juger au lecteur s'il est inspiré, primitif, divin le nom que les Basques pyrénéens donnent à l'Éternel ; ce nom qui par la réunion savante de deux sons extrêmes et du son médial de la voix humaine, combine les idées de vie et d'incarnation universelle, et les confond dans un cri d'admiration : Iao !... (14. or.)*

*Hitz* hitzaren motibazioa ere molde bertsuan adierazia da. Lehenik *iz* izatearen erro gisa aztertu zuen Chahok, haren barnean *i* (bizi-indarraren adierazlea nolabait, goragoko aipuan ikusi bezala) eta *z* (jabegoa adierazten duen deklinatizkia) bereziz:<sup>10</sup>

*La vocale i dont l'émission exige la plus grande contraction de l'organe vocal, et qui se trouve être la note la plus aiguë et la plus vibrante, le son le plus élevé de l'échelle parlée, se combine en euskarien avec la forme déclivative z, signifiant appartenance, pour exprimer l'idée de la vie et de l'existence, iz est, sois, soit. (10. or.)*

Erro konposatu horren erdian *t* sartuz, errepikatzearen ideia adierazten omen da, halako gisaz non [*h*]*itz* hitzaren adiera nolabait aurkitzen baita :<sup>11</sup>

*Le radical hitz désignant en euskarien le mot, le verbe, la parole, n'est autre que le iz essentiel, renforcé par un t médiatif ; il signifie harmonique-*

<sup>10</sup> Chahok etimologia horri jarraikiz, *gizon* ustegabeko molde batean aztertzen zuen : *g+iz-on* «bon-être, appliqué à l'homme» (29. or.)

<sup>11</sup> Zuberotar batentzat bitxi bada bitxi, Chahok *h* ez zuen kontuan hartzen bere azalpenetan (*hitzetan* agerrarazten bazuen ere).

ment, reproduction, double existence. Le mot ou **hitz** exprime une modification de l'être dans un état irrélatif et abstrait, et marquant le contact mystérieux des images sur le principe actif, dessine une idée indéterminée, vague et pour ainsi dire volatile, comme une première vue de l'intelligence, une lueur flottante dont les rayons se jouent sans direction. (10. or.)

Erro horretarik abiatuak bertze hitz bat azaldu zuen Chahok, beti ere hitzeko formak eta haien adiera nolabait lotuz eta *-en* atzikia baliatuz horretarako :

*Le mot supposant toujours une sensation réfléchie est essentiellement appellatif ; il s'applique à tout, à la chose comme à l'idée, au nombre, à un rapport isolé, c'est le nom, **iz-en**, c'est-à-dire, suivant la définition euskarienne, ce qui est applicable à toute existence idéale ou physique (10. or.)*

## Naturazko motibazioa morfema funtzioaletan

Soinuek berezko adiera izanik, morfema funtzioaletan agertzen direnean ere balia daiteke gorago ikusi azterbidea. Hala egin zuen Chahok. Adibidez, kontsonante txistukariak soinu gisa «gizen eta mamitsu» izanik, hala nola ikus omen baitaiteke *haz*, *has*, *aski*, *iz[an]*, *hisi*, *hitz* hitzetan, bazioen guziz naturalki erabiliak direla euskaraz *s* eta *z* txistukariak, gaia edo bidea adierazten duen deklinabidean :<sup>12</sup>

*Les articulations sifflantes expriment richesse, abondance, valeur qui est parfaitement harmonique avec leur prononciation grasse et substantielle : **az**, nourrir ; **ass**, rassasier ; **asski**, assez ; **iz**, être ; **issi**, fixité, entêtement ; **itz** parole. (...)*

*Les sifflantes **s**, **z** sont donc naturellement employées comme terminaisons déclinatives, exprimant une idée de matière, d'élément ou moyen (16. or.)*

Chahok aditz forma jokatuak ere molde horri jarraikiz azaltzen zituen. Adibidez, Darrigoli (1829, 110. or.) jarraikiz *izan* aditzaren adizkeren erabi-

<sup>12</sup> Hemen *-z* atzikiak gaia eta bitartea adierazten duela dio Chahok. Lehen ikusi bezala, *hitz* aztertzean, jabegoa («l'appartenance») adierazten zuela azaldu zuen.



dea azaltzeko, pertsona izenordainak mediatiboan deklinatzen zirela zioen :<sup>13</sup>

*La déclinaison abstraite des pronominaux ni, moi ; hi, toi, fournit la conjugaison substantive : niz, je suis, hiz, tu es.*

Pluraleko adizkerak doi bat desberdinki azaltzen zituen : haietan pertsona izenordainak existentzia adierazten duen *i* erroari eta gero *-ra* mugimendu atzikiari lotzen zaizkiola zioen, *zira* bezalako adizkera batek (<*zu-i-ra*) «vous qui vers être» erran nahi zuela adieraziz :

*Les pronominaux zu vous (singulier), gu, nous, combinée avec le radical i, signifiant existence, et la terminaison -ra, vers, jusqu'à, donnent les formes verbales suivantes : zira vous êtes, ghira, ghire, nous sommes. C'est-à-dire en définition «vous qui vers être ou jusqu'à être». (17. or.)*

Azkenean, hizkuntzako osagai guziak (erroak, hitz elkartuak, deklinabideko atzikiak, adizkera jokatuak) horrela sor zitezkeela pentsaturik, hizkuntza osoa bokal eta kontsonante gutitan aplikatu «imitazio printzipio» baten bidez azaltzen zuen Chahok :<sup>14</sup>

*Ainsi par le principe d'imitation appliqué à un petit nombre de voyelles et d'articulations, nous avons découvert la création des mots radicaux et composés, et l'art naturel de marquer, par les terminatives de la déclinaison et les inflexions du verbe, toutes les relations qu'ils peuvent subir dans la pensée et le discours : ce qui est toute la langue. (17. or.)*

<sup>13</sup> Darrigolek, erabide horrek «lengoaiaren lehen urratsak» («l'enfance du langage») gogoratzen zituela zeukan.

<sup>14</sup> Horiak hurbiletik aztertuz, Chahok mito eta erlijiozko sinbolo zaharrak argitzen ahalko zirela pentsatzen zuen : *Ce serait une étude curieuse et féconde d'appliquer les principes que nous avons posés au dépouillement des racines euskariennes et à l'harmonie expressive de leur vocalisation, pour tracer l'histoire étymologique de toute la nomenclature de cette langue, suivant l'ordre logique de l'inspiration et de la génération des idées. Ce travail jetterait une vive lumière sur une infinité d'anciens mythes et de symboles religieux, dont le sens rationnel est dès longtemps perdu dans la pensée humaine, et que la définition intelligente du verbe inspiré nous permettrait de transfigurer et de rendre à leur signification primitive. (17. or.)*

## Erregulartasuna eta produktibitatea : eratorjeta eta deklinabidea

Euskal gramatikaren idealizazio prozesu horretan, naturaltasunari gaineratzen zaizkio bertze bi ezaugarri, 19. mendeko gramatikek maiz aipatuak : erregulartasuna eta produktibitatea. Lehen ikusi dugun bezalako araurik eta mugarik gabeko erabide batek bidea ematen zuen euskaran bi ezaugarri horien aurkitzeko:

*La régularité parfaite des formations obtenues sur les mots, soit radicaux, soit composés, à l'aide des terminatives, fait que le vocabulaire euskarien unit la plus merveilleuse richesse à une extrême simplicité. (27. or.)*

Eratorbidean adibide bat emanez, *handi* izenondotik 25 hitz sortzen zirela zioen Chahok. Azpimarratzen zuen bestalde, atzizki ttipigarri eta handigarrien bidez are aberatsagoa agertzen zela hizkuntza :

*Le qualificatif **handi** subit à lui seul vingt-cinq formations, dont la langue française ne saurait traduire que quatre ou cinq par des adjectifs équivalents ; tandis que ces vingt-cinq expressions composées ont toutes le même radical. Je n'ai point fait entrer dans ce calcul la série innombrable des augmentatifs, diminutifs et approximatifs, que tous les mots euskariens peuvent revêtir. (id.)*

Ikusmolde sistematiko horren adibideak eratzerakoan, atzizkiak meta daitezkeela erakutsi nahiz, datuak doi bat bortxatzen ditu (forma agramatikalik eratu gabe, halere). Adibidez, *gizon* izenetik sortu 40 bat forma eskaintzen ditu, bertzeak bertze *-kari*, *-tu*, *-xe*, *-ago*, *-egi*, *-tto*, *-ñi* atzikiak aipatuz, ondorioz, ondoko formak eskainiz, bertzeak bertze :

<i>gizon</i>	homme
<i>gizonkari</i>	aimant les hommes
<i>gizonkaritu</i>	devenu aimant les hommes
<i>gizonkaritutto</i>	devenu aimant un peu les hommes
<i>gizonkarituzago</i>	devenu aimant plus les hommes
<i>gizonkarituzago</i>	devenu aimant un peu plus les hommes
<i>gizonkarituzagotto</i>	devenu aimant un petit peu plus les hommes
<i>gizonkarituzagoñi</i>	devenu aimant tant soit peu petit peu plus les hommes
<i>gizonkarituzagoñi</i>	devenu aimant tant soit peu petit peu plus les hommes
<i>gizonkarituzagoñi</i>	devenu aimant tant soit peu petit peu trop les hommes (31. or.)

Erran gabe doa, gramatika euskara ez dakitenentzat idatzia izanagatik, Chahok ez duela seinalatzen molde sistematikoan eratorri forma horietan gehienak ez direla erabiliak.

Deklinabidea da gramatikaren bigarren zatiaren gaia. Ez dio toki handirik eskaintzen Chahok, gorago erran bezala zati hori baita laburrena gramatikan. Eskaintzen dituen paradigmak, Darrigolek zenbait urte lehenago eratu zituenen araberakoak dira. Ez die kasuei izenik ematen, eta determinakuntzari dagozkionei bereziki ematen die garrantzia. Euskarak generorik ez izanez, eta kasu paradigma bakarra, mugagabeari tokia eginez,<sup>15</sup> Chahok dio «aldaezina» eta «unibertsala» dela, baita guziz erregularra ere, salbuespen bihirik gabekoa, hots. Ohargarria da, bestalde, kasu ergatiboa zerrendetan ematen badu, deus ere ez diola hartaz. Halaber, Larramendik bere gramatikan seinalatu zuen deklinabide sintagmatikoa ez du argiki zehazten, ohar batean horretaz zerbait badio ere, kasu atzikia sintagmaren bukaeran ematen dela erranez, eta horretan ere euskal «sistemaren arrazionaltasunaren» marka ikusiz:

*La déclinaison euskarienne (...) est invariable comme elle est universelle, et ne présente pas une seule exception. (...) Par suite de l'absence de genres et de l'unité de la déclinaison, la déclinaison euskarienne ne prescrit que l'accord des nombres. lorsque deux ou plusieurs mots sont en relation dans la phrase, le cas distinctif de leur modification commune se rejette toujours à la fin et ne s'énonce qu'une fois : **ghizon ederra**, le bel homme. Ce système rationnel est (...) exigé par l'unité du mot euskarien. (40. or.)*

Deklinabideaz aritzean, euskal gramatiketan arazotsuak izan diren egitura genitiboetan gelditzen da. Harrietek (1741) jadanik seinalatu zuen euskarak hitz bakarreko sintagma genitiboen metatzeko ahala eskaintzen zuela, ikusi gabe, haatik, egiturazko errekurtsibitate izanik, azkenik gabe errepi-

<sup>15</sup> Abbadiek arrazoinekin azpimarratzen du Oihenart zela lehenbizikorik mugagabeko deklinabideaz ohartu, eta gero, Chahok berak egin aitzin, Darrigolek zuela berriz argian ezarri : *la déclinaison indéfinie indiquée par Oihenart, qui l'appelle inarticulée, a été imparfaitement présentée par tous les auteurs qui l'ont suivie, à l'exception de feu l'abbé Darrigol. On verra dans le travail de M. Chaho l'admirable économie de ces inflexions dont le sens ne donne aucune idée de singularité ou de pluralité.* (Abbadie 1836, 11. or.)

katuz aplika zitekeen arau bati zerraiola dena. Bertze molde batean, gauza bera egiten du Chahok ere, hitz espantagarriak emanez, hala nola ondoko bi hauek :

*ghizon-karitu-cheghi-n̄itho-aren-aren-arekilakoñiarenareki* avec celui de l'infiniment petit, qui est avec le ou celui de la très chère petite, qui est devenue aimant tant soit peu trop les hommes (46. or.)

*neretuchagoñitiarenekoarenareki* «avec celui qui appartient à celui qui est devenu ou a été rendu tant soit peu plus mien» (178. or.).

## Adizkera jokatuak

Aditzaren atala da Chahoren gramatikan garrantzizkoena, haren hiru laurdenak hartzen baititu. Parterik gehienez adizkera jokatuz osatua da. Adizkera zubererazkoak izanik, Chahok berak eratuak dira, ez baitzukeen euskalki horretan aitzineko eredurik jarraitzeko.

Aditzaren aurkezpena, NIZ eta DUT deitzen dituen bi aditzen jokadura substantiboaren (*conjugaison substantive*) bidez egiten du, 10 aldi bereziz:<sup>16</sup>

Présent	<i>niz</i>	<i>dut</i>
Passé	<i>nintzan</i>	<i>nian</i>
Futur	<i>nizate</i>	<i>duket</i>
Conditionnel	<i>nintzate</i>	<i>nuke</i>
Imparfait <sup>17</sup>	<i>neinte</i> (auxiliaire)	
Conditionnel passé	<i>nintzatekin</i>	<i>nukian</i>
Impératif	<i>iz</i>	<i>ezak, ezan, ezazu</i>
Optatif	<i>nadin</i>	<i>dezadan</i>
Optatif passé	<i>nendin</i>	<i>nezan</i>

<sup>16</sup> Chahoren paradigmatako adizkeretan beti errespetatuko dut hark erabili ortografia. Irakurlea oroit bedi zubererazko adizkerak erabili zituela eta haren ortografian *u* letra, gaur egun *ü* idazten duguna dela.

<sup>17</sup> Aldien zerrenda eskaintzean hola deitzen du Chahok \**edin* laguntzailearen alegialdiko forma. Gero, haatik, ez du paradigmarik eskaintzen, salbu *positif conditionnel* deitura erabilirik, arras modu laburrean (78. or.). Ohargarria da *neinte* forma ematean Chahok *auxiliaire* dela zehazten duela, nolabait *izan* aditzaren forma ez dela adieraziz. \**Ezan* laguntzaileari dagozkion araberako formak (*ne-*

Ikus daitekeenaz, Chahok ez ditu bereizten bere paradigmatan aspektu marka eskatzen duten aditz laguntzaileak aditzoinak eskatzen dituztenetarik. Kontuan hartzen badugu zubereran guziz argia dela aditz lexikaletan aditzoinen eta adizkera aspektudunen arteko bereizkuntza, galda daiteke zergatik Chahok ez zuen molde batean edo bertzean bildu bereizkuntza hori.<sup>18</sup> Aditz bakoitzaren/bikoitzaren teoriaren ondorioz gertatu zela dirudi. Alabaina, teoria honi jarraikiz, aditz lexikalak ez dira egiazko aditzak (jokatzaren direnak, hots), eta Chahok haiek kontuan hartu gabe eratu zituen bere paradigmak.<sup>19</sup>

Chahok zubererazko adizkerak hobetzeko arrazoietan geroaldiaren paradigma aipatzen du:<sup>20</sup>

*La conjugaison substantive de **niz**, pour le mode futur, n'existe que dans le dialecte vasco-souletin, et c'est l'une des raisons qui nous l'ont fait choisir de préférence. Le dialecte cantabre forme le futur, en donnant au verbe essentiel une valeur auxiliaire: **izanen naiz** «je serai existant», etc., **ukhanen dut** «j'aurai, je serai ayant», etc.*

*zake*) ez ditu aipatzen, bai haatik, baina laburzki ohar batean \**iro* laguntzaileari dagozkionak (173. or.). Egun ahalezko forma gisa sailkatzen ditugun *naiteke/mintekeen* edo *dezaket/nezakeen* adizkerak ere ez ditu aipatzen, ez eta bere zerrendetan agerrarazten, haren azterbidean ez baitute tokirik. Gogoan izan *izan* eta \**edun*-en araberako formak (orainaldian bederen) geroko forma gisa aztertzen dituela. Azkenik derragun, gramatikaren azken partean, Chahok sartzen dituela bere aurkezmoldean bazterturik gelditu ziren zenbait paradigma eta bereziki aurrizkiak dituzten adizkerak: baldintzazkoak: *banintz / banu* ; *banendi / baneza*, edo agiantzazkoak: *ainintz / ainu*. (158. or.)

<sup>18</sup> Oihenartek aditz laguntzaileak bereiziz egiten zuen bereizkuntza, Larramendik orde, moduen bidez (adibidez, bizkaierazko *egin* laguntzailearen agerpena zehaztean). Chahok, gisa batez, aldien bidez bereizten zituen batzuen eta bertzeen paradigmak optatiboa, eta agintera, baina argiki dio haren aburuz aditz bakar bati dagozkiola.

<sup>19</sup> Gramatikaren azken orrialdeetan zerbait erraten du Chahok aditz lexikalek har ditzaketan aspektu atzizkiez, baina ez ditu argiki marka morfologiko gisa aztertzen : *Une règle sans exception veut que tous les noms verbaux terminés par une consonne concourent sans autre modification à la conjugaison de l'optatif. (...) Les noms verbaux de la première classe, terminés par une voyelle ou une liquide n restent invariables pour former la conjugaison des imparfaits et du mode passé ; il n'en est pas de même des autres, dont quelques un prennent la terminaison **tu** et **du** ; les radicaux qui finissent par **r** ou **s** reçoivent l'i du datif.* (174. or.)

<sup>20</sup> Euskalkirik erregularrena eta perfektuena ere dela dio, haren berezitasunetan aspirazioa, akzentua eta prosodia azpimarratuz; ikus 4. oh.

Paradigmen berezitasunetan, haietan adizkera alokatiboen agerraraztea seinatzeko da. Bestalde forma atzizkidun batzuk ere (mendeko perpause-takoak) zerrendatzen ditu, adizkera «*deklinatu*» gisa aurkezten dituelarik. Hona, adibidez, nola aurkezten duen *izan*-en orainaldiko jokadura, subjektua lehen pertsona pluralekoa denean eta datiboa agertzen denean, bigarren pertsonakoa denean:

<i>ghira</i>	nous sommes
<i>gutuzu</i>	nous sommes (vous singulier)
<i>gutun</i>	nous sommes (toi féminin)
<i>gutuk</i>	nous sommes (toi masculin)
<i>ghirela</i>	que nous sommes
<i>ghirelarik</i>	tandis que nous sommes
<i>ghirelakoz</i>	parce que nous vous sommes
<i>ghitzaizu</i>	nous vous sommes (vous singulier)
<i>ghitzaizula</i>	que nous vous sommes
<i>ghitzaizularik</i>	tandis que nous vous sommes
<i>ghitzaizulakoz</i>	parce que nous vous sommes
<i>ghitzaïn</i>	nous te sommes (toi féminin)
<i>ghitzaïñala</i>	que nous te sommes
<i>ghitzaïñalarik</i>	tandis que nous te sommes
<i>ghitzaïñalakoz</i>	parce que nous te sommes
<i>ghitzaik</i>	nous te sommes (toi masculin)
<i>ghitzaïala</i>	que nous te sommes
<i>ghitzaïalarik</i>	tandis que nous te sommes
<i>ghitzaïalakoz</i>	parce que nous te sommes

Ikus daitekeenaz, ongi bereizten ditu Chahok bigarren pertsona datiboa eta alokutiboa, forma atzizkidunak azken hauekin soilik eskainirik.

Oro har guziz erregularrak eta ongi eratuak dira Chahok emanikako paradigmak. Hona zenbait berezitasun, gure ustez seinatzeko direnak:

- Aldi bakoitzean, paradigmak subjektuaren komunztaduraren arabera bilduak dira forma «*deklinatuak*» ere haiekin batean emanak izanik, goragoko adibidean ikus daitekeen bezala.

- Iraganaldiko eta subjuntiboko formetan bukaeran gertatzen den bigarren pertsona maskulinoaren indizeak erorarazten du aldiaren kontsonante sudurkarizatua (bokalaren sudurkaritzea ez da ortografian erakutsia):

*neizun* / *neitzun* baina *neña* / *neitzaña* eta *neia* / *neitza* (100. or.)

*dezazun* baina *dezaña* / *deza* (149. or.)

- Iraganaldiko eta alegialdiko ZER-NORI-NORK paradigmetan pluraleko pertsona ergatiboaren indizea, atzizki gisa ere agertzen baita, doblatua da, eta beti arras manera erregularrean, haatik :

*zeneitazien* / *zeneitzazien* ; *zeneikuzien* / *zeneizkutzien*; *zenozien* / *zenotzien* ; etab. (110. or.)

*zeneiket* / *zeneizket* baina *zeneikedazula* / *zeneizkedatzula* (131. or.)

*ghenekeio* / *ghenekeitxo* baina *gheneikeziegu* / *gheneizketziegu* (138-139. orr.)

- Batzuetan, subjektua bigarren pertsona lagunartekoarekin ikusten dugu fenomeno bera; orduan atzizkiaren emateak generoaren bereizteko bidea eskaintzen du, forma atzizkidunetan bereziki:

*heiket* / *heizket* baina *heikedañala* / *heizkedañala* (131. or.)

*heikukek* / *heizkukek* baina *heikukiala* / *heizkukiala* (132. or.)

- Aginterako ZER-NORI-NORK paradigmaman 3. pertsonarik gabeko adizkerak eta 3. pertsona singularrekoak elkarretarik bereizten ditu maiz, adibidez ondoko kasuetan:<sup>21</sup>

*bezagu* «qu'il nous ait, à nous» eta *bizagu* «qu'il nous l'ait» / *bitzagu* «qu'il nous les ait» (147. or.)

*ezaguzie* «ayez-nous, à nous» eta *izaguzie* «ayez-nous-le» / *itzaguzie* «ayez-nous-les» (148. or.)

Baldintzazko adizkera batzuetan ere agertzen da bereizkuntza:

*bano* «si je lui avais» eta *baneio* «si je le lui avais» / *baneitxo* «si je les lui avais» (159. or.)

<sup>21</sup> Bereizkuntza morfologiko hori aitzineko eta ondokorik gabekoa da euskal gramatiketan.

– Aginterako paradigmetan, 3. pertsona ergatiboa denean ustegabeko formak agerrarazten ditu Chahok NOR-NORK paradigmetan ere :

*neza* «qu'il m'ait» / *neze* «qu'ils m'aient» ; *ghitza* «qu'il nous ait» / *ghitze* «qu'ils nous aient» (147. or.)

### Aditz bakoitzaren/bikoitzaren teoria

Gómezek (2005) erakutsi bezala, Lécluse eta Darrigolen gramatiketan agertu zen lehen aldikotz euskal aditz guzia bi aditzen paradigmata bil zitekeelako ideia: *nai*z eta *dut* aditzen paradigmata, hots.<sup>22</sup> Chaho bide berari jarraiki zitzaion, ikusi dugun bezala hark ere bi jokadura «substantibo» berezi baitzituen (*niz* eta *dut*-ena). Halere, *dut* aditzaren paradigmak aurkeztean, urrunago eraman zuen azterketa. Aditzaren bitasuna azalezkoa baizik ez zela erranez,<sup>23</sup> eta *dut* aditza *niz* aditzaren aldaera zela erakutsiz, funtsean euskarak aditz bakarra zuela proposatu zuen :<sup>24</sup>

*L'on a dit que la langue euskarienne reconnaît deux verbes **niz** et **dut**, «je suis» et «j'ai». Cette assertion n'est exacte que sous un point de vue de division grammaticale. Il est certain que la forme **dut** n'est que la troisième personne du verbe **niz**; **da**, avec combinaison d'un double rapport: **da-houra** «lui est, il est»: le **t** final exprimant une relation personnelle à l'individu qui parle. **Dut** signifie en définition, «lui est à moi, je l'ai, j'ai». Voilà la vraie raison pour laquelle la conjugaison de **dut** emporte l'expression d'un régime «j'ai, je l'ai». Le passé de **dut**, **nian** ou **nuen**, «j'avais,*

<sup>22</sup> Irakurle zenbaitek galda dezake zer zioen Chahok aditz trinkoez. Arras guti aipatu zituen, nahiz gramatikaren azken hiru orrialdeetan, *jakin* eta, molde laburragoan, *egon* eta *joan* aditzen adizkera trinko zenbait eskaini zituen. Argiki erran zuen, haatik, forma horiek «sinkopatuak» zirela eta ez zutela deus kanbiatzen euskal aditzaren sisteman. Horretan Darrigoli osoki jarraiki zitzaion Chaho, honek ere adizkera trinkoak jokabide orokorraren arabera azterka zitezkeela erakutsi baitzuen.

<sup>23</sup> Inchauspek emanen zion ideia hori itxura argiena. Bere liburu gotorreko lehen perpausean berean : *La langue basque n'a qu'un verbe. Ce verbe a deux voix : la voix transitive et la voix intransitive* (1858, 2).

<sup>24</sup> Batzuetan ideiarener adierazteko «verbe unique niz-dut» erranbidea erabiltzen du (171. or.).



*je l'avais», offre dans sa décomposition syllabique nihurane «lui était de moi, à moi»; ainsi des autres modes. (82. or.)*

Gisa bereko azterketa proposatu zuen *ezak* edo *ezadak* bezalako adizkerentzat (erran gabe doa Chahoren gramatikan hauek ere *dut* aditzaren paradigmetan sartzen zirela) :

*L'impératif de dut, ezak, ezadak, qui n'a jamais de valeur que comme forme auxiliaire, dérive de l'impératif iz avec déterminante a et relation k; il s'écrit izak, izadak, dans la plupart des dialectes, et se combine avec les noms actifs pour compléter la conjugaison (82. or.)*

Forma alokutibo batzuetan gertatzen den aditz erro aldaketa ere baliatu zitzaion Chahori. Alabaina, NOR bakarreko forma alokutiboetan \**edun* aditzaren adizkerak erabiltzen baitira, egoki gertatzen zitzaizkion forma horiek *dut* aditzeko adizkerak *niz* aditzetik eratortzen zirela erakusteko:

*Une autre remarque qui achève de démontrer que le Dut n'est qu'une modification de Niz avec expression de divers rapports, et intervertissement de personnes, c'est que la conjugaison de Niz avec relation de personnes et celle de Dut régissant des personnes, sont parfaitement identiques.*

**Nuzu** vous m'avez  
**Nuzu** je suis (vous dis-je) (...)

**Duzu** vous l'avez  
**Duzu** il est (vous dis-je) (...)

**Gutuzu** vous nous avez  
**Gutuzu** nous sommes (je vous le dis) (...)

**Dutuzu** vous les avez  
**Dutuzu** ils sont (vous dis-je) (82-83. or.)

Aditz bakarraren teoria hori ondoko hamarkadetan garrantzi handikoa izan dena, Abbadieren «Prolégomènes» idazlanean agertzen baita, eta bi autoreen lanak liburu berean agertu baitziren, ez da erraz jakitea norena izan zen zuzen: Abbadierena ala Chahorena?<sup>25</sup> Abbadiek gai hori aipatzean

<sup>25</sup> Ideia bera ez zen berria hizkuntzalaritzako lanetan (Gómez 2005). Berritasuna euskal aditza haren arabera aztertzean zetzan.

erabiltzen duen erran-moldea ez da guziz argia; badio ordu arte filologo guti ohartu zirela *dut* adizkera *niz/nintzan* adizkeren forma baizik ez dela, eta azken hondarrean denak *iz*, *izan*, *izaite* izenetara biltzen direla.<sup>26</sup> Hitzez hitz harturik bederen, Abbadieren solas horiek adierazten zuten ideia hori hizkuntzalari bakar zenbaitek bakarrik izan zutela, eta kasu horretan Chahoz mintzatzen bide zen.<sup>27</sup> Honek, gainera, ideia ez zuen aipatu bakarrik, baina azterketa morfologiko batean ere oinarritu zuen, gaineko aipuetan ikus daitekeen bezala.

Gramatika datuen beren ikuspegitik, aditz bakarraren teoriak ez zuen ondorio handirik, ikusi dugun bezala, Chahok bi paradigma berezitan aurkeztu baitzituen euskal adizkerak. Bizkitartean, haren azterketak, eta bereziki, haren oinarritzeko proposatu zuen adizkeren deskonposaketa morfologikoa ondoriotsua izan zen, handik mende erdira Stempfek (1890) berriz hartu baitzuen, eta handik abiarazi baitzuen euskal aditzaren pasibitatearen teoria, gero, Schuchardten eraginez, 20. mendeko lehen bi herenetan hizkuntzalaritzako lanetan guziz nagusituko zena (Oyharçabal 1991).

Stempfek Chahoren azterketa ez zuen osoki segitu, eta adizkeren morfologian oinarritzen zena bereziki beretu zuen. Gainera, Chahok defendatu aditz bakarraren teoriari ez zitzaion alde bat jarraiki, zeren adizkera irangan-korrek aztertzerakoan, bitasunaren ideia berriz hartu nahiago izan baitzuen. Alabaina, Stempfen ikusmoldean adizkera horietako morfologian bi aditz erro aurkitzen ziren, elkartuak: *izan* aditzarena (ezkerreko osagai gisa) eta *ukan* aditzarena (eskuineko osagaia) :

*nauzu* = *naiz* + *ukan* + *zuk*

tu m'as = je suis + eu + par toi (Stempf 1890, 4)

*nintuzun* = *nintze(n)* + *ukan* + *zuk* + *n*

vous m'aviez = j'étais + eu + par vous (Stempf 1890, 8)

<sup>26</sup> *Mais peu d'entre eux* [les philologues] *avaient vu que ce qu'ils appelaient verbes n'était que des noms employés sous diverses formes d'inflexions: que leur auxiliaire dut n'est qu'un cas particulier de la forme conjuguée niz, nintzan, et que tout se réduit, en dernière analyse, à des noms iz, izan, izaite.* (Abbadie 1836: 2)

<sup>27</sup> Terminologian bada diferentzia bat Abbadie eta Chahoren artean. Abbadie «laguntzaileaz» mintzo da, Chaho, aldiz, ikuspegi horretako ondorioei hurbilagotik jarraikirik, aditzaz.

## Hondar hitza

Aurkezpen honi azken hitzak josterakoan, hitz laburretan hemen ikusia bil dezagun. Chahok hizkuntzaz zeukan ikuspegi orokorra 18. mendeko ideia batzuetan funtsatzen baitzen, haren azterketaren oinarrian diren zenbait ideiak (hizkuntza natural eta primitiboaren kontzeptua, sinpletasuna,<sup>28</sup> erregularitasuna, produktibitatea, hizkuntza unitateen gardentasun semantikoa, soinuukoena bereziki), antz handia dute Astarloak ere aldeztu zituenekin. Antzekotasun hori, bi autoreek euskararen aldera hartu zuten apologiazko jarreran ere kausitzen dugu. Batzuetan, karikatura aire bat dute azterketaren eraginez Chahok eskaintzen dituen zenbait formak, hala nola hitz bakarrean biltzen diren sintagma konplexu haiek, jadanik beste molde batean Harrietek ere aitzineko mendean ageria eman zituenak. Halere, euskal gramatikako datuak eskaintzean, Lécluse eta Darrigolek zenbait urte lehenago egin lanak oroz gainetik kontuan hartu zituen. Euskararen deklinabidea eta aditz jokadura haiei jarraikiz moldatu zuen, aditzari dagokionaz zenbait berrikuntza eginik, haatik. Ohargarria da, adizkera paradigma aukeratzekoan zubereraz baliatu zela, eta bere ezagutza pertsonalaz baliatu zela haien eratzeko, ez baitzukeen garai hartan eredurik segitzeko. Oro har, ongi emanak dira aditz zerrenda haiek (forma alokutiboak barne), nahiz batzuetan aditzaz duen ikuspegiak bazterrean utzarazten dizkion aitzineko gramatiketan (hala nola, Larramendirenean) ongi bilduak ziren zenbait paradigma, ahalezkoarenak bereziki (azken kasu honetan zubererazko datuetan oinarritzeak ekarri ondorio bat ere izan daiteke menturaz). Badira berak sartu zenbait forma ustegabekoak direnak: bai *ai-* aurrizkia dutenak («*ainintz* eta *ainu* bezalakoak), seguraz ere tradizio idatzitik hartuak eta ordutik zaharkituak, eta bai objektu zuzenik gabeko eta 3. pertsona singularreko adizkerak bereizten dituztenak (*exozu* vs *izozu*, adibidez). Dena den, Chahoren gramatikak toki berezia hartzen badu euskalaritzaren historian, aditz bakarraren ideia bururaino defendatzera saiatzzen delako da. Eta ez da

<sup>28</sup> Ez dugu aipatu gure azterketan gai honi datxikion puntu bat, Chahoren gramatikan (eta Abbadierenean ere) agertzen dena : euskarak hitz kategoriarik ez duela, edo nahiago bada, hitz kategoria bakarra duela. Chahorentzat euskal hitz guztiak izenak ziren eta denek, ikusi dugun bezala, deklinatizikiak har zitzaizkien.

paradoxa ttipia, funtsean, hizkuntzalarien euskalaritzan hiru mende laurde-  
nez osoki nagusi izanzen zen euskal aditzaren pasibitatearen teoriak grama-  
tika hartan baititu bere lehen erroak.

## Bibliografia

ABBADIE, ANTOINE TH. 1836. «Prolegomènes», in Abbadie & Chaho 1836, 1-50.

ABBADIE, ANTOINE TH. & JOSEPH AUGUSTIN CHAHO. 1836. *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.

ARKOTXA, FERMIN. 1998. «150e anniversaire de l'*Uscal-Herrico Gasetea*», *Lapur-  
dum* 3, 125-154.

ARRIOLABENGOA, JULEN. 2006. *Ibargüen-Cachopín kronika. Edizioa eta azterketa*.  
Dok. tesia, UPV-EHU.

———. 2008. *Ibargüen-Cachopín kronika*. Bilbo: Euskaltzaindia-BBK.

ASTARLOA, PABLO PEDRO. 1803. *Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico  
filosófico de su perfeccion y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta á los  
reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España, tomo ii, palabra Na-  
barra*. Madril: G. Ortega.

———. 1804. *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología de la lengua vascon-  
gada, ó Respuesta á la censura crítica del cura de Montuenga*. Madril: Cano.

CHAHO, JOSEPH AUGUSTIN. 1836a. «Grammaire euskarienne», in Abbadie &  
Chaho 1836, 1-184 [1-184 [=51-234]].

———. 1836b. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-  
1835)*. Paris: A. Bertrand.

———. 1856. *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin*, Baiona.

DARRIGOL, JEAN-PIERRE. s.d. [1827]. *Dissertation critique et apologétique sur la lan-  
gue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. [Be-  
rrargit. faksim. Toulouse: Eché, 1979.]

EUSKO IKASKUNTZA - EUSKALTZAINDIA. 1998. *Antoine d'Abbadie 1897-1997*.  
*Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV*.  
*Biltzarra. (Hendaye-Sare 1997)*. Hendaia/Bilbo: Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindia.

- GÓMEZ, RICARDO. 2003. «Darrigolen gramatikaz», *ASJU* 37:1, 139-156.
- . 2005. «Aditz bakarraren » teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan». *Artxiker* : <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000023/eu/>. Ikus, halaber, Sareko euskal gramatika : <http://www.ehu.es/seg/morf/5/15/1/0>.
- . 2006. *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. Dok. tesisia: UPV-EHU.
- HARRIET, MARTIN. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- INCHAUSPÉ, L'ABBÉ —, 1856. *Le verbe basque*, Bayonne : Veuve Lamaignère & Paris: Benjamin Duprat.
- JUARISTI, JON. 1984-1985. «Joseph-Augustin Chaho: las raíces antiliberales del nacionalismo vasco». *Cuadernos de Alzate* 1, 72-77.
- . 1991. «La gnosis renacentista del euskera», in Lakarra (arg.) 1991, 117-160.
- JUDEN, BRIAN. 1971. *Traditions orphiques et tendances mystiques dans le romantisme français (1800-1855)*, Paris 1971, [Berrargit. faksim. Genève : Slatkine, 1984].
- LAKARRA, JOSEBA A. 1987. «Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (I)». *ASJU* 21:3, 813-916.
- (arg.). 1991. *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. (ASJUren gehigarriak, 14). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 2 lib.
- LÉCLUSE, FLEURY. 1826. *Manuel de la langue basque*. Tolosa/Baiona: J. M. Doula-doure/ L. M. Cluzeau. [2. argit. Baiona: P. Cazals, 1874. Lehenaren berrargit. in Lakarra 1987 eta Lakarra & Urgell 1988.]
- OIHENART, ARNAUD. 1656. *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanae*. Paris: S. Cramoisy. 2. argit. Gehitua. 1656. [Berrargit. faksim. gaztelarazko itzulpenarekin, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.]
- ORPUSTAN, JEAN-BAPTISTE. 1981. «Une tentative ambitieuse d'Augustin Chaho : La philosophie des Religions comparées (1848)», *BMB* 93, 127-142.
- OYHARÇABAL, BEÑAT. 1991. «Note sur les antécédents romantiques de la théorie de la passivité du verbe dans les études euskariennes». *ASJU* 25:3, 965-975.
- . 1994. «Oihenart, euskal gramatikarien aitzindaria», in *Oihenarten Lau-garren Mendeurrena (Iker, 8)*, 27-47. Bilbo: Euskaltzaindia.

———. 1998. «A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza», in *Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia 1998*, 431-451.

STEMPF, VICTOR. 1890. *Besitzt die Baskische Sprache ein transitives Zeitwort, oder nicht?*. Bordele. Egilearen frantserako [frantseserako] itzulpenarekin argitaratua.

URKIZU, PATRI. 1992. *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*. Bilbo: Euskaltzaindia/BBK.

URQUIJO, JULIO DE. 1922. «La Crónica Ibarгүйen-Cachopín y el Canto de Lelo», *RIEV* 13-1, 83-98 eta 13-2, 232-247.

ZABALZA, XABIER. 2011. *Augustin Chaho. 1811-1858*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

# Agosti Chahoren hiztegiko aitzin solasean hitzen iturriak

El origen de las palabras en el prefacio del diccionario  
de Agosti Chaho

L'origine des mots dans la préface du dictionnaire  
d'Agosti Chaho

The origins of the words in the foreword  
to Agosti Chaho's dictionary

PEILLEN, Txomin  
Euskaltzain emeritua. Idazlea

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 687-696. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Chahok hegoaldeko hiztegi egile eta batik bat Larramendigan garbizalekeria eta hitz gaizki eginak ikusi ditu, aitortu ere jakintza berriek horrelako hitzak eskatzen dituztela. Baina berak ez du askoz hobeki egin Euskararen jatorriari buruz idatziz bi iturri ematen dizkio, bata kantabro edo *euskarien hispanique* izenarekin eta bestea *euskarien hindustani*. Zuzenez latina iturri serioa da, baina idaztea euskarak sanskritoan eman duela urrunko joatea da.

**Hitz-gakoak:** hitz berriak, garbizaleak, larramendismo, kantabrisimo, sanskrito, latin.

Chaho observa entre los lexicógrafos, sobre todo en Larramendi, un exceso de purismo y una mala construcción de las palabras, aun a sabiendas que los nuevos conocimientos demandan de dichas palabras. Tendencia que manifiesta el mismo Chaho, cuando al hablar del origen del euskera, cita dos fuentes: una denominada *kantabro* edo *euskarien hispanique* y la otra *euskarien hindustani*. Ciertamente, el latín es una fuente seria, pero escribir que el euskera parece sánscrito es ir demasiado lejos

**Palabras clave:** nuevas palabras, puristas, larramendismo, cantabrisimo, sánscrito, latín.

Chaho constate chez les lexicographes, et surtout chez Larramendi, un excès de purisme et une mauvaise construction des mots, sachant d'autant plus ce que les nouvelles connaissances attendent de ces mots. Tendance dont fait preuve Chaho lui-même lorsqu'en parlant de l'origine de la langue basque il cite deux sources : l'une qu'il appelle *kantabro* ou *euskarien hispanique* et l'autre *euskarien hindustani*. Il est certain que le latin est une source sérieuse mais il va trop loin lorsqu'il écrit que la langue basque ressemble au sanscrit.

**Mots-clés :** nouveaux mots, puristes, larramendisme, cantabrisime, sanscrit, latin.

Chaho observes an excess of purism and poor construction of words among Southern [Peninsular] lexicographers, in Larramendi especially, but is also aware that the new disciplines call for such words. However, he does not do much better when providing two sources for writing about the origin of Basque: the so-called *kantabro* or *euskarien hispanique*, and the other, the *euskarien hindustani*. Latin is undoubtedly a serious source, but writing that Basque looks like Sanskrit is going a little bit too far.

**Keywords:** New words, purists, Larramendi-ism, Cantabrisim, Sanskrit, Latin.



Agosti Chahok 1857 urtean argitaratu hiztegiaren hitzaurre horretarik aterako ditut aipamen guztiak. Hitzaurrean sartu baino lehen zer berrikuntza izan zen azpimarratuko nuke. Denbora haietan hiztegi txiki zenbait argitaratu zuten Gèze, Darricarrère eta beste, baina liburu gisa ez zen ezagutzen eta batzuetan erabiltzen zirenak Lardizabalena hegoaldean eta Larramendirena Euskal Herri osoan, beste franko esku idazki gisa lo baitziren eta baitira; hala, beren hizkuntzaren hobetzeko aberasteko Jusef Egiategi zuberotarrak eta Iztueta gipuzkoarrak eta beste, Larramendiren hiztegi arazodun hori erabili zuten.

Chahok, Larramendiz egiten duen kritika horretan ulertzen du Larramendik ikusi zuela gai batzuetan eta adigai batzuetan euskara murriztuz, motz, urri eta txiro zela eta espainolek, baita euskaldun askok ere horregatik euskara gaitzesten edo erdeinatzen zutela, hitzak asmatu zituen eta lur honetako hizkuntza guztiekin erkatu euskara:

*«Au lieu de confesser la pauvreté de l'euskarien dans les parties de notre vocabulaire qui se rapportent à la technologie artistique et scientifique des civilisations contemporaines; au lieu de se borner à faire ressortir les magnificences réelles d'un idiome antique, appartenant à des civilisations détruites dont il ne reste plus que le souvenir Larramendi a composé le premier vocabulaire castillan, basque et latin. La déplorable méthode qu'il emploie avec ses erreurs comparatives ente le castillan et l'euskarien, il l'applique sans façon à toutes les langues de la terre. Il feuillette un dictionnaire italien: je vais mettre ici, dit-il naïvement, les mots d'origine basque que j'ai recueillis dans une lecture faite rapidement, à la hâte, on ne peut plus vite de corrida. ( Chaho dixit)*

*(...) L'euskarien qu'oique merveilleusement primitif, n'est point cet idiome introuvable d'où toutes les autres langues seraient sorties (Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, Paris, 1857.27. o.)*

Gero idazten du etimologia faltsuekin eta hitz berrieekin Larramendik denbora galdu duela espainol irain egileei erantzuten. Agosti Chahok zehatzago jarraitzen du eta itzultzen dut :

Filologo kantabriarrak ez dira besteak baino gutxiago bereizle eta arauzale izan: denetan euskara baizik ez baitute ikusi; arintasun eta berotasun

handiekin eta denetan ezarri digute: ez dugu erran nahi ezjakinez. Hizkuntzalarien errakuntza, duela ehun urte, Gipuzkoari eskainia Jesuita aita on batek argitaratu Larramendiren Hiru Mintzairerako Hiztegian zetzan iturri nagusia (Op. cit. 28. o.) (trad.tx.p.).

Nire ustez mania bat da euskararen iturriak edo jatorriak bilatzen dituzten artean hitzak konparatzea, baina ez dago hain izaki aldakorragoa hitza baino, harrak batzuetan itxuraz tximeletak berdinak ematen baititu, ustekabeen, baina izaki horiek ez dira arrautza berdinetik jalgi. Urrunenik joan dena euskara munduko mintzaira guztiakin berdinkatzean Löppelman etimologia egile nazia izan da, hitz bat bere esangura konkretuan Afrikar azpi hizkuntza batetik dator eta erran nahi abstraktuan europar goi hizkuntza zibilizatu batetik hartua.

Hiztegi bat abiatzen duenak, maiz, besteen ekarpen onak eta txarrak aipatzen ditu, bere metodoaren argitzeko. Chaho berak Darrigolen goraiapamena egiten badu hegoaldeko jakintsuak direla-eta zorrotza da:

*Mais le malheur des auteurs espagnols est d'écrire toujours d'enthousiasme sur la langue basque, sans ordre, sans méthode et sans clarté; défaut inséparable de toutes les écoles qui ont succédé à celle de Larramendi, de l'autre côté des Pyrénées.* (Op. cit. 43. o.).

Hiztegi horretan sintaxiaz eta morfosintaxiaz diona ez dut aipatuko salbu eta etimologia hazkaz latinetik etorri atzizki franko euskaratik datozela dionean. Chahok garaiko euskararen mugak ongi ikusten ditu :

*Le point de départ historique et philologique que nous adoptons en commençant notre labeur de lexicographe, froissera, nous le savons, l'enthousiasme irréfléchi et la crédulité de quelques linguistes, qui ne sont pas tous des Basques, et qui attribuent à l'euskarien une suprématie imaginaire, une fécondité chimérique.* (Op. cit. 27. o.).

Urrunago hogeita hamalagarren orrialdean idazten du eta itzultzen dut:

Historia orokorraren ez jakintasun batek gure menditar filologoek okerretan beren eragina izan dute, ezen aberri zaletasun burubero prisma baten artetik so eginez giza hizkuntza mota guztietan euskara ezagutu baitute. (Op. 34. o.).

## Larramendik asmatu hitzez

Larramendiren kritikan oso argia izan da Chaho, jesuitak asmatu hitzei buruz, honela dio:

«Hitz berri horiek edozein idazlek bere liburua herrikoi izan ustez bere liburu batean sar litzake: ez dakit noraino daukan eskubidea hiztegi batean sartzeko, nazioaren gustu oneko eta erabilerak aipatzen genuen hitza herritar izateko eskubidea». (Op. cit. 28. o.).

Lehen kritika bat egiten dio Zodiakoaren izar multzoak izendatzean *izar* erabiltzen duela *izarrak* behar lukeen lekuan; halaber Osaz minor *artz txiki* izena ematen duenean ez baita izarra txiki hartza baita hala. Hitz berriak direla-eta Chahok aitortzen du batzuk aski ongi antolatuak direla, baina besteak ilunago, ezta ez ulerterraza: *atzempea* «subjonctif», *bapestantz*a «sinecdoque, *askijakilea*», philologue» eta honela idazten du:

«Garbizaleek esan dezakete hau mordoiloa egitea dela, ez hizkuntzaren aberastea: batzuetan gu ere aburu berdinekoak izan gintezke». (Op. cit. 29. o.).

Nire ustez, eta hori ez du Chahok aztertu aitortu behar da hitza nahiera egina dela, arbitrarioa: zergatik erraiten dugun buru eta ez *duru*, edo *kuru* edo *luru* edo *nuru*? Baina hitz berriak egitean beste biren esangurak eta ña-bardurek hitza ezin onartua egiten dute eta Chahok idatzi zuen:

«Badira Larramendiren hiztegian agertzen diren hitzak guk ezin onar genitzakeenak». (Op. cit. 29. o.) (trad.tx.p.).

Adibidetzat Chahorentzat *abreunde* «hécatombe « esateko ez da batere egokia; halaber *aizetsu* „pneumatique« adierazteko. Eta kezkarik gabe herritarren gustu oneko eta erabilerak baztertuko dituela dio. Ez du horregatik ukatzen Chahok hitz berrien beharra badela eta hasieratik hizkuntza guztietan mintzatzaileek eta idazleek sortzen dituztela:

«Egin behar den lehen gauza estudiatzen den hizkuntzaren lehen sortzaileen lekuan jarri baita hitz bakoitza asmatu duten ahozko inprobisatzaile asmatzaileak ere». (Op. cit. 35. o.).

Hitzen sortzeko ahal hori, egoera eta lanen arabera, edozeinek halabeharrez sor ditzake idazten du Chahok.

## Larramendiren etimologiez

Larramendiren etimologiekin sartzen zaigu Chaho. Gu ere, ideologia, edo aurre iritziekin zerbait frogatu nahi eta badakigu etimologian, maiz, ipar orratzik gabe gabiltzalako, etimonen itsasoan aingura galtzen dugula. Luis Mitxelenak behin esan zidan bere etimologiaren gutxienik erdiak okerrak izan zirela. Eta Voltairek hobeki idatzi zuen etimologia eta konparaketa egilek ez dituztela ez bokalak eta askotan kontsonanteak ere kontutan hartzen: kasu on bat daukagu tesi batean «ikerlariak» Ustaritzen erabiltzen den gaskoi hitza basahate errateko, *gita*, *fil* mongolieraz hitzarekin berdintzen duenean.

Orain, Larramendiren adibide batzuk: *artalet* hitza (frantsesez *tartelette*, *hatelette*) arto-talo hitzetik datorrela dio, baina latinezko *torta* eratorria ahaztu zaio; denbora berean Chahok gaineratzen du nola grezierazko *artos* ez dela ez garia, ez eta artoa, baina ogia, opila hots ustekabeko antza baldin badute ere. *Escarcela* fr. *escarcelle*, italieraz *scarsella*: hitzarekin jostatzen gaitu, Larramendik euskal etimologia oraindik bitxiagoa ematen baitio *istarcellua* «izter gehi *arcellua*, izterreko moltsa. Hungariar estiloko txaketa herri gehienetan *ungarina* izan da, baina Larramendik dio euskarazko *on* eta *arin* hitzetik datorrela; halaber gaztelaniazko *esqueleto*, eskele hitzetik datorrela idazten du, eskean dabilena mehea delako. Herrien izendatzeko eta santu batzuekin *done* edo *don* aski erabili da latinezko *dominus* hitzetik hartua, baina Larramendik dio alderantziz gaztelania *Don* euskaratik hartu duela Donostia, Dona Maria eta beste esaten baitugu. Tartean Chahok Doni Yuane eta Done Jaune aipatzen dituen Donibaneren forma zaharra ematen du. Piarres Adame Elizanbururen lumapean Dona Joanera badao. Chaho saiatzen da Donostiaren jatorria ikusten San ordez Don erabiltzen delako eta Sebastian Astia/Ostia laburtzen.

Larramendik etimologia zale askoren gisa hitz bat bitan zatitzen du, arabierazko artikulua *al* eta euskarazko (sic) *cate*. Chahok *alcalde/alkatea* arabierazko *Alqadi* hitza dela epaile esan nahiarekin (Ipar Afrikan tx.p. dixit *Alkadi* notarioa eta *Alkaid* auzapeza bereizten dira). Bego bakean *herrada* edo *ferreta* hitzen etimologia, eta gaztelaniazko *camino* euskarazko *kamio* hitzetik horra dela.

## Larramendi euskaraz erdirakoia eta gaztelera-ko hiztegi baten morroin

Egiten dion kritika nagusia oraingo euskara batuaren erabilerari egin geniezaioke, alegia erdiko euskarari emana dela mendebaldekoak eta ekialdekoak bazterturik, hala milaka hitz kanpoan utzi dituela:

*«Sous ce rapport il y'a dans le dictionnaire de Larramendi une lacune immense. Les trois dialectes vasco-navarrais et le dialecte biscayen lui-même ne figurent que pour une minime part dans ce dictionnaire».* (41. o.).

Nafar-lapurtera dialektoaz berdin erran genezake eta zuberotarrek ez badugu erabili, mintzaira horretan zuberotar hiztegia eta zubereraren gramatika bazter utzi direlako izan da.

*(...) «En y joignant les mots des autres dialectes, que Larramendi négligea, il se trouve que l'on peut compter par quinze et vingt mille les mots qui manquent à son dictionnaire».* (Op. cit. 41. o.).

Luzaro azaltzen du nola Larramendirena gaztelaniazko hiztegi baten itzulpena izanki, gaztelera hizkuntza analitikoa izanki hitz eratorriak eta termino sintetikoak, euskararen aberastasun direnak, baztertu dituela. Noiz behinka, Chahok aitortzen du euskarak gaztelera-ko eta gaskoiera-ko hitzak mailegatu dituela, baina ezin dugu jarraitu besteei egotzi akatsean erortzen denean, alegia gure hizkuntza antzinako Italian mintzatu omen dela eta euskarak latinari eman diola.

## Kantabrismoak latinez (Les cantabrismes du latin)

Hasieran zerbait onargarri dio: giza ahoskera mugatua izanki silaben kopurua milioika izanik ere, batzuk ustekabeak eta adierari kasurik egin gabe, elkarren antza eduki lezaketela eta gaineratzen du :

*«Le linguiste qui déforme les mots, qui les allonge, les raccourcit ou les torture contrairement au génie grammatical des idiomes que l'on met en parallèle n'est qu'un étymologiste barbare».* (Op. cit. 23. o.).

Eta hori idatzi arren honela idazten du

«Revenant aux emprunts que le latin fit à l'euskarien de l'Italie primitive, et après avoir bien fixé la valeur des terminatives euskariennes **tu, te**, nous dirons que le **te** exprimant pluralité, concourt à former une série nombreuse d'appellatifs latins». (Op. cit. 24. o.).

Latinaren galerak aipatzen ditu idatziz adibidez latin zaharreen euskaratik hartu *tas,/a,es, o* bilakatuko direla deklinatzean

Angustia, lehen , Angustitas  
 Concordia « « « Concorditas  
 Deliritio « « « « Deliritas  
 Opulentia « « « « Opulentitas

Eta honela idazten du:

«Latin atzizkien akatsa da, izen mota guztiei ez direla egokitzen, euskaraz eta hizkuntza sintetikoetan gertatzen den bezala, non eta hitz erroak ez duen atzizkiaren erran nahiarekin kontraesanik. Urrunago ikusiko dugu *goa, keria* zein izen motei euskarak behartzen dien *tas-un* eta *tarz-un* atzizkien lekuan. Euskara, hitzak daukan adierari lotua da, atzizki bakoitzak moral adiera bat ematen dio; hori ez da ez latinean, ez gaztelera ez eta frantsesean gertatzen». (Op. cit. 35. o.).

Euskarak latinaren gainean eduki duen eraginarekin jarraitzen du Chahok eta dio euskarazko *tas-un* atzizkiak genitiboarekin latinez *-tas* eman duela, frantsesez *té*, gaztelera *dad*. Eta atzizki horiek euskararen barrenean nondik datozen ez du dudatzen aditzetik jiten direla, nafarrerazko *du*, gipuzkerazko *deu* eta bizkaierazko *dau* eta euskalki guztietan *da*.

Nahiz ez den latinaren itsasoan murgildu eta ito nahi, filosofia, erlijio eta historia aipamen luzeak tartekatuz euskararen bidez latin hitzak ulertu nahi ditu. Italia, euskarazko *it/idi* hitzetik letorke nahiz fonetikan idatzi duen euskal hitz baten erdian «d» bat ezin dela aurkitu. Beste kontraesan handiagoak idatziko ditu. Latinezko *silens* aztertzen du eta inork ez dakialako zer den *sil-* hori euskarazko *itz-il/izil* hitzak emana dela, *sil-ens* hitzik gabe erran nahi luke. Horrela proto euskara mota bati *euskarien italique* izena ematen dio Europako gure hego hizkuntza aldiz gure euskara *euskarien hispanique* da eta hitz erabilera bitxi honekin leku batean zuberotar hitzak aipatuz idazten du «les espagnols (sic) disent uhaitz, uharri, uhain, uhadera».

## Euskararen jatorria eta askazgoak (Origine et filiation du basque)

Sanskrito eta latinarekin sartu baino lehen aski zintzoki euskararekin fonetika oso desberdinak dituztela dio: sanskritoaren alderantziz hitzen azkenean edo deklinabidetan f, g, dj, bh, th, dhv, sh, sz, h, ezin direla aurkitu euskaraz, halaber « m » latinaren deklinabidean, baita sanskritoaren hitz askotan agertzen dena: adibidetzat *Bhagavād Gītā* bertso batean hamar hitzetan m agertzen da hitzen azkenean.

Ongi eta luzaz Chahok sanskrito eta latina kidetzen ditu, baina euskara sanskrito baino lehen Hindustan herrian mintzatu dela frogatzeko, *euskar-ien hindustani* bat asmatzen du, sanskritoari hitzak eman dizkionak.

Idea hori abia puntu bezala ezen \*hamabat izateko ordez – *hameka/hamaika* zenbakia dugu *-eka* hitza sanskritoz « bat » da. Gorago ikusi bezala, euskarak sanskritoari eta latinari eta ondokoei atzizki emankor bat eman omen dion bezala latinari *-tas*, *-tasun* eta

*-tas*. Ez luzatzeko adibide batzuk: bat malgutasuna adierazteko Iparraldean *mardotasuna* erraten da eta sanskritoz *murdutāma*. Sanskrito hitzak ez badira berdinak.

Chahok erran nahia kontutan hartuz euskaratik itzuli hitzak direla idazten du *parāmeshuāra Jaungoikoa* itzulpena dela, nik dakidanez Oihenartek *betegintzarre* deitzen zuena esan nahi du eta budismoaren oinarriko liburuetarik bat da. *Suriya* sanskritoz eguzkia da eta Chahok dio euskarazko *zuri* tik heldu dela baita biak «euskarazko «su» hitzetik, zoritxarrez sanskritoz suari «safed» esaten zaio eta honelako linguistika fikzioarekin onartu behar genuke gure arbasoak Indietan bizitu zirela. Ez da harrigarri *Aitor* asmatu zue-narengandik horrelako kontraesanak gertatzea eta Larramendi baino urrunago joatea.

Egipton ere agertzen dira tarteka euskaldunak. Zibilizazio handien iturri garelako besteek errepikatuko dute hala nola Harst Estraburgoko erromanistak Mikenako eta Greziako zibilizazioa euskaldunengandik datozela.

Azken hitzez, Chaho ezin dugu osoki baztertu, alde batetik bere garaiko gizona delako, baina euskara munduko esperanto gisa izateko balentria baztertzen baitu eta erdarakada franko ez baztertzen. Halere, euskarak erakusten duen gramatika aberatsa ikerlariek ezin zuten onartu artzain kultura batek eman lezakeenik eta desagertu herri (Atlantida) edo Chahoren gisa hiru hizkuntza asmatuz Italiar euskara, Indiar euskara eta Hispaniar euskara.

Bere garaian, Larramendiz kanpo ez baitzen hiztegiarik berak argitaratu zatia izateko zorrea izan zuen, baina akats handiena da ez duela aitortzen zein idazleengandik, zein euskalkietarik hartu dituen terminuak. Hiztegiaren sartzen bada, latinetik asko hartu dugula aitortzen du, baina sarritan gaskoieraren bitartez mailegatu ditugula ez du aipatzen.

Behin betiko hiztegia aldakorra dela eta ezin dela erabili urrungo hizkuntzekin kidetzeko gogoan sartu behar zaigu. Amateur asko eta erdi aditu batzuen gure hizkuntza uralo altaikoekin, kaukasikoekin, hititerarekin, mizenierarekin, piktoerarekin, malagasierarekin, ketxuarekin erkatzen ibili zaizkigu, noizbait nondik arraio etorri den gure mintzaira bitxia. Esan dut.

## Bibliografia

CHAHO, A. *Azti-beguia, Agosti Chaho Bassabunutarrek Ziberou herri maitiari Parisetik igorritik, (beste hanitchen aitzindari, arguibidian, goizizarra)*, Ed. Dondey-Dupré, Paris, 1834.

———. *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne par A.Th. d'Abbadie et J. Augustin Chaho*, Ed. Bertrand, Paris, 1836.

———. *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*, Ed. A. Bertrand, Paris, 1836.

———. *Génie de la langue latine dans ses rapports avec la synthèse grammaticale*, Ed. Ruzald, Paris, 1837.

———. *La guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne, adoptées pour la publication du Dictionnaire, basque, français, espagnol et latin*, Bayonne, P. Lespès, 1856.

———. *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des académies française et espagnole*, Bayonne, P. Lespès, 1857.



# Tubalengandik Aitorrengana

De Tubal a Aitor

De Tubal à Aitor

From Tubal to Aitor

TOLEDO, Ana  
Euskaltzaindia. Deustuko Unibertsitatea

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 697-718. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Errenazimenduan historiaren barrutian jaio zen Tubalen ondotik dator Erromantizismoan legenda jaioleku izan zuen Aitor. Ez ditu bakarrik jaiotze-garaiak eta jaiolekuak be-reizten. Baita iturri desberdinetatik edanaz sortuak izateak ere. Haatik, Garibayk moldatu-tako Tubalek eta Xahoren eskutik datorren Aitorrek euskaldunen jatorria eraikitzen dute, asmo jakinari erantzunez: giza komunitate honen identitate-ezaugarriak definitu gainerako komunitateen aurrean.

**Hitz-gakoak:** identitatea, Errenazimendua, Erromantizismoa, historia, legenda, biblistak, euskara.

Tubal hunde sus raíces en la historia de la época renacentista, mientras Aitor lo hace en la leyenda de la época romántica. Además de la época y el tipo de texto en el que se conforman, las diferencian las fuentes a las que acudieron sus respectivos autores. Sin embargo, comparten fines. Tanto Garibay al acudir al Patriarca Tubal como Xaho al Patriarca Aitor pretenden presentar los rasgos de identidad de un pueblo en relación a los demás.

**Palabras clave:** identidad, Renacimiento, Romanticismo, historia, leyenda, biblistas, euskara.

Tubal plonge ses racines dans l'histoire de la Renaissance, alors qu'Aitor a les siennes dans la légende de l'époque romantique. Mis à part l'époque et le type de texte dans lesquels ils naissent, leurs différences viennent des sources auxquelles leurs auteurs respectifs ont fait appel. Ils ont pourtant les mêmes buts. Garibay, lorsqu'il évoque le Patriarche Tubal et Xaho, lorsqu'il évoque le Patriarche Aitor, veulent tous les deux montrer des traits d'identité d'un même peuple par rapport aux autres.

**Mots-clés:** identité, Renaissance, Romantisme, histoire, légende, biblistes, langue basque.

Tubal was born in the midst of the history of the Renaissance while Aitor does so in the legend of the Romantic period. These two legends are not only distinguished from each other by the eras and places of birth, but also because they were created by feeding from different sources. However, Tubal adapted by Garibay and Aitor by Xaho construct the origin of the Basques by addressing one aim: to define the identity features of this human community before the rest of the communities.

**Keywords:** identity, Renaissance, Romanticism, history, legend, Biblists, Basque.

Gauza ezaguna da Aro Modernoaren ezaugarri izan zela norbere komunitatearentzat harik eta antzinaterik bikainena eraikitzea. Ez zebiltzan debalde lantegi horretan.

Antzinate grekolatindarrak liluratu du Mendebaldeko gizakia: Erdi Arotik Aro Modernora igarotzeak dakarren iraultza kultural ikaragarriaren eraginea, Antzinate grekolatindarra eredu bihurtzearen ondorio da. Antzinate grekolatindarreko kulturara begira jarri ziren: horra itzultzea zuten jomuga, edo egokiago esanda, Antzinate grekolatindar horren errautsetatik denbora berriei bizitza ematea. Mendebaldeko gizakiak birjaiotzea nahi du eta eragiketa horren bidez gizaki moderno bihurtzea.

Antzinate grekolatindarreko kulturara itzultzeak, igarotako mundua «berpizteak» edo Antzinate horretako errautsetatik denbora berriei bizitza emateak zeharo gainditzen zuen adierazpen artistikoaren barrutia. Ez zen bakarrik orduko arte-formak eredu gaindiezintzat jotzen zituztela, eta horregatik, imitatu egin nahi zituztela. Hori baino sakonagoa zen iraultza: Aro Modernoko gizakiak, bizitzaren ikuspegi berria, gizakiaren ikuspegi berria bilatzen du Antzinatean. Hala, ikuspegi teozentrikotik antropozentrikorako jauzia egiten du. Ikuspegi antropozentrikoaren alderdi funtsezko bat indibidualismoa da: «ni»a sistema ororen gunean kokatzera jotzen du. Indibidualismoaren ondorioz, Erdi Aroko mundu-ikuskeran lekurik ez zuten ezaugarriak nabarmentzen hasten dira: dela harrotasun intelektuala erakustea, dela fama eta ohorea eskuratzea jomuga izatea, fama eta ohorea eskuratuz betikotasuna lortzea...

Aitorpenarengatik borroka da identitatea eta borroka horren harian eratzten da bestetasuna, beste izatea. Horrenbestez, identitatea, aurrenik, bestearengandik bereiztea, desberdintzea da. Bereizi, gizabanako-mailan, bereizi giza talde mailan, jakina. Errenazimenduko indibidualismoa gizabanako mailan kokatutako sistemaren gune ez ezik, giza talde mailan kokatutako sistemaren gune ere bada. Giza komunitateek gainerako giza komunitateengandik desberdintzen dituzten ezaugarriak dituzte. Ezaugarri horien berri emateko ordua da. Nor diren bilatu, aztertu, mugatu eta besteei adierazteko tenorean daude. Horregatik, ez zebiltzan debalde nor bere komunitatearentzat antzinaterik bikainena eraikitzen ari zirenean: nor zen erakutsi behar zion komunitate bakoitzak bere garaikideei.

Testuinguru honetan, herri-hizkuntzekiko eta historiarekiko interesa pizten da<sup>1</sup>; izan ere, jatorriak eta hizkuntzak eratzen dute, buruen-buruenik, giza taldearen identitatea. Giza komunitate jakina osatzen duten gizakiek hizkuntza eta jatorri berbera partekatzen dute. Partekatzen dutenak batu egiten ditu eta gainerakoengandik bereiztu. Giza komunitatearen ezaugarri bereizle diren hizkuntza eta jatorria, zenbat eta duinago izan, orduan eta hobeto. Hartara, beste komunitateen aurrean ezaugarri identitario bikainekin ager daitezke.

Jatorria eta hizkuntza nahasi gabeak badira, hainbat hobe. Hizkuntzak nahasi gabea izateaz gain, landua izan behar du mailarik gorenena lortzeko. Bada hizkuntza landuaren kategoria eskuratzeko ezarritako eskakizunik: idazkeran erabilia, gramatikaren iragazitik iragazia... Eskakizun horiek betetzen ari dira modernitatera jaio nahi duten gizaki hauek. Euskararen XVI. mendeak ere izpiritu horrekin bat egin izanaren erakuskaririk utzi du: Etxepare harro azaltzen da euskara idatziz eman duelako, bada errefrauk bildu eta argitara ematen duenik... Giza komunitate desberdinek hizkuntza landuaren kategorian ikusi nahi dute beren hizkuntza, herri-hizkuntzaren maila gaindituz.

Azken batez, Errenazimenduak, gizabanako nahiz giza talde mailan, zigu-lu bereziaren eramaile izatea balioztatzen du: identitateren bat izatea. Izan, denak, erakutsi egin behar du bere nolakotasuna, gainerako giza komunitateen artean kokatzeko: identitate desberdinak dituzten giza talde guztiek ez dituzte gradu bereko identitateak. Ezarrita dauzkaten kanon batzuen arabera neurtu egiten dute identitatearen nolakotasuna. Gradurik gorenena lortzea da giza komunitate guztien helburua, gainerako giza komunitateen aurrean ezaugarriarik duinenen jabe izanaz aurkeztea estimu handitan daukatelako: ospea norberaganatuz, jaiotzen ari den mundu moderno horretan nor izatea eskuratu behar dute.

<sup>1</sup> «A medida que avanza el Renacimiento, la erudición de los hombres de letras se orienta hacia el estudio de la antigüedad de cada pueblo, y este pueblo, cada vez más, coincide en ser aquella comunidad o “patria” a que pertenece el autor. (...). El interés del investigador por sus compatriotas, que deriva de una solidaridad fundamental con el grupo de sus contemporáneos, impulsa a querer colocar a éstos por delante de todos los demás, y para elevarlos de tal manera se les construye el pedestal de una antigüedad propia, que se pretende tan ilustre o más que la de latinos y griegos». Maravall, J. A., 1986, *Antiguos y Modernos*, Madrid: Alianza Editorial, 407.

Errenazimenduko historiografiaren lana izan zen nor bere komunitatearen antzinatea eraikitzea<sup>2</sup>. Euskal historiografia, euskaraz gabe, erdaraz garatu zen: Martinez de Zaldibia, Garibay, Ibargüen-Cachopin... lekuko. Ez da hau erabilitako adierazpen-bitartekoan egindako aukeraz jarduteko lekua, baizik eta, baliatutako hizkuntzaz landa, garaiko kezken isla zenbaterainokoa izan zitekeen atzematekoa. Alderdi honetatik, aski da Garibayren *Compendio Historialera* (1571) jotzea, Aro Modernoko gizaki berrien ikuspegitik mamituta dagoela ikusteko. Esaterako, Aro Modernoko ikuspegitik epaitzen du euskararen egoera. Hala, urtealdi horietara iritsita, euskarak arautuko lukeen gramatikarik gabe jarraitzea deitoratzen duenean, badu motiborik: bereganatua du herri-hizkuntzaren eta hizkuntza landuaren mailen artean bere orainaldiak ezartzen duen aldea. Edo Tubal Espainiara ekarri –«la venida a España del Patriarcha Tubal su primer Rey»– eta Espainian «su asiento y habitación en la región de Cantabria y tierras de Navarra»<sup>3</sup> jartzen duenean, giza komunitate baten jatorria Aitalehen batengan kokatzen ari da: Garibayk ezagutzen du bere garaian jatorri Aitalehenduna ala gabea izateak daukan esanahia. Halaber, badaki, Aitalehenaren identitate-ezaugarriak zein irizpideren arabera ebaluatzen diren. Tubalen ondorengoak beste jatorri bat duten giza komunitateengandik bereizten ari da. Egiteko horretan sustrai sakonak eta bikainak atxikitzen dizkio zehazten ari den komunitateari.

Tubalek ekarri zuen euskara: hizkuntza garbia eta biribila<sup>4</sup>. Beraz, Tubal jatorri duen giza taldea besterekin nahasi gabea da: Aitalehen ezaguna du. Aitalehenak ekarritako hizkuntza gordetzen jarraitzen du.

Jakina denez, mendetako iraupena lortu zuen Garibayk aurkitutako antzinateak. Aurkikuntzaren funtsarekin bat egin zuten Andres de Pozak, Bal-

<sup>2</sup> «Una pasión prenatal, con todo lo que ésta tiene de preferencia por la comunidad presente a la que se pertenece, impulsa una historiografía que se desarrolla muy tempranamente en España y en Francia, empeñado en construir todo un remoto pasado, cuya antigüedad y grandeza sea el fundamento sobre el cual se levante la superioridad del grupo actual, al que políticamente se está vinculado». Maravall, J. A., 1986, 415.

<sup>3</sup> Garibay, E. de, 1571, *Los quarenta libros del Compendio Historial de las Chronicas y universal Historia de todos los Reynos de España*, I, Barcelona: Sebastián de Cormellas, 1628, 81.

<sup>4</sup> «está verificado ser la lengua cántabra pura y perfecta». Garibay, E. de, 1628, 92.

tasar Echavek, Jose Moretek, Manuel Larramendik, Juan Antonio Moglek..., nahiz eta, XVI. mendetik XVIII. mende bukaerarako ibilbide horretan egon zen historialaririk Garibayk aurkitutako antzinatetik lerratu zenik: Arnaud Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiaen* (1638) beste euskarri batzuen gain eraiki zuen historia. Oihenartek oso bestela ikusia zuen Euskal Herriko antzinatea: euskaldunen lurraldean bertan, jatorri biblikotatik urrun. Baina, ez Oihenarten historiak, ez bere gainerako idazlanek lortu zuten eraginik Euskal Herrian. Han, XVII. mendean, isolaturik gelditu ziren luzaroan.

XIX. mendean oraindik Garibayren aurkikuntzak badu lekurik jende eskolatuaren artean, sinesgarriago egin nahi duten ñabardurak eranstean diren arren. Antonio Tovarrek, Juan Antonio Moglez diharduela, «ya pisa en el siglo XIX que está iniciándose» esaten du, eta baiezipena indartzeko, Moglelengandik honako aipamen hau jasotzen: «Yo no he dicho ni diré que Tubal viniese en persona. El mismo Masdeu no dice tampoco que fue él el que vino, sino sus descendientes y los de Tarsis...»<sup>5</sup>.

Tubalek historiaren barrutian egin zuen agerrera XVI. mendeko Euskal Herrian. Hegoaldeko ikasiek, hizkuntzaren eta historiaren barrutia aztergai hartu zutenean, ez zuten auzitan jarri Tubal Aitalehena. XIX. mendean lehen erdiak onenak emanak zituenean, ordea, Hegoaldean ez, baina Iparraldean, historiaren eremutik legendarako jauzia eginaz, Aitalehen berri batek egin zuen agerrera: Joseph Augustin Xahoren *Aitor. Légende Cantabre* (1845) Aitorrengan jartzen du euskaldunen jatorria.

## 1. Joseph Augustin Xaho: *Aitor. Légende Cantabre*

Urtebete lehenago sortua zuen *Ariel* aldizkariko zenbaki desberdinetan argitaratu zuen Xahok legenda 1845ean. Tamainarengatik ez zituzkeen gaingituko liburuxkaren neurriak, baina, zeinahi dela ere arrazoia, inoiz ez zuen plazaratu liburu gisa, liburuko zati bihurtzera heldu zen arren. Aldizkariko argitalpenetik bi urtera *Histoire primitive des Euskariens-Basques, lan-*

<sup>5</sup> Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología de la lengua vasca*, Madrid: Alianza Editorial, 109.

*gue, poésie, moeurs et caractère de ce peuple: introduction à son histoire ancienne et moderne* (1847) idazlaneko atal bat osatuz eman zuen berriro.

Argitalpen-modu bera izango du gaztelaniaz: Arturo Campionek *Revista Euskarako* zenbaki desberdinetan kaleratu zuen (1878-1879) itzulpena<sup>6</sup>. Ordura arte frantsesaren ezaguera nahitaezkoa zuen euskaldunak bere Aitalehen legez aurkezten ziotenaren berri izateko. Aurrerantzean, gaztelania zekitenen eskura ere egongo da. Euskarazko itzulpenak XXI. mendera arte itxaron beharko du.

XVI. mendeko historia du jaioleku Tubal Aitalehenak: historia sorkuntza artistikotik zientziatik baino hurbilago dagoen garaia da. Aski da gaztelaniaren barrutiko Errenazimendu literarioa begiratzea, literatur genero tradizionalen mugak gaindituz garatzen dela atzemateko. Genero epiko, liriko eta dramatikoetatik at ere bada sorkuntza artistikorik: historia eta elkarrizketa lekuko. Denborak aurrera egin ahala, ordea, zientzia eta sorkuntza artistikoa bereziz joango dira, gero eta gehiago bereziz, hain zuzen ere. XIX. mendeak atea jo zuenerako, Tubal bezalako Aitalehen batek ez zeukan lekurik historia bezalako jakintzaren alor batean, oinarri zientifiko sendoagoak eskatzen zituelako. Arestian Mogelengandik jaso den pasarteak berak iradokitzen du jende ikasiak jakintzaren alorra asmaziotik urrutiratu egin nahi duela: «gehiegizko» deritzo Tubal bera etorri zela onartzeari. Jakintzaren alorraren eskakizunekin akortago letorkeen zerbait behar du Mogelek: asmazioa arintzen eta zorrotzasunean irabazten joatea gero eta eskakizun larriagoa da.

Halere, jakintzaren alorrak jarritako iragazkitik iragazterik ez zuen antzinatearen eraikuntzak ez zeukan desagertu beharrik; ez behintzat nahitaez; izan ere, aurki zezakeen beste kokapen bat, fikziora jotzen duten generoek

<sup>6</sup> Itzulpena libre samarra da. Esaterako, Xahok Aitorren bikotekideari Amagoia izena ematen dio. Izen propiorik gabe azaltzen da Campionen itzulpenean. Vahan Sarkisian-ek alde nabariak atzematen ditu Xahoren testuaren eta Campionek eginiko itzulpenaren artean. Hainbesteko aldeak non «Arturo Campion: traductor y coautor de la leyenda de Aitor» izenburupean heltzen dion gai honi. Ik. *Joseph-Augustin Chaho. Aitor.-Légende Cantabre. Aitor: Leyenda Cantabra. Aitor-Kantabriar kondaira*, Bilbao: Erevan, 2008, 74. or. eta hurrengoak. Argitalpen honetatik jasoko dira Xahoren legendatik aurrerantzean egingo diren aipamenak.

eskainitako aterpean. Berez, euskaldunen Aitalehen berriak legenda batean hartu zuen bizitza. Argitalpen-data ikusita ez du harridura-izpirik eragiten sorkaria bideratzeko erabili zen generoarekin topo egiteak. Erromantizismoa indarrean dago; legenda, Erromantizismoak estimatzen duen generoa da.

Gaztelaniaz idatzi zuen Garibay arrasatearrak eman zion bizitza Tubali, noiz eta estatu modernoan jaiotzaren garaian, giza komunitate bakoitzak bere nortasun-agiria gainerako komunitateen aurrean erakutsi behar zue-nean. Haatik, orduko modernoan «birjaiotzeak» ez zuen lortu euskal komunitatearentzat, etorkizunean euskal komunitate legez bizi izaten jarraitzeko behar zituen beste bitarteko. Euskalduna odol garbiko, prestu egiten duen Aitalehen batengandik bazetorren ere, bere hizkuntza desagertzeko egoera larrira heldu da; mundu idatzira jai giroan sartu zen euskara prestigioa galduz joan da. Euskara atzera egiten dakusa Humboldt-ek XIX. mendearen hastapenean, 1801ean, eta mende bateko iraupena izatera iritsiko ote denez zalantzak ditu<sup>7</sup>. Mende erdi igaro eta gero, 1853an, Jean Martin Hiribarrenek zionez, «Zenbatak jakitea eskara herriko / Ez baitute kondatzen bi arditendako!»<sup>8</sup>: zenbaitetik bi zentimotan ere ez badauka herriko euskara jakitea, ez dauka prestigio handirik!

Euskal Herriko gizartean euskal komunitatearen bizitza ahultze-prozesu etengabearen barneraturik zela, ahultze-prozesuari aurre egiteko aukera berri bat dator, herri eta hizkuntza baztertuak babestea bilatzen duen giroa, aurreko aukeran komunitatearen iraupena ziurtatzeko behar besteko oinarriak eskuratu ez zituztenentzat. Europako Mendebaldean bada aldaketarik:

<sup>7</sup> «Ya en el día tiene que retroceder a la montaña, de decenio en decenio cada vez más, acosada por todos lados, tratada como por mala madre precisamente por la parte más ilustrada de la nación, y es de prever que su decadencia tomará de aquí en adelante una marcha aún más acelerada. (...). En menos de un siglo habrá desaparecido quizás el vascuence de la serie de lenguas vivas y hasta en los nuevos tiempos hubo fenómenos semejantes». Humboldt, W., *Los vascos: apuntes sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Donostia: Auñamendi Argitaletxea, 1975, 13.

<sup>8</sup> Hiribarren, J. M., 1994, *Euskaldunak*. Patxi Altunak, Gurutze Aldabaldetrekuk eta Amaia Bonetak prestatutako edizioa, Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea, 17-18 bertzo-lerroak. Aurrerantzean egingo diren aipamenak edizio honetatik jasoko dira.



*Las conquistas de Napoleón en toda Europa reforzaron la expansión de las ideas revolucionarias e hicieron aflorar los sentimientos nacionalistas en Alemania e Italia, pero también produjeron efectos en España, Polonia, Bélgica, Rusia y Portugal. Esos sentimientos se manifestaban en una actitud de resistencia ante el dominio extranjero, es decir, ante el imperialismo francés. Como consecuencia, cobraron un nuevo valor las costumbres nativas, las instituciones locales, la cultura y la lengua tradicionales<sup>9</sup>.*

Errenazimendua herri-hizkuntzak kultur hizkuntza bihurtzeko lantegian murgildu zen buru-belarri. Orain, erromantizismoaren etorrerarekin, nork bere hizkuntza lantzeko gonbita dator berriro: hizkuntza da giza komunitatearen izaera berezia mugatzen duen osagai garrantzitsuenetakoa. Nola Errenazimenduak hala Erromantizismoak bereizirik dagoena balioztatzen dute. Gizabanako edo giza talde mailan bereizirik dagoenaz jarduteak erakartzen ditu erromantikoak<sup>10</sup>.

Oso konplexua, oso plurala, baita kontradiktorioa ere, den mugimendu erromantikoan indarra hartu zuen joeretako batek Alemania du gune. Herder-ek, esaterako, 1767rako adierazita zeukan herri bakoitzak bere izaera berezia duela. Zeinahi nazioen izaera berezia bere herriaren izpirituan azaltzen da. Izaera berezi hori herri horren ohitura, erakunde, arte eta literatur lanetan adierazten da eta bere baitan du balioa.

Arrunta izan zen erromantikoengan leku exotikoetan edo iragandako denboretan orainaldiak eragindako frustrazioari ihes egiteko modua bilatzea. Giza komunitate baten izaera berezia zedarritzeko aukera aproposa ere eskaintzen zuen lehen aldiak.

Testuinguru honetan sortzen du Xahok euskaldunen Aitalehen berria: Tubal gabe, Aitor da; historia gabe, legenda du bizileku. Beraz, fikziozko

<sup>9</sup> Romero, D., 2006, «Introducción», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial, 11.

<sup>10</sup> «El foco irradiante del romanticismo, como el de cualquier otra época, es, en nuestra tesis, el sentimiento individualista (...). Y es este alto grado de individualismo el que nos hace entender, de inmediato, la afición romántica por todo lo que está individualizado, lo que tiene carácter, lo que posee “color local”». Bousoño, C., 1981, *Épocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Época Contemporánea*, I, Madrid: Editorial Gredos, 27.

genero batean jaiotzen da Aitor eta, horrenbestez, irudimenari nahi hainbateko tartea egin diezaioke Xahok. Halere, historiarekin edo ustezko historiarekin lokarriren bat mantendu nahi izan balu bezala, dokumenturen batean aipatzen den norbaitengana jotzea aukeratzen du, honek Aitorren berri eman dezan. Zehazki, Silio Italiko poetak aipatutako Lararengana.

Dirudienez, Silio Italiko<sup>11</sup> poeta epikoak bigarren gerra punikoari eskaini zion poema epikoan, Eszipionen aurka adoretzu borrokatu zuen Lara gerrari bardularra goraiatzen du. Gerrari bikaina ez ezik, koblakari paregabea ere bazen Lara bardularraren esku uzten du Xahok Aitorren legendaren kontaketa. Xahoren *Aitor. Légende Cantabren* esatari baten ahotsetik ernetzen da Aitorren figura: Lararenetik. Enuntziatio-ekintzak badu subjektu bat: Lara. Subjektu honen enuntziatio-ekintza maila bateraino zehazten den lekuan –Gherekiz-en– eta denboran –euskaldunak Pirinioetan bizi direnetik hogeit hamar mendera egindako Ilbete-festan– garatzen da. Alabaina, Xahok ez du Lara mugatzen leku eta denbora koordinada hauetan kontaktzen duenaren esatari soil izatera: egile bihurtzeaz gainera, sorkariko pertsonaia bihurtzen du. Alegia, Xaho egile erreala, bere legenda sinesgarriago bihurtzeko edo, testu zahar batean aipatutako norbaitengana eskualdatzen du autoretza, sorkariaren errexitatzaile izateko egitekoa eman, eta errexitazio-ekintza hastear dela sorkariko pertsonaian itxuraldatzen du. Entzuleek Aitorren irudiarekin berarekin identifikatzen dute:

*Il portait en ce moment une longue barbe blanche, qui lui descendait à la ceinture. Il s'était coiffé d'une mitre brillante, et avait drapé sur ses épaules la riche dalmatique, qui était le principal vêtement des mages et des devins, dans la république ibérienne. Et lorsque, d'un pas grave et majestueux, il s'avança jusqu'au bord de son estrade, appuyé sur une branche chêne (...), à la clarté de la pleine lune qui rayonnait sur tout le paysage au scintillement argenté des broderies symboliques qui ornaient le costume du barde travesti en vieillard, chacun reconnut l'image d'Aïtor, le grand ancêtre, le patriarche (19).*

<sup>11</sup> Lehen mendeko politikari eta poeta erromatarra.

Honenbestez, Xahok, sortzaile, sorkariaren errexitatzaile eta sorkariko pertsonaia izateko eginkizunak izaki berberari ematen dizkio: Larari, Eszipioni aurre egin zion gerrari barduliarrari.

Horrenbeste erantzukizun bereganatzen dituen Larak, historian edo uszteko historian txertatzen ditu erroak. Ez hori bakarrik. Errenazimenduak eredu zko jaun prestu legez aurkeztu zuen tipo ideala dirudi. Baltasar Castiglione *Il Cortegioanon* (1528) moldatu zuen jaun prestu perfektuak armetan bezain trebe izan behar zuen letretan. Eredu ernazentistak giza ahalmen guztien garapen bete-betea bilatzen du: fisikoena eta izpirituzkoena.

Bistakoa da, Larak ezin zituela menderatu letrak. Errenazimendukoa liburuaren gain eraikitako lehen kultura delarik, Castiglione bere garaiko pentsamendua erakusten du armetan eta letretan, bieran trebe izatea eredu eraikitzen duenean. Xahok ezin eraiki zezakeen letretan trebe zen pertsonaia, ez bazuen anakronismoan erori nahi: egokiago dirudi koblakari ezau-garriaz baliatzea, bere pertsonaiaren garaiarekin bat egiteko. Gerra punikoaren garaiko pertsonaia ezin izan daiteke Errenazimenduak aurkeztutako eredukoa bezain fina: letrak trebetasunez erabiliko dituen, andreekin elkarriketan dotoretasunez jardungo duena, musika-tresnaren bat joko duena... «Landugabeagoa», trauskilagoa izango da: oraindik fintasuna baloratzera iritsi ez den zibilizaziokoa. Baina, Errenazimenduko ereduak bezala, ahalmen fisikoak eta izpirituzkoak uztartzen ditu: iaioa armen eta hitzaren erabileran, gerraria eta koblakaria, gerrarietan euskal gerraririk hoberena eta, koblakarietan euskal koblakaririk bikainena. Koblakari bete-betea: ez bakarrik hitzaz baliatuz sortzen duena, baita sortutakoa irudikatzen duena ere. Sortzaile legez, gainera, hitza modu artistikoan erabiltzeaz gain, ezaguerak zabaltzeko bitarteko bihurtzen du. Larari darion hitza ez dago entzuleen entretenimendu eta olgeta soilera bideratua: Aitor Aitalehenaren berri eman behar du. Lantegi horretarako hitzaren erabilera menderatzeaz gain, oro har, giza zientzietako eta, bereziki, filologiako ezaguerak menderatu behar ditu.

Honela bada, gerrari trebea eta koblakari jakintsua da Lara. Koblakari jakintsua den aldetik «letratua» dela gainera daiteke. Gisa honetan, buruz ondo jantzia eta armen eta hitzaren erabileran iaioa den norbait hautatzen

duenean Xahok, prestigio handiko statusaren jabe egiten ari da Aitorren legendaren sortzaile, errezeitzaile eta errepresentatzailea dena. Goi-mailako pertsonaiarentzat –Aitor–, goi-mailako sortzailea, errezeitzailea eta errepresentatzailea.

Makina bat gauza asmatu dute Larak sortutako Aitorrek eta honen ondorengoek:

*C'est lorsque nous commençâmes à denombrier les années par les inondations du Nil que nous inventâmes l'horloge d'eau, la clepsydre (41).*

*Ce sont les Ibères qui ont créé en Occident la science du calcul (45).*

*Les règles du calcul une fois connues, des observations attentives nous découvrirent bientôt les lois qui président aux phénomènes célestes (46).*

*C'est aux Ibères que les Européens doivent leur semaine de sept jours, et c'est par moi qu'elle fut instituée sur l'aspect des différentes phases de la lune pendant sa révolution synodique (48).*

*Les Euskariens, par dessus tous les peuples primitifs, furent les hommes du devoir. Ils ont créé la parole, l'art, la science, adoré la vérité, pratiqué la justice (59).*

Tubali jatorri biblikoa izateak ematen bazion ospea, gizakiaren ibilbidera ekarritako aurrerapenek ezaugarritzen dute Aitor. Lehenak, historia izan zuen sorleku, bigarrenak legenda: testu-tipo arras desberdinak, erkaketa eragozten dutenak. Erkaketa baterako behar bezain homogeenak ez diren osagaiak alderatzeak dauzkan ahulezia guztiekin bada ere, Aitorrek Tubalek baino itxura «modernoagoa» erakusten duela erants daiteke. Idazketa-garaiak ere, hala izatea eskatzen zuen, hiru mendera hurreratzen baita, jaiotze-datetan daukaten alde. Itxura modernoagoa erakustearen kausa, oraingoz behintzat, alboratuz, kontua da, Tubalen ospea «sinesmenen» barrutiko genealogian irabazitako lekutik eratortzen den bitartean, arrazoian eta honen bidetik lortutako aurrerapenen barrutietan irabazitako lekutik eratorritzen dela Aitorrena. Giza ahalmenen garapenetik gizakiarentzat onuragarriak diren aurrerapenak ekarri dituzte Aitor eta honen ondorengoek. Tubalen prestigioaren euskarri bere jatorri biblikoa den neurrian eta Aitorrena, berriz, gizakiaren onurarako egindakoak, ikuspegi teozentrikoago ba-

ten adierazle da lehena eta, antropozentrikoago batena, bigarrena. Honako zentzu honetan, bai behintzat: Jainkoak hautatutako herriko kide eta Jainkoarekin harreman zuzena izandako norbaiten ondorengo izatearen gain eraikitzen bada Tubalen entzute handia, gizakiaren bizimodua errazten doazen asmakuntzak eginaz joan izanean oinarritzen da Aitorrena.

Laburbilduz, ospe handiko lehen aldia du Aitorrengan jatorria duen giza komunitateak: gizateriarentzat aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituen Aitalehen batengandik dator.

Euskara ekarri zuen Tubalen aurrean, euskararen sortzailea da Aitalehen berria. Xahok aurkezten duen Aitor errealitateak erakusten diona izendatu beharrean aurkitzen da. Lantegi honetan, zeinu linguistikoa, arbitrarioa gabe, motibatutzat jotzen du. Adierazle - adierazien arteko harremanak arrazoi bati erantzuten dio<sup>12</sup>.

Dena den, Tubalen eta Aitorren eraketa-moduetan egon daitezkeen aldeez harantz, eginkizun berbera betetzen dute: giza talde baten sorrera kokuatu. Aitalehen jakina izateak beste Aitalehen bat dutenengandik bereizten du giza taldea eta, zer esanik ez, Aitalehenik ez dutenengandik. Aitalehenak identitate berezi baten jabe egiten ditu bere ondorengoak: berak sortutako komunitatea gainerako giza komunitateak ez bezalakoa da.

Garbi dago identitate-ezaugarrien berri emateko Aitorrek darabilen prozedura. Uholdearen egunetatik hasi eta, euskal hitzen esanahia kontaketa antolatzeke ardatz eraikiz, garaikide dituen komunitateen ezaugarriek aurka jarritz definitzen du eratzen duen komunitatearen banakotasuna.

Nortasun bereziko komunitatea eratu zuen Aitorrek. Garaikide dituen komunitateak ez bezalako ezaugarriak ditu. Lau gauzak bereizten dute euskalduna zeltarengandik:

*Quatre choses distinguent l'Euskarien du Celte: la langue, la religion, les moeurs et les lois (23).*

<sup>12</sup> Ik. adibide ugarien artean hautatuko bat: «Mes lèvres tremblantes restèrent longtemps muettes; la parole était morte en moi: j'exprimai le silence par un mot (*itz-il*) qui signifie l'anéantissement de la parole» (27).

Euskal komunitate eta zeltarraren arteko aldea hizkuntzan, erlijioan, ohituretan eta legeetan baldin badago, bada beste ezaugarririk hasierako giza komunitateengandik euskalduna desberdintzen duenik:

*Les euskariens, par-dessus tous les peuples primitifs, furent les hommes du devoir. Ils ont créé la parole, l'art, la science, adoré la vérité, pratiqué la justice; ils ont fondé, avec la société, la liberté civile, principe de tout ordre, de toute harmonie; et plutôt que d'accepter la servitude des Barbares ou de l'imposer aux tribus infidèles, ils se sont résignés à la fuite, à l'émigration; ils ont fait un pacte avec la mort. L'étranger, au contraire, fut le père de l'esclavage, il imagina la guerre, et produisit l'iniquité; peuple cruel, superstitieux, idolâtre, il méconnut Dieu, dans sa révolte contre les lois providentielles (59).*

Azken batez, euskal komunitate bat badela erakustea da Xahoren helburua. Xede honek darama Aitor Aitalehenari bizitza ematera. Honen egitekoa, berriz, eratu duen komunitatea munduan kokatzea da: besteekiko harremanean euskal komunitatea definitzea.

## 2. Tubal / Aitor

Tubalek XIX. mendean bizirik bazirauen, galde daiteke, zerk eraman zezakeen Xaho beste Aitalehen bat sortzera, Tubalen usadioarekin hautsiz. Hona, Xahok Aitor asmatzean zukeen jomuga Jon Juaristirentzat:

*En nuestra opinión, con la invención de Aitor, Chaho perseguía un doble objetivo: dotar a los vascos de un antepasado común, distinto del de los demás españoles (y, para ello, no servía Túbal, toda vez que el hijo de Jafet había sido considerado padre de los pueblos hispánicos por muchos cronistas e historiadores) y, en segundo lugar, separar absolutamente la genealogía del pueblo vasco de la de los pueblos semíticos, pues el mito del origen tubalista los asimilaba en cierta medida a los judíos. De ahí que Chaho evite aludir a los patriarcas anteriores a Abraham. (...). En cualquier caso, Aitor es un patriarca «ario», como los fundadores de los pueblos indo e iranio<sup>13</sup>.*

<sup>13</sup> Juaristi, J., 1987, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus Ediciones, 96-97.

Zinez, Aitor ez da Espainiako lehen errege Garibayren esanetan Tubal zen bezala, ezta Iberiako errege Xahoren garaikide zen Jean Martin Hiribarenek adierazi bezala. Nolanahi ere, ez dirudi Xahok herrialde hispanikoe-kin behintzat arazo handiegirik zuenik, honela baitio: «Le plus ancien des peuples qui ait habité après nous la Péninsule espagnole, fut le peuple des Celtes» (22). Beraz, euskalduna jotzen du espainol penintsulako bizilagunik zaharrena: Iberiar penintsula izendapena erabili beharrik ere ez du somatu.

Nire ustez, Xahok ez du arbuiatzen Tubal: Tubalek eta Aitorrek jatorri desberdina dute, besterik gabe. Ikuspegi honen aldeko edo aurkako argumen- tuak ezin aurki daitezke Aitor. *Légende Cantabre* idazlanean, bai ordea, argi- talpen honetatik bi urtera Xahok plazaratu zuen *Histoire primitive des Euska- riens-Basques* idazlanean. Historia egitea asmo zuen testu honetan dioenez,

*Nous admettons avec les Biblistes que les Euskariens, ou, si on l'aime mieux, les Thuballiens, ont été les premiers et les plus anciens colons de la Péninsule espagnole*<sup>14</sup>.

Euskaldunak edo, hobeto esanda, Tubaldarrak izan badira penintsula es- painoleko lehen bizilagunak, zergatik sortu Aitor? Liburu berdineko beste pasarte batean erantzuna aurki daitekeelakoan nago. Honakoan, hain juxtu:

*Le Vascon des Pyrénées, l'Euskarien, l'Ibère, n'a plus de livres an- tiques; il a perdu ses légendes, ses poèmes, mais il a conservé des monu- ments plus indestructibles, ses lois, les chants de ses bardes improvisateurs que le vieillard répète, que l'enfant retient, et, par dessus tout, une langue vierge et savante* (170).

Horra hor gakoa: ustez galduak diren legendak berreskuratzen dator Xaho. Tubal, Biblisten eskutik, «zientziaren» barrutian azaldu zen; beste jatorri bat du Aitorrek: legenda batean hartzen du bizitza. Hau da, zientzia egitea bilatzen zutenen liburuak zituen bizileku Tubalek: dela Garibay edo Poza, dela Echave edo Larramendi... Egileak bere obra moldatzerakoan zientzia egiteko jarrera hartzen du eta gisa horretan jasotzen gonbidatzen hartzailea. Xahok, ordea, antzinako libururik, legendarik eta poemarik gor-

<sup>14</sup> Chaho, J. A., 1847, *Histoire primitive des Euskariens-Basques*, I, Madrid, Bayonne: Chez Jayme- bon Éditeur, 168.

detzen ez zuen herri bati, zehazki, legenda bat berreskuratu nahi dio. Legenda hitza izenburura bertara eramanez, modu honetan bereganatzeko gonbita luzatzen dio hartzaileari.

Legenda bat berreskuratzeko zeregina bere buruari egotzi dion Xahok, hautatua du lantegi honi heltzerakoan baliatuko duen laguntzailea. Laguntzailea, liburuek, legendek eta poemek erabiltzen duten bitartekoa da, baina hauek bezain suntsigarria izan gabe. Suntsipenetatik salbu gorde den monumentua hizkuntza da: horra hor, legenda bat berreskuratzeko esku artean daukan «dokumentua»: oso antzinakoa den dokumentua. *Aïtor* plazaratu eta bi urtera argitaratu zuen *Histoire primitiven* erakutsitako pentsamendura jo zuen legenda moldatzerakoan: filologia bide lagun harturik eraiki zuen Aitalehenaren figura.

Juaristik apologiatik legendatik baino hurbilago zekusan Xahoren legenda<sup>15</sup>. Motiboa *Histoire primitiven* egin aitorpenean egon daiteke: guztien gainetik gorde den monumentua hizkuntza da. Xahok hala uste badu, hizkuntza du antzinatea aurkitzeko bitartekorik bikainena. Berez, horixe egin zuen *Aïtor*. *Légende Cantabren*: euskal hitzen esanahia abiapuntu hartuaz euskaldunen antzinatea berreraiki.

Jada XIX. mendekoa den Xahok badaki herri baten sorrerara zientzilari moduan hurbiltzeak eragozpen handiak dituela:

*Les questions d'origine (euskaldunena) sont difficiles à résoudre, surtout quand il s'agit de peuples très-anciens, à moins qu'on ne se borne à tirer de la Genèse et de la tradition des Juifs toute la philosophie de l'histoire (Histoire primitive, 164).*

XVI. mendeko historia ez da XIX. mendearen erdi inguruko historia bezalakoa. Aditzera eman denez, XVI. mendeko historia genero literarioetatik zientifikoetatik baino hurbilago dago, zientziari eskatzen zaion zorrotasunetik gutxi duelako, kontatzen ari denaren zehaztasunak baino kontraerak berak gehiago arduratzen baitu. XVI. mendeko historialariarentzat «Genezia» izan zitekeen iturri; XIX. mendekoak euskarri sendoagoak behar ditu.

<sup>15</sup> Juaristi, J., 1987, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, 104.



Xahok *Histoire primitive* kaleratzen duenean, bi urteko bitzta baino ez du Aitorrek. Halere, antzinako historia moldatzeari ekiten dioenean, euskaldunen jatorria Tubalengan jartzen zutenak Bibliaren aztertzailetara mugatuz, jende ikasiaren artean ia hiru mendetako antzinatasuna lortua zuen Tubal Aitalehena ordezkatzeko: Aitor da euskaldunen Aitalehena:

*L'Arabe et le Juif se vantent d'être issus, par Ismaël et Jacob, du patriarche Abram ou Abraham: les Ibères font remonter leur origine au patriarche Aïtor ou Aitjoren, dont le nom en langue euskarienne signifie exactement comme en hébreu, père grand, élevé, ou père de la multitude. L'Arabe et le Juif ne possèdent qu'un livre chacun, dans lequel sont cachés, sous un sceau mystérieux, les premières traditions des ancêtres, les oracles des anciens jours* (Histoire primitive, 169).

Arabiarraren eta juduaren Aitalehenen parekoa jada ez da Tubal, Aitor baino. Horrela, Bibliak kontatutako hainbat gertakizunetan oinarrituz egindako jatorri-bilaketarekin amaitzen du Xahok: Garibayren esanetan, Tubal Noeren biloba zen; euskara Babelgo dorrearen eraikuntzak ekarritako hizkuntza-nahasketaren ondotik munduan barreiatu ziren 72 hizkuntzetako bat; nahasketa honetatik hamabi urtera etorritakoa, berriz, Tubal...

Aitalehen «laikoago» den Aitorri ematen dio Xahok ordura arte Tubal betetzen ari zen lekua. Haatik, XIX. mendearen bigarren erdian oraindik Tubalek Aitorrek baino toki zabalagoa hartzen du euskal adierazpen idatzian, bata, bestea, ala biak, aipatzera iristen diren testuen arabera.

Fikzioaren barrutian itxuratu zuen Xahok Aitor eta barruti horretan kokatuko da aurrerantzean bere bizilekua. Tubalek, berriz, historian egin zuen agerrera. Jatorri desberdinok, seguru aski, badute eraginik Aitalehen hauek XIX. mendearen bigarren erdian eskuratutako kokalekuan.

Esaterako, Hiribarrenek bertsoaz baliatuz paratu zuen bere *Euskaldunak* (1853). Bertsoa erabili arren, ez zituen entretenimendu soilerako ondu, hitzaurre modura taxututako «Euskaldunei bi hitz hastean»-en zioenez. Helburu zehatza eskuratzeko paratu izana aitortzen du: euskaldunak Argien Mendea abian jartzera deitzeko. Hitzaurrearen ondotik, lehen kapitulu izendatzen duena dator, «Iberia (euskaldunen jatorria)» izenburupean. Euskaldunak Argien Menderako jauzia egiteko ordua duela hitzaurrean adie-

razi duen Hiribarrenek Iberian dakusa euskaldunen jatorria. Garibayren esanetan, Tubal Espainako lehen errege izan bazen, Hiribarrenek Iberiako bigarren errege legez aurkezten du Tubal. Besterengandik jasotako datua du. Aipatu eta guzti egiten du iturria: Beros<sup>16</sup>.

Euskalduna Argien Mendeari ongi etorria eman beharrean zegoela uste zuen Hiribarrenentzat, XIX. mendearen bigarren erdian bizi den Hiribarrenentzat, iberiar erregeen zerrendak ez du fidagarritasun zientifiko handiegirik:

*Zaharren eran oro sinhesten badire, / Iberian errege asko izan dire. /  
Berosen arabera, huna pulikisko: / Ibero, Tubal, Brigo, Jubal, Horma,  
Beko (273-276 bertso-lerroak).*

Argien Mendera igarotzea jomuga duen Hiribarrenek<sup>17</sup> iberiar erregeen zerrendari halako balio zientifikoa ematen badio, are balio zientifiko gutxiagokoa du Aitor: Aitorrek, alegiazko izaera du.

Denborak aurrera egin ahala, zientzia eta sorkuntza artistikoa gero eta gehiago berezi dira. Argien Menderako jauzia egitea asmo duen Hiribarren ohartzen da historiaren oinarrien ahuleziaz, iragan denboretako historialariak zientziaren barrutitik kanpo ibili izan direla. Hortik, «Zaharren eran oro sinhesten badire» bezalako adierazpena jotzea: zaharrak ditu iturri, zaharrron esanek izan ditzaketan ahulezia zientifiko guztiekin. Baldintza hauetan bada ere, Tubal iragan denboretako jakintsuek aipatua zuten, Aitor bere egunetako asmazioa baino ez zenean. Hor dago, seguru aski, gakoa, zeren eta antzinako jakintsuek jasotakoei, fidagarritasun handiagoa edo txikiagoa emanaz bada ere, bere testuan leku egin dien Hiribarrenek, kanpoan utzi du Aitor. Badirudi, dokumentu zaharretan lekukotzaren bat izatea nahitaezko baldintzatat jo duela bere kontaktaren osagai bihurtzeko. Hala, Hiribarrenen testuan, Aitorrek eskuratzen ez duena eskuratuko du Aitorren legendaren errezitatzailea eta sortzailea den Larak. Sortzaile-errezitatzailea eta honen sorkariko pertsonaiaren artean funtsezko aldea dago: sortzaile-erre-

<sup>16</sup> Kristo aurretiko III. mendean Babiloniako historialaria.

<sup>17</sup> Ik. Toledo, A. M., 2010, «Arbasoak Hiribarrenen *Eskaldunak* idazlanean», *Euskera*, 55,3 (2010) 1165-1190.

zitatzailea (Lara) antzinako jakintsuek aipatua zuten, ez horrela sorkariko pertsonaia (Aitor). Lararen berri Silio Italikok ematen zuen: iturri hori partekatu zuten Hiribarrenek eta Xahok: Xahok gerrari paregabea izan zela esateko eta koblakari moduan nolakoa den erakusteko aukera emateko; Hiribarrenek, Eszipion eta Lararen arteko borroka nolakoa izan zen azaltzeko (681-748 bertso-lerroak).

Beraz, XIX. mendean jaiotako Aitorrek ez zuen ekarri Tubalen heriotzarik. Aitorrek ez du ordezkutzen Tubal XIX. mendearen bigarren erdian. Ezta Hego aldean ere, nahiz eta zabalpenik izan zuen eta hainbat testutako pertsonaia bihurtu zen. Norgehiagokan Tubalek jarraitzen du garaile izaten, euskaraz idatzitako testuetan behintzat. Esaterako, behin eta berriz Tubalengana jotzen duen Arrese Beitiak, kasu bakanen batean baino ez du jotzen Aitorrengana.

Ez da zientzia egitea Arrese Beitiaren xedea, baina Aitalehen bat behar izan zuenean, Tubal deitu zuen. Foruak galduta eta euskara hil zorian zekusala salatzerakoan, Tubal du gogoan, Tubal duelako Aitalehen. Frustrazio-iturri du orainaldia: euskara heriotzaren atarian da; foruek jasan berri dute azken murrizketa. Bada Aitalehena deitzeko beste motibo. Testuinguru honetan sarritan jotzen du Tubalengana, euskaldunen Aitalehenarengana, Arrese Beitiak: historiaren barrutian agerrera egina zuen Tubal lehenesten dio Aitorri, «zientziaren» alorrean hiru mende lehenago sortutako Aitalehena, literaturaren alorrean hogeit eta hamar urteko antzintasun soila duenaren aurrean, alegia. Sinesgarritasun handiagoa izan zezakeen Tubalek: jakintsuen artean jaio eta bizi izana zen hiru mendez, Aitor, berriz, erromantikoek gogoz jorratu zuten genero literario batean jaioberri da. Bestalde, Arrese Beitia Hego aldeko idazlea da. Baita Tubalen hiru mendetako tradizioa ere. Horrenbestez, bere testuingururik hurbilenean indar iradokitzaille handiagoa izan zezakeen. Gainera, Tubalek abantaila nabariak zituen foruak errotik moztu dituzten honetan; izan ere, Tubal zen euskal komunitatearen jatorrizko independentziaren euskarri eta jatorrizko independentzia hori autogobernatzeko eskubideak galdatzeko oinarri. Beraz, Arrese Beitiak izan zezakeen arrazoirik Aitalehen zaharrari eusteko, nahiz eta honen oroitzenak bere bertsoak harrapatzen dituen egunetan Aitorren oihartzuna zabaltzen ari zen Hego aldean: 1878-1879 urteetan argitaratu

zuen Campionek frantsesetik gaztelaniara egindako itzulpena eta 1879an bertan kaleratu Navarro Villosladak *Amaya o los vascos en el siglo VIII*. Juxtu 1879an Antoine d'Abbadiek Elizondon antolatu zituen Lore-Jokoetara aurkeztu zuen Arrese Beitiak «Ama euskeriari azken agurrak». Elizondon saritu zuten poesiak euskarari azken agurra egiteko ez zuen deitzen Aitor, Tubal baino, Xahoren legenda euskara Aitorren hizkuntza zela erakusten ahalegindu izanagatik:

Zori gaiztoan negargarri ta / Dot sentimentu andia, / Geure lur maite dakustalako / Gaztelatuta jarria; / Bestela erdu, erdu ikustera, / Tubal euskalaria; / Baña, ez dozu ezagutuko / Oraiñ zure jatorria.

¿Nun dira bada zure semiak / Foru ta euskera zaliak? / ¿Nun dira bada, Tubal, gure aita, / Zure ondorengo garbiak? / ¿Nun dira bada zure ume zintzo / Eta leyalen legiak? / ¿Nun dira orain, orain negarrak, / Nun dira nire begiak?

Beietan iya ez dot ikusten / Tubalen ume zintzorik, / Ez dalako gaur emen entzuten / Erderaz baño besterik; / Onexek dauka nire bionta / Naibagez erdibiturik, / Ez dodalako gure euskera / Osatuko dan usterik<sup>18</sup>.

1880an Maulen saritu zioten «Bizi da Ama Euskera»n ere, Tubal dakar euskara osatzera:

Bakia zugaz, baita anayakaz / Natortzu iragartera; / Tubal Aita naz, zerutik nator / Amatxo osatutera, / Atsegin eta pozez beterik / Zerutar danak batera, / Kantetan dabe izketa artean / Garbiena da Euskera (22-23).

*Euskal-Erria* aldizkarian 1882an ezagutzera eman zuen «Neguko goix zo-garri bat» bertsoan Tubalekin jarraitzen du:

Beragan eukalako uste os-osua, / Oraiñ egiaztu da itz Jaungoikozkua; / Tubal gure Aitari eukan agindua, / Lur au zala izango aiñ berarizkua, / Deitu eyoen danak zorionekua (35).

<sup>18</sup> Arrese ta Beitia, F., 1957, *Olerkiak*, Bilbao: Euskal Idazleak, 17-18. Aurrerantzean egingo diren aipamenak argitalpen honetatik jasoko dira.

Baita 1883an Hondarribian saritu zioten «Uste ez neban ordu bat» konposizioan ere:

Ta izket aiñ miragarria, / Armenia'tik Aita Tubal'ek / España'ra  
ekarria (51).

Jakinaren gainean egindako aukera da, Arrese Beitiak izan bazuelako Aitorren berri, Jose Manterola jaunari 1882an eskaini zion «Nere erriko ujola» bertsoak erakusten duen bezala:

Aurrera beti euskaldun lege / Santua gordetzekoa, / Dalako berau  
Jaunak Aitorri / Antziña emandakoa (55).

Neurtitzaz baliatu izanak uztartzen ditu Hiribarren eta Arrese Beitia, baina Argien Mendea abian jartzea asmo izateak zientziaren barrutira bultzatzen zuen bitartean Hiribarren, ez zuen horrelako osagai baldintzatzailerik Arrese Beitiak. Halere, Tubal hautatu zuen: Tubalek bizirik dirau XIX. mendearen azken laurdenean.

Aitalehen bakoitzak eskuratutako proiektzioa alde batera utzita, kontua da biak egiteko berbera betetzeko jaiotakoak direla. Historia ala legenda izan sorleku, Bibliako gertakizunak abiapuntu hartu ala hauekin hautsi, Tubal nahiz Aitor, identitate bat eraikitzeke bitarteko izan ziren, garaiek identitate batekin aurkeztea nor izateko oinarritzko eskakizun bihurtu zutenean: Aro Modernoan estatuen jaiotzarekin, XIXan, nazionalismoenekin. Herri bat osatzen zela eta herri horren nortasun-agiriaren ezaugarriak gainerakoei erakutsi beharra egon zenean, egin zuten agerrera Aitalehen hauek. Euskarak ez zuen erdietsi botere politikotik etorritako bultzadarik ez zelako eratu estaturik hizkuntza ofizial bihurtu zuenik. Aro Modernoan estatu baten babes politikorik gabe gelditzeak komunitatea higadura-prozesu batean barnerratu du: 1853an Hiribarrenek esaten zuenez, euskaldunek hizkuntza arrotzak ikasten dituzte, euskaraz ia irakurtzen jakin gabe; badakite frantses errege handiak izan direla, baina ez dakite ezertxo ere euskaldunen balentriez; euskaraz jakiteak ez du ezertarako balio; liburu on guztia frantsesez egina da eta ez dago euskaraz baliorik duen libururik... Urte batzuk geroago, 1876az gero, Arrese Beitiak dioenez, euskara hil zorian da, foruak galduak dira... Giza komunitatearen egoeraz balorazio hauek egin aurretxoan, 1845ean, jaio zen Aitor. Aitorren egitekoa euskalduna nor izan den erakus-

tea da. Egiteko berbera izan zuen ia hiru mende lehenago jaio zen Tubalek. Orain, XIX. mendean, oraindik bizirik dirauen Tubalek eta jaioberri den Aitorrek egiteko berberarekin jarraitzen dute: giza talde baten nortasunaren ezaugarriak adierazi, giza talde horren autoestimua igo, euskal giza komunitateari aitortzen dioten nortasunak heriotza saihestuz, bizirik jarrai dezan.

### Aipatutako bibliografia

ARRESE TA BEITIA, F., 1957, *Olerkiak*, Bilbao: Euskal Idazleak.

BOUSOÑO, C., 1981, *Épocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Época Contemporánea*, I, Madrid: Editorial Gredos.

CHAHO, J.A., 2008, *Aïtor.-Légende Cantabre. Aitor: Leyenda Cántabra. Aitor-Kantabriar kondaira*, Bilbao: Erevan.

———, «La leyenda de Aitor», *Revista Euskara*, I (1878) 220-230, 241-248, 281-289; II (1879) 12-17, 44-52. Traducido del original francés por D. Arturo Campion.

———, 1847, *Histoire primitive des Euskariens-Basques*, I, Madrid, Bayonne: Chez Jaymebon Éditeur.

GARIBAY, E. DE, 1628, *Los quarenta libros del Compendio Historial de las Chronicas y universal Historia de todos los Reynos de España*, I, Barcelona: Sebastián de Cormellas.

HIRIBARREN, J.M., 1994, *Eskaldunak*. Patxi Altunak, Gurutze Aldabaldetrekuk eta Amaia Bonetak prestatutako edizioa, Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

HUMBOLDT, W., 1975, *Los vascos: apuntes sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Donostia: Añamendi Argitaldaria.

JUARISTI, J., 1987, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus Ediciones.

MARAVALL, J.A., 1986, *Antiguos y Modernos*, Madrid: Alianza Editorial.

ROMERO, D., 2006, «Introducción», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial.

TOLEDO, A.M., 2010, «Arbasoak Hiribarrenen *Eskaldunak* idazlanean», *Euskera*, 55,3 (2010) 1165-1190.

TOVAR, A., 1980, *Mitología e ideología de la lengua vasca*, Madrid: Alianza Editorial.

# Euskal Herria Chahoren begietan

Euskal Herria visto por Chaho

Le Pays Basque vu par Chaho

The Basque Country as seen by Chaho

HARITSCHELHAR, Jean

Euskaltzain emeritua

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 719-736. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Erromantikoa izanez Euskal Herriaren ikuspegi erromantikoa agertzen du Chahok idatzi dituen *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)* eta *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque* bi liburutan (1855).

Bazter zoragarriak, arraza zaharreko jende zuzena, bere askatasunari atxikia, hizkuntza eta kultura berezien jabea. Laudorioroz betea den lekukotasuna.

**Hitz-gakoak:** erromantizismoa, euskaldun jendea, euskara eta euskal kultura.

Romántico, Chaho ostenta una imagen romántica del País Vasco en los dos libros titulados *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)* y *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque (1855)*.

Paisaje maravilloso, pueblo de muy antigua estirpe, atento a su independencia, dueño de una lengua y una cultura específicas, tal es el testimonio idílico dado por Chaho.

**Palabras clave:** romanticismo, pueblo vasco, lengua y cultura vascas.

En vrai romantique Chaho dévoile une image romantique du Pays Basque dans les deux ouvrages intitulés *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)* et *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque (1855)*.

Paysage merveilleux, peuple d'une race très ancienne, soucieux de son indépendance, possesseur d'une langue et d'une culture spécifiques, tel est le témoignage idyllique apporté par Chaho.

**Mots-clés :** romantisme, peuple basque, langue et culture basques.

As a Romantic, a Romantic perspective emerges in the two books written by Chaho and entitled *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)* and *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque (1855)*.

Wonderful landscapes, upright people from an ancient race, attached to their freedom, and owners of their unique language and culture. A testimony full of praise.

**Keywords:** Romanticism, Basque-speaking people, Basque and Basque culture.



Hogeita bost urte zituela, Chahok argitaratu zituen 1836an bi liburu : bat Antoine d'Abbadierekin eginikako gramatika *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne* deitua eta zazpi probintzietako euskaldunei eskainia, bertzea, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, biak Pariseko Arthus Bertrand moldiztegiak.

Hogeita bat urteren buruan, 1855ean hain zuzen, publikatu zuen Baionan bi liburukitan emanak *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque* deitua zuen obra. «Voyage» lehenik «Itinéraire» gero, huna ibilaldia kondatzen duten bi liburuki, ibilaldi hori Euskal Herrian gandi egin. Nahiz bi hitz desberdin erabiltzen dituen Agosti Chahok, azkenean, sinonimotzat har daitezke, «Voyage» bidaia diolakotz eta «Itinéraire» nondik norakoa, bidaia edo ibilaldia hau ere. Azken hitzak «Itinéraire» hitzondo bat dauka «pittoresque» berezitasuna salatzen duela, edertasunari lotua, atseginez betetzen dituela begi-gogoak. Hitz batez erraiteko Euskal Herriari buruzko ikuspegia.

«Voyage» delakoaren aitzin solasean idazten du Chahok oihartzun bat dela, populu, arraza eta zibilizazio baten oihartzuna edo lekukoa : « *Je me suis fait l'écho d'un peuple, d'une race, d'une civilisation.* » Hots, Euskal Herria, euskal arraza (hitz horrek ez zuen orduan orain emaiten zaion erran nahia) eta euskal kultura eta bizitzeko manera. Horrek oroitarazten dit *Etre Basque* deritzan liburuan idazten nuela, duela orain hogeita hamar bat urte Euskal Herria aurkezten nuelarik lehen kapituluan, iker eremua zela : «Un pays, un peuple, une langue», hots, Chahok bezala, Euskal Herria, euskaldun jendea, euskara eta euskal kultura.

Halere, bi liburuek ez dute helburu bera. Lehena sartzen da Nafarroan, pasatzen ditu Pirineoak eta, beraz, Frantzia eta Espainiaren arteko muga. Bigarrena, aldiz, Iparraldean bakarrik egoiten da, Iparraldeko hiru probintziak bakarrik bisitatzen ditu, hots, kokatuz Miarritze mendiz eta itsasoz inguratutik.

## I. Euskal Herria

*Voyage...* liburua hasten da istorio ttipi batekin, euskaldun baten iritzia-rekin. Aldi bat bakarrik egona da Gaztelan ; Mirandara heltzean aurkitzen ditu eriberri izanak diren jendeak eta, Pankorbo iraganik, Burgos hiriak

iduri du hospital bat, erizainak direla apaizak. Horrekin aski ; berehala itzultzen da eta Bizkaian sartzen, jauntziak errerik Ebro ibaiaren ondoan, belduzrez izurritea heda dadien bere Euskal Herri maitean.

Hegoaldeko muga, Gaztela eta Euskal Herriaren arteko muga eraikia da Ebro ibaiarekin. Aldiz, Parisetik heldu delarik Chaho, Baionan sartzen da Euskal Herriari Aturi ibaia pasatzen duelarik. Harentzat euskaldunen herria, Euskal Herria, Espainia edo Iberia osoan hedatzen zen, Galiako zati batean ere eta geroztik zazpi probintzietara murriztu da:

« *Le pays des Euskariens, Euskal Herria, qui embrassait primitivement toute la péninsule ibérique et une partie des Gaules, se trouva désormais restreint aux sept petites provinces que les Basques occupent encore aujourd'hui dans les Pyrénées occidentales.* » (Nav. 89. or.)

Aldi bat baino gehiagotan aldarrikatzen du zer den Euskal Herriaren eremua, zazpi probintziak direla, Aturritik Ebrora :

« *Il y a sept provinces euskariennes, dont quatre les plus vastes et les plus considérables sont en Espagne : la Haute Navarre, l'Alava, le Guipuzcoa et la Biscaye.* » (Biarritz I, 148. or.)

Ez ditu Iparraldekoak aipatzen, denek Frantzian baitakite zein diren. Chahorentzat, gogoan duelarik Euskal Herria bere osotasunean, Pirineoak ez dira muga, aise urrunago hedatzen baitira, sartuz Gipuzkoan eta Bizkaian, ikusiz ere mendikate bi aldeetan hedatzen direla euskal zazpi probintziak.

Ez du ahanzten XIX. mendearen hirugarren hamarkadan sortu dela gerla eta erakusten du nor den etsaia eta zer gerizatu nahi duen euskaldunak : bere askatasuna, aspaldiko askatasuna.

« *Les Hauts Navarrais et les Cantabres sont aujourd'hui en armes, de l'autre côté des Pyrénées, pour défendre contre les Impériaux de la Castille, leur noble indépendance et l'individualité de notre race primitive et solaire, sous le commandement d'un chef librement élu, Zumala-Carregey, et sous le drapeau nominal d'un Seigneur et Roi, D. Carlos.* » (Nav. 91. or.)

Hala ikusten du Chahok euskaldunen historia eta oroitarazten du nola iragan diren mendeak eta mendeak borrokatuz Celtiberoen, Erromanoen eta Arabeen kontra beren berezitasuna zaindu nahiz :

*« ... et pendant plus de trente siècles de combats, la fédération euskarienne, retranchée dans ses montagnes, a su défendre, contre les hordes barbares, l'indépendance originelle de ses républiques, ses moeurs et ses lois patriarcales, les dialectes de sa langue primitive et la gloire de son antique nationalité. » (Nav. 90. or.)*

Argi dago euskaldunak beti bentzutu dituela etsaiak eta beldurrik gabe baliatzen dituela hitz batzu nola «indépendance» (askatasuna), «lois patriarcales» (lege zaharra), «la langue primitive» (aspaldiko hizkuntza), «la gloire de son antique nationalité» (lehengo nazioa). Frantses iraultzaren eragina agertzen da hemen, hain zuzen hedatzen ari baitzen European nazioaren ideia, sortuko direlarik XIX. mendean estatu berri batzu aberriaren gogoarekin.

Aldi bat baino gehiagotan eta ahoan bilorik gabe, iritzi berbera eskaintzen du Agosti Chahok olerkari gisa, doazkon hitz lauzetan.

*« Les euskariens sont la nation la plus antique, la seule antique de l'Europe : langue, lois, moeurs, race et nationalité, comparez tout cela, s'il vous plaît, à l'eau d'un fleuve privilégié qui toujours coule en flots limpides, toujours nouveau, toujours le même depuis sa source, qu'il faut placer au berceau de l'humanité. » (Biarritz I, 16. or.)*

Irudi ederra ibaiarena, ur berritua eta garbia deramala, noiz sortua ? sekulan agortuko ez dena, gizadiaren sehaskan dagoena.

Hor daude euskaldunen auzoak, Iparrean gaskoinak, Hegoan Ebro ibaia iraganez gero gaztelarrak. Ez ditu biziki maite Chahok. Baionara heltzean ikusten du zein nahasia den hango jendea : gaskoinak, euskaldunak, gaztelarrak eta bertze. Harentzat gaskoinak mintzo dira goraki, sakreka gehiengotan eta gaizki jauntziak dira, zinez jende arrunta :

*« Les Gascons s'y faisaient reconnaître à leur patois, à la cynique énergie de leurs jurons, et surtout à la trivialité de leur allure. » (Nav. 12. or.)*

Are gutiago maite ditu gaztelarrak, zinez etsaiak baitira, haien menpean jarri nahiz euskaldunak. Maiz aipatzen ditu «les hordes castillanes», izen horrek erakusten duela zer jende mota den, gaizkileak bereziki, lapurrak ere herri batean sartzen direlarik (Nav. 91. or., 130. or.). Argiki adierazten du zein den gaztelarren helburua, zer herra daukaten euskaldunen kontra :

« *Les Castellans, me disait le marquis de Valdespina, voudraient anéantir les titres glorieux de notre indépendance et de notre nationalité, excités par des vues despotiques et par la jalousie invétérée qu'ils nourrissent contre les Basques.* » (Nav. 377. or.)

Azkenean *Voyage...* delakoaren XI. kapituluari Chaho mintzatzen zaie gogorki gaztelarrei gogorazten duelarik nola jokatu diren euskaldunak bai Erromatarren kontra, baita ere Moroen kontra, parte handia hartuz iberiar penintsularen askatzeko, ahantzi gabe Orreagako guduka. Maisuak emaiten die erakaspen historikoa.

## II. Euskaldun jendea

Hain laudatua eta goraiatua den Euskal Herri horretan, bizi da arabera-ko jendea. Oroitarazten du Chahok nobleak direla euskaldunak, jaunak direla, ohar batean azpimarratuz zer erran nahi duen «jaun» hitzak (seigneur et maître) eta, beraz, jaun eta jabe. Hiltzera kondenatua den euskaldun bati lepoa mozten zaio noblea izanez ; aitoren seme delakotz ezpata balia dezake Gaztelako nobleak bezala (Nav. 319. or.).

Bainan, bereziki, Aitoren semeak dira euskaldunak. Aitor da Abraham bezala leinu edo arraza baten sortzailea.

« *Vous savez, comme moi, seigneur Labourdin, que les Basques tirent leur origine du patriarche ibérien Aitor, et que tout paysan de race cantabre, tout soldat illustré, tout homme libre est réputé noble parmi nous, et enfant d'Aitor, Aitoren seme ?* » (Nav. 87. or.)

Segitzen du esplikatzuz zer den Aitor euskaldun munduan :

« *Je vous dirai, maintenant que ce nom d'Aitor est allégorique ; il signifie père universel, sublime, et fut imaginé par nos ancêtres pour rappeler la noblesse originelle et la haute antiquité de la race euskarienne.* » (Nav. 88. or.)

Jadanik 1835ean idazten duelarik *Voyage en Navarre* liburua, agertzen du Aitoren mitoa, gero hamar urteren buruan emanen diola bizi osoa Ariel kasetaren bitartez.

Aitoren seme delakotz harrera ona, ongi etorri beroa egiten dio bere etxean agertzen denari, izan dadien gizon ala emazte, euskaldun ala atzerritar.

« *Le Basque exerce noblement l'hospitalité, soit comme individu, soit comme peuple.* » (Nav. 55. or.)

Chahorentzat egiazko kalitatea da, idekidura denentzat, jendea jende baita eta bihotz zabaltasuna agertzen da edozein tokitan, izan ditzen irriskuak ala ez, euskaldunak baitaki etxea dela aterbe, geriza eta berdin ihesleku:

« *Cette générosité du caractère national se retrouve dans les moeurs familiales du Basque. Il est inouï que le montagnard ait fermé sa porte au voyageur et refusé l'hospitalité convenablement demandée. Rien, dans ses idées, n'est sacré comme la personne d'un hôte : il ne se permettra jamais une indiscrete curiosité ; dès qu'il vous aura donné place au foyer patriarcal et tendu la main, en signe d'amitié, quels que soient les périls qui vous menacent ou l'inimitié qui vous poursuit, vous pouvez compter, au prix de sa fortune et de sa vie, sur la protection inviolable qu'il croit vous devoir.* » (Nav. 58. or.)

Etxeko jaunaren ondoan dago etxeko anderea, norbait, dudarik gabe, etxean eta etxaldean. Oroitarazten du idazleak emazteak eta gizonak esku-bide berdinak dituztela, etxaldearen jabe izan daitekeela emaztea eta ezkontzaz bere emaztearen etxean sartzen delarik gizonak galtzen duela abizena, hartuz emaztearena edo, hobeki erran etxaldearena, hala izan baita menderen mendetan.

« *La femme, chez les Euskariens, vit sur un pied parfait d'égalité avec l'homme, égalité consacrée par les moeurs et par la loi... Comme dame et propriétaire du manoir familial, la Basquaise faisait porter son nom d'héritière au mari qu'elle prenait.* » (Nav. 88. or.)

Eta ez baita laudorioz eskasa, Chahok segitzen du goraipatuz euskaldunak ez baitute parerik mundu guzian emazteen eskubideen zaintzeko :

« *Il n'y a pas un seul peuple sur la terre chez qui la femme soit traitée avec autant de politesse, de respect et de déférence que par les Euskariens.* » (Biarritz I, 88-89. or.)

Ohidura zaharrak ere aipatzen ditu, nola emaztea ez den jartzen senararekin bazkari eta afarietan. Egia erran, ez du zuzenki aipatzen, bainan erraiten du mahainean jartzen dela deserta edo postrea zerbizatzen duelarik:

« Pendant que le Labourdin me parlait de la sorte, avec la brusquerie la plus amicale, sa femme mit le dessert sur la table, puis s'assit à côté de son mari : tel est l'usage chez nos paysans. » (Nav. 66. or.)

Zein polliki errana den eta zein goxoki adierazia ez duela emazteak jaten senarrarekin, bakarrik agertzen dela goxokien garaian. Segidan etxeko jaunak emaztearen laudorioak egiten ditu azpimarratuz dituen kalitateak.

« Seigneur souletin, vous voyez cette bonne femme ; elle parle, quand elle veut, mieux qu'un livre, chante comme un séraphin et fut, dans son temps l'une des plus jolies filles de tout le Labourd. » (Nav. 66. or.)

Zinez, XIX. mendeko topikoa da eta oroit gaiten mende laurden bat iragan-eta Elizanburuk goraiatzan zuela etxeko anderea «Ikusten duzu goizean» deritzan kantuan, 1862koa.

*Ene andrea Maria  
Ez da andre bat handia  
Bainan emazte garbia;  
Irri batentzat badut etxean  
Nik behar dudan guzia:  
Galdegiten dut grazia,  
Dudan bezala hasia,  
Akabatzeko bizia.*

Nola ez «Maria», hau ere Elizanbururen kantua, Maria delarik euskalduntsaren eredia, erlea etxe barnean, baratzeko loreen artean lorerik ederrera, etxeko mozkinen saltzaile eta, dudarik gabe giristino kartsua.

*Igandetan Maria  
Zinez panpina  
Zapata xabalekin soin motx urdina,  
Berak egina,  
Elizako bidean arin arina;  
Mila sorgina!  
Errege balin banintz zer erregina!*

Nola ama, hala alaba. Euskaldun neskek badute beren fama : edertasunez, graziaz beteak ez bertzeak bezalakoak. Baionan sartzen delarik ikusten

du lapurtar neska bat, bi hitzez marraztua : gerri liraina, aurpegi pollita, beltxarana iguzkiari esker.

Aipatzekoa da ere nola jaunzten den neska segituz ohidura zaharra: beltzez gehienetan, emazte ezkonduak zuria dutela maite, mokanes xuria daukatela buruan. Neskak, aldiz, joan daitezke buru has denen aurrean, biloa bilduz buru gainean txinatarsak bezala eta zetazko gerrikoa punta gorriekin, hori baita birjintasunaren seinalea. Ezkont-aitzin haurdun izan diren neskek daukate mokanes xuria buruan, emazte ezkonduak bezala, bainan xingola beltz eta perdez apaindurik.

Jadanik aipatu dudana bezala, neska etxalde batetako andregaia izan daiteke aitamek hala nahi balinbadute eta, orduan etxeko jabea izanez, egiazko etxeko anderea da emanez senarrari etxearen abizena.

Denek badakite giristinoak direla euskaldunak. Hori bera aitortzen du Chahok, bainan ez du sekulan enplegatzen lelo famatua «euskaldun fededun», alde batetik ez baitzen bera sinesduna eta bertzetik delako leloa sortu izan daitekeelakotz XIX. mendearen azken laurdenean.

### Mitoak

Euskaldunen artean badira bertze sineste batzu aspaldian sortuak, nahiz Aitoren kasuan Agosti Chaho izan mitoaren sortzailea. Badira mito zahar batzu oso ezagunak hala nola «Basa Jauna». Hitzak salatzen duen bezala baso edo oihan handietan bizi da, han manatzen du. Handia da Basa jauna, indar ikaragarriak ditu, badabila gizona bezala bere makilarekin. *Biarritz...* deritzan lehen liburukian kapitulu oso bat dauka Basa jaunak. Berriz aipatzen ditu *Voyage...* delakoan idatziak, bainan hemen aitaxi xaharrak, haurrez inguratua supazter xokoan, kondatzen die nola egun batez gertatu zen aurrez aurre Basa jaunarekin orangutan idurikoa. Haurrak harriturik eta pixka bat beldurturik segiten dute aitaxiren ixtorio luzea. Hala doa mitoa belaualdiz belaualdi.

«Heren sugea» da bigarren mitoa euskaldunen sinestetan sartzen dena. Zazpi mutur dauzka Heren sugeak, sua jalgitzen delarik zazpi mutur horie-

tarik. Horrekin euskaldunek adierazten dute lur barrenean dagoen sua. Zuberorok bada ere ibar eskuineko sugea eta Lapurdin bertze ikaragarriko sugea Beltzuntze gazteluko seme gazteak hil zuena Baionatik ez hain urrun, bera ere itotzen zela Errobi ibaian. Suge horrek bazituen hiru mutur.

Azkenik «Leheren» (Lehen eta Heren) hau ere sugea ; Jainkoaren laguntzailea, mendien eraikitzailea da bereziki, lur barreneko indarren jabe dena.

### III. Euskara eta euskal kultura

Bere Euskal Herriari buruz, halaber han bizi den jendearen alde, Chahozuberorok ez da batere eskasa bere laudorioetan. Harentzat ez da dudarik hain zaharra den herriak, hain zaharra den arrazak sortu duela hizkuntza berezi bat iraunkorra eta kalitatez hornitua.

Euskara da Chahorentzat egiazko ondarea eta hartaz mintzo da bere baitan duen kar guziarekin, beti su eta gar. Kasik mito bezala hartzen du eta hitz ederrez apaintzen.

« ... et que les patriarches, en formant leur république solaire, improvisèrent avec l'inspiration de Dieu, notre langue Eskuara dont chaque son est harmonie, chaque mot vérité. » (Nav. 88. or.)

Jainkoa da egiazko iturria, hari esker, haren laguntzarekin lehengo jendea izan da hizkuntzaren sortzailea, azalez kantu iduria, barrenez egia dakarrena.

Euskararen goraiatzeko hautatzen ditu hitz eta hitzondo ederrenak hala nola pasarte honetan :

« Il est incroyable combien la langue euskarienne, avec ses racines harmoniques, avec ses mots composés, admirables par la richesse de leurs images et par la transparence de leur idéalité, favorise le développement de l'esprit. » (Nav. 126. or.)

Urrunago, kar berarekin, azpimarratuko du hizkuntzaren iraunkortasuna :

« Le Basque, depuis son établissement dans les Pyrénées, n'a rien conservé d'invariable que la divine langue et la liberté originelle de ses ancêtres. » (Nav. 269. or.)



«Harmoniques», «admirables», «idéauté», «vérité», «divine», hitz eta hizondoan zerrendak salatzen du nola jokutzen den Chaho bere hizkuntzaren goraiatzeko. Hiztegi ederrena baliatzen du hortarako, erakutsiz, denbora berean, hizkuntza eta askatasuna elgarrekin doatzila.

*Biarritz...* bigarren liburukia hasten da euskarari buruz egina den kapitulu osoarekin. Ez naiz sartuko aurkezten dituen etimologietan esku-ara eta bertze, hala nola hiz-cu-ntz'-a edo gu-iz-on-a. Horiek dira idurimenaren asmakeriak, hala nola haren teoria euskara eta sanskritoaren arteko ahaidetasuna. Egia da XVIII. mendean izan ziren eztabaidak gogoan dituela Chahok eta berak ere bere iritzia eman nahi duela. Bat gehiago beraz !

Halere, badaki zein diren euskararen mugak ez baita aldatu bertze guziak aldatu diren bezala, mundua aldatzen den neurrian.

*« Le vocabulaire est pauvre, il faut le dire, de tous les mots que les arts et les sciences des civilisations modernes ont créés par milliers... et dont on ne découvre pas trace dans le vocabulaire euskarien. »* (Biarritz II, 19. or.)

Hala balin bada hiztegiarentzat ez da berdin gramatikarentzat. Gutitan irakur daiteke holako goresmenik.

*« La grammaire euskarienne se distingue entre toutes par une admirable simplicité et par une régularité invariable, qui n'admet aucune exception à ses règles : on peut dire et on le prouvera ailleurs, qu'elle réalise l'idéal de la perfection philosophique, rêvé dans cinquante académies par les philologues et les grammairiens anciens et modernes. »* (Biarritz II, 20. or.)

Irriño batekin erran nezake : « *Ite missa est.* »

Literaturak duen eragina herri batean nehork ez dezake uka. Halere Chahok aitortzen du euskal literaturarik ez dagoela. Harritzekoa !

*« Les Basques n'ont point de littérature nationale ; les écrivains de nos provinces se sont presque tous servis des langues latine, castillane et française. »* (Nav. 330. or.)

Hala ere, de Jouy *L'ermite en province* (1817) liburuaren egilea segituz eta kontra jarriz aipatzen ditu Quintilien, Prudence, Roderic-Simon, Navarre, Garibay, Moret, Arabako Eskibel, Larrea eta Larramendi erakusteko ez direla

osoki ez jakinak. Eta, bide nabar, segitzen du: Huarte de San Juan (*Examen de ingenios*), Iriarte bizkaitarra eta alegia egilea, Alonso de Ercilla (*La Araucana*) diolarik azken huni deitzen zitzaiola «Homero español» (Biarritz I, 24-25. or.).

*Biarritz...* bigarren liburukian doalarik Zuberotik Miarritzera ez ditu ahanzten Maulen Sponde eta, dudarik gabe, Oihenart, hau euskaraz idatzi duena bere *Oihenarten gaztaroa*-ri buruz emanez bere iritzia :

« *On n'y trouve point le tour facile, la simplicité et le grand naturel des bardes incultes de la montagne ; on y reconnaît la versification étudiée d'un homme de lettres qui a déjà écrit en français et en latin et qui se forme à l'école des rimeurs du dix-septième siècle.* » (Biarritz I, 140. or.)

Ez ditu ahanzten Huarte Donibane Garazin, Ahazparden d'Iharce de Biddassouet apezka, hartaz luzaz mintzatuz, Lapurdin Goyhetche alegia egilea, Saran Axular *Geroko gero* liburuaren idazlea, Azkainen Aita Clément eta bereziki Juan Martin Hiribarren Barozeko erretora. Nola erran dezake aipatzen dituelarik Oihenart, Axular, Goyhetche eta Hiribarren ez dutela euskarak eta euskaldunek sortu araberako literaturarik ? Gehiago dena, ez du deus erraiten XVI. mendeko Etxeparez. Alta 1847an berragertu zen haren *Linguae Vasconum Primitiae*, frantses itzulpenarekin.

### Bertsulariak

Egia erran, maiteago ditu «les bardes incultes» delakoen kantauak eta, beraz, ahozko literatura, hau baita euskaldun zintzoen emaitza. Kapitulu oso bat eskainia zaie gogorazten dituela « *ces bardes inconnus dont personne ne sait aujourd'hui les noms et dont les compositions n'ont été conservées que dans la mémoire du peuple.* » (Biarritz II, 155. or.).

Bertsularien ereduak da gipuzkoar kantari gaztea, Parisen ezagutu zuena eta gitarrarekin lagundurik kantatu zuena :

*Guitarra zartxo bat det  
Neretzat laguna ;  
Horrela ibiltzen da  
Artist euskalduna.*

*Egun batean pobre,  
Bertzietan jauna,  
Kantatzen pasatzen det  
Nik beti eguna.*

Nahiz ez duen izenik emaiten, badakigu nor den eta zer fama bildu zuen Europa guzian. Ez bide zakien nola desafiatu zuen Xenpelar bertsulariak :

*Eskola ona eta musika  
Bertsolariya gañera  
Gu ere zerbait izango gera  
Orla ornitzen bagera.  
Atoz gure kalera  
Baserritar legera  
Musika oyek utzi-ta  
Errenterian bizi naiz eta  
Egin zaidazu bisita.*

Non dago egiazko bertsolaria ? Iparragirre ala Xenpelar. Normalki Chahorentzat Xenpelar izan behar zuen, baserritar legea atxikitzen zuelakotz. Aldiz, Iparragirre zen bertsolari erromantikoa eta hori gustatu zitzaion Chahori.

Hain zuzen, Chahok aipatzen du bereziki zuberotar bertsolaria Beñat Mardo barkoxtarra, fama handiko gizona. Hunentzat dio : « *Vingt volumes ne contiendraient pas ses oeuvres.* » Hogei liburu, ez da guti eta behar bada egia izan daiteke, non nahi eta noiz nahi ari baitzen bertsula bertze guziek bezala. Chahok goraiatzen du Barkoxe, bertsolarien herria, idatziz :

*« Profitons de cette occasion pour dire au public que les paysans de Barcus, à notre avis, sont les plus spirituels de la province souletine. »*  
(Biarritz II, 161. or.)

Nik ere baliatzen dut parada erraiteko Chahok ahantzi duela bertze bar-koxtar bertsularia Etxahun-Barkoxe. Nolaz ez du aipatzen oso ezaguna zelarik eta berak bazakielarik zabaldu zuela kantu bat aurkezten zelarik diputatu bozetara. «Musde Chaho» kantuak goresten du Chaho bertutez eta kalitatez betea, «maleruseren ezitia, jente xehiaren althe» dena. Orrialde batetan agertu zen kantua. Nork ordaindua ? Behar bada Chahok berak.

Bertzalde, 1842an, Chahoren anai batek (Jean-Baptiste) idatzi zuen Etxahun-Barkoxeren bizitza frantsesez eta bertze anai batek (Jean-Pierre) euskarara itzuli, esku idazkian agertzen dela Etxahunen kantu bat «Mündian malerusik» tituluduna. Ez dut uste ez zuela ezagutzen kantu hori. Zertako beraz ez du aipatu ?

### Kantuak

Chahok maite dituen kantuak kantu zaharrak dira egilearen izen deiturak ezagutuak ez direnak. Hain zuzen, garai horretan, erran nahi baita 1830 hamarkadan, Ossian alegiazko olerkariaren eraginak pizten du Frantzian kantu zaharren biltzea, Iparraldean ere. Chahok bildu zituen euskaldun kantak eta frango harro aldarrikatzen du kantu bilduma hoberena daukala. Monzon jaunaren eskuetan zen eta orain Bergaran sortu duten Fundazioan. Euskaltzaindiak badauka kopia bat.

Eskuetan ukan dut Chahoren kantu bilduma pentsatuz bildu zituela Etxahun-Barkoxeren zenbait kantu. Ez bat ere. Alta, mereziko zuen jakinik elgar ezagutzen zutela. Etxahunen bizitza eta justiziarekin ukan zituen «harremanak» ote dira kausa ?

Kantuak direla-eta, Chahok emaiten du jastatzera nolakoak diren, gerla eta jeneralak aipatzen, jendea jorratzen dituztenak, bainan gehiago gustatzen zizkionak dira amodiozko kantuak. Idazle ona izanki eta berdin ikerle ona, berehala erakusten du nola deitua den neska amodiozko kantuetan. Egia erran, segitu dut Chaho eta pentsatzen dut Peillenek ere, komentatu ditudalarik maitearen izenak : «izar» urrun den maitea ezin hurbildua ; «lore» eskuetan har daitekeena kasu emanez halere arantzik baduen ala ez ; «uso» saretan hatzeman daitekeena eta azkenik «urtxapala» hegal petik luma galdurik eta haurdun edo «oküpü» Zuberoan erraiten den bezala ezkont gabea delarik. Chahorentzat kantu horiek gizon xumeek sortuak dituzte, izan diten laborari, ofiziale edo artzain. Pentsatzen du artzainak baduela astia kantu baten hontzeko, bakarrik delarik, ardiak zainduz, mendiez inguraturik.

Hizkuntzarekin lotuak diren ohidura zaharrak ezagutzen dira bereziki Zuberoan eta aipatzen ditu, berak ezagutu baititu haurtzaroan, Atharratzen edo bertze zuberotar herrixka batean. Horiek dira maskaradak eta pastoralak.

### Maskarada

Maskarada sei kapitulutan erakutsia da eta irakurleak badu hor zer ikas, hain xeheki esplikatua baita. Iduri luke maiteago duela maskarada pastora-la baino. Behar bada josteta delakotz, bai jokolarientzat eta bai ikusliarrentzat, behar bada ere dantzariak erakusten dutelakotz trebe direla, arinki jokutzen direla, erakutsiz ere mundua, gizartea osoki zatikatua gorri eta beltzen artean jende zintzo eta agurgarriak alde batetik, izan diton «jauna eta andrea», «laboria eta laborarisa», eta bertzetik «buhameak», Buhame jauna dela haien nagusia. Oroitu behar da ere Chahoren garaian ihauterian bakarrik bazabiltzala maskarada herriz herri eta Garizumarekin bukatzen zela jostatzeko eta handi-mandien jorrazteko garaia. Uste dut lekukotasun ederra dela Chahok emaiten duena eta lekukotasun hori kontutan behar dela hartu maskaradaren historian.

### Pastorala

Pastorala hiru kapitulutan erakutsia da. Oroitarazten ditu orduko pastoralen tituluak, izan diton Testamendu zaharrekoak edo saildunen bizitzak eta bertze..., kondatzen du pastoralaren hautatzeko egiten den biltzarra gizonen artean, izan diton zahar ala gazte eta, bide nabar, ikasten dugu J.P. Saffores atharraztarra dela pastoral idazlerik hoberena, Agie atharraztarra hura ere, Goyheneix Altxaiko eta Laxague Lexantzükoaren heinekoa. Pastorala hautatu bezain laster badoazi errejentaren ikustera eta hasten dira entseguak. Jakina da eta Chahok azpimarratzen du pastoraletan ez direla neskak agertzen eta emazteena gizonak egiten dutela. Bainan kapitulu batean «Les Souletines» deitua erakusten du nola neskak ere sartzen diren jokolari gisa pastoraletan. Orduan neskak bakarrik jokutzen dute eta gizonarik ez da haizu nesken artean. Uste dut lekukotasun horrek bere balioa

daukala eta sartzen dela pastoralaren historian. Bainan ez da aise onartzea pastoralaren sortzeaz duen iritzia bukatzen duelarik 44. kapitulua erranez :

« *Voilà de quelle façon l'art dramatique est cultivé dans le petit pays de Soule depuis près de deux mille ans.* » (Biarritz II, 131. or.)

Aise sartzen da gehiegikerietan gure zuberotarra, haren ustez pastoralaren ideia hartu zutela zuberotarrek Erroman (?) greziar eta latindar «tragediari».

### Kirolak

Horiek hola, kirolak baliatuak ziren Euskal Herrian. Zuberoko mendietan artzainek bazituzten zein gehiagokak, oraino dirautenak hala nola abuztuan Ahükkiko mendietan lasterkadak, jauziak, dantzak, palanka eta bertze... Huna nola aipatzen dituen :

« *Les bergers qui ne vont point à la chasse, et c'est le plus grand nombre, se livrent à tous les jeux et à tous les exercices gymnastiques que l'on connaisse, le pugilat excepté : la danse, la course, la lutte, le saut sans bâton, avec bâton, la barre. Ce dernier jeu consiste à lancer d'un bras et d'une certaine façon, de pied ferme, ou en pirouettant jusqu'à la limite, d'énormes barres de fer.* » (Biarritz II, 162. or.)

azken joko hau palanka delarik.

Pilotak ere badu bere tokia, joko horretan famatuak baitira euskaldunak. Joko zaharrenak direlarik «bota lüzia» eta «arrabotia». Uzten dut mintzatzea Chaho :

« *Le jeu de paume a eu ses héros chez les Basques et des parties non moins célèbres parmi les montagnards, que le combat des trois Horaces et des trois Curiaces dans l'ancienne Rome. Le Navarrais Assans et le Labourdin Perkein furent les deux grandes célébrités du dernier siècle ; ils eurent pour rivaux de gloire les Sorrende, les Duraty, les Silence et le fameux Cruchatty.* » (Biarritz II, 2652. or.)

Ez naiz segur segitzen zuela pilota gure Chahok tronpatzen baita aipatzen dituelarik Assans eta Perkein. Assans ez zen nafarra, lapurtarra baizik eta

Perkain aldudarra eta ez lapurtarra. Ez dakit batere zein diren bertze pilotariak nehork ez baititu ezagutzen.

Maiz izendatzen baitu de Jouy jauna, bidaia bat eginik Euskal Herrian 1817an, jaun horrek idatzi zuen liburu bat *L'hermite en province* deitua, lehenbiziko liburukiak emaiten zituela idazlearen iritziak Euskal Herriari buruz. Beldur naiz koptatu duela de Jouy, hauxe idazten zuelarik hain zuzen :

« *La paume a ses héros et les Sorrende, les Duraty, les Silence, les Parquins* (Perkainen orde) *et quelques autres ont attaché à leur nom à une célébrité dans la tradition, à défaut de l'histoire, leur garantit la durée.* »

Segitzen du aipatuz Aldudeko partida famatua Iraultza denboran Perkain, Crutchatty baten kontra «un de ses rivaux de gloire». Huna beraz, ortografia zainduz nola Chahok emaiten duen iritzia pilotari buruz.

\* \* \*

Chahok idatzi dituen bi liburuek *Voyage en Navarre* 1836an agertua eta *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan* 1855ean inprimatua erakusten digute zer itxura zuen Euskal Herriak XIX. mendearen lehen partean. Bainan ez dira berdinak. Lehena, lehen karlistadari buruz idatzia da. Chahorentzat karlistak dira egiazko euskaldunak eta beraz haien aldekoa agertzen da. Aldi bat baino gehiagotan «nation», «national», «indépendance» hitzak agertzen dira Chahoren luma pean. Argi dago Gaztela Euskal Herriaren etsaia dela, menpean atxiki nahi dituelakotz euskaldunak. Nahiz ez zen oraindik «aberrri» hitza sortua, abertzale gisa agertzen da Chaho, erakutsiz bere atxikimendua herriari, jendeari eta euskarari. Ez dugu ahantzi behar orduko ezkertiarra dela Chaho bainan haren bihotza mintzo da eta nahi du Europari, munduari erakutsi zer den Euskal Herria bere lekukotasuna emanez : aspaldikoa dela euskaldunen arraza, aspaldikoa ere daukan hizkuntza eta Aita-ren etxea edo, hobeki erran, Aitoren etxea behar dela zaindu.

Bukatzen du liburua goraiatuz Zumalakarregi, orduko gizagaitza, kon-datuz elgarretaratu zirela. Azken kapitulu hori deitzen da «L'homme à grande épée», Ezpata handiko gizona. Gaua da, ilargiak dirdiratzen du zeruan, zinez gau erromantikoa da. Chahok hartuko duen izen goitia da «l'Indépendant» eta huna nola agertzen zaion Zumalakarregi :

« *L'Indépendant, c'est ainsi que nous l'appellerons désormais, fut dirigé dans sa course par l'apparition qui frappa ses regards ; un homme enveloppé d'un manteau noir venait d'atteindre la cime d'une hauteur voisine et se tenait debout avec l'immobilité d'une statue sur son piédestal ; le rayonnement de la lune exagérait sa taille et donnait à sa pose quelque chose d'aérien ; l'on percevait la pointe de sa grande épée qui dépassait la longueur de son manteau.* » (Nav. 431. or .)

Elkarrizketa guzian zoraturik dago l'Indépendant holako gizagaitz baten aitzinean, iragan duen gau berezi hori ez da sekulan bere oroimenetik joanen. Hala dio :

« *Je n'oublierai de ma vie la nuit de Lecumberry : des souvenirs qui ne s'effacent point ont profondément gravé dans mon esprit les détails de cette entrevue mystérieuse ; car l'Indépendant c'était moi ; l'Homme à grande épée ZUMALA-CARREGUY.* » (Nav. 455-456. or .)

Bertzerik da *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque*. Hemen ez dira aipatzen zazpi probintziak. Iparralde nahi du erakutsi Chahok. Ibilaldia da Zuberotik Lapurdira bururatzen delarik Miarritzen. Bidenabar, doatzi Iparraldeko bazterrak, euskaldunak beren lanetan, euskara dudarik gabe eta euskal kultura bere ahozko literaturarekin, bertsolariak, kantu egileak, Zuberoko maskaradak eta pastoralak, kirolak, herriz herri joanez jaun handiak gogoratu.

Goraipatzen du Miarritze bere mainuekin eta arrantzaleekin. «L'océan» deitzen den azken kapituluan itsasoaren zabaltasuna erakusten du, itsasoan bizi diren arrainak, haien artean balea hain famatua. Alegia gisa amesten du arrainen biltzar nagusia, balea senar-emazteak direla buru. Biltzar demokratikoa, bakoitza mintza daitekela kotz. Tropaka heldu dira berantiar batzu azkenean agertzen direlarik. Biltzarra bukatzean baleak proposatzen du Gaskoinako Golkoari buruz joatea. Bainan han dago euskaldun arrantzalea eta arpoiari esker gudukatzen da. Balea bentzutua da, Itsasoaren egiazko nagusia da euskaldun arrantzalea, orduz gero baleak ihes egin baitu. Zumalakarregi bezala euskaldun arrantzalea da Euskal Herriko gizagaitza.

Plazaratuz Euskal Herria bere berezitasunarekin, euskaldun jendea aspaldiko ohidura, sineste eta hizkuntzarekin, gure Herriak hartzen duen itxura erromantikoa sartzan da XIX. mendean sortuko den euskal abertzale ideologiaren su-hazi xume gisa.



**Agosti Chahoren obraz eta bere eraginaz**  
**Sobre la obra y posterior influencia de Agosti Chaho**  
**L'œuvre d'Agosti Chaho et son influence**  
**About Agosti Chaho's work and influence**

URKIZU, Patri  
Euskaltzain urgazlea. UNED

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

*Euskera*. 2011, 56, 3. 737-788. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Agosti Chaho (Atharratze 1811-Baiona 1858) euskal erromantiko lehenetarikoa dugu. Parisen Legeak ikasi zituen eta Charles Nodierren eskolaketat zeukan bere burua. Bere adimen sutsu eta luma zorrotzaren frogak eman zituen lehenik *La France Littéraire*-n (1834) artikulugile gisa eta gero liburutan: *Azti-begia* (1834), *Paroles d'un voyant* (1834), *Philosophie des révélations* (1835), – azken biok Indexean ezarri zituenak Vaticanok –, *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit* (1836), *Lélo* (1851), *Safer ou les houris espagnoles* (1854) eta beste. Baionan ARIEL aldizkaria (1844-1852) zuzendu zuen bere ideiangatik erbesteratua izan zen arte. Arrakasta handiko obrak izan ziren *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835), eta Aitor, *Légende Cantabre*, gaztelaniaz eta euskaraz itzuli izan dena eta Aitor patronimiko zabaldua sortu duena.

**Hitz gakoak:** Agosti Chaho, Erromantizismoa, Aitor, Euskal kantak.

Agosti Chaho (Atharratze 1811-Baiona 1858) es uno de los primeros románticos vascos. Estudió Leyes en París y se consideraba a sí mismo como perteneciente a la escuela de Charles Nodier. Dio muestras de su fina inteligencia y su perspicaz pluma; primero, como articulista en *La France Littéraire* (1834); y posteriormente en sus libros: *Azti-begia* (1834), *Paroles d'un voyant* (1834), *Philosophie des révélations* (1835) –el Vaticano puso los dos últimos en el Índice–, *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit*, *Lélo* (1851), *Safer ou les houris espagnoles* (1854), etc. En Baiona dirigió la revista ARIEL (1844-1852) hasta que debido a sus ideas tuvo que exiliarse. Fueron obras de gran éxito *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835), y Aitor, *Légende Cantabre*, traducida al euskera y al castellano y que dio origen al extensamente difundido patronómico Aitor.

**Palabras clave:** Agosti Chaho, Romanticismo, Aitor, Canciones vascas.

Agosti Chaho (Tardets 1811 - Bayonne 1858) est l'un des premiers romantiques basques. Il étudia le Droit à Paris et il se considérait lui-même comme appartenant à l'école de Charles Nodier. Il fit montre de son intelligence fine et de sa plume acérée, d'abord comme chroniqueur dans *La France Littéraire* (1834) ; et plus tard dans ses livres : *Azti-begia* (1834), *Paroles d'un voyant* (1834), *Philosophie des révélations* (1835) –le Vatican mit ces deux derniers à l'Index–, *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit* (1836), *Lélo* (1851), *Safer ou les houris espagnoles* (1854), etc. À Bayonne il dirigea la revue ARIEL (1844-1852) jusqu'à ce qu'il soit obligé de s'exiler à cause de ses idées. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835) et Aitor *Légende Cantabre* connurent un grand succès. Ce dernier ouvrage traduit en basque et en espagnol, fut à l'origine du prénom très courant Aitor.

**Mots-clés :** Agosti Chaho, Romantisme, Aitor, Chansons basques.

Agosti Chaho (Atharratze-Tardets 1811-Bayonne 1858) is one of the first Basque Romantics. He studied law in Paris and regarded himself as a member of the Charles Nodier school. He provided proof of his high intelligence and sharp pen first as a contributor to *La France Littéraire* (1834) and later in the books: *Azti-begia* (1834), *Paroles d'un voyant* (1834), *Philosophie des révélations* (1835) –the latter two were added to the Vatican Index–, *Lettre à M. Xavier Raymond sur les analogies qui existent entre la langue basque et le sanscrit* (1836), *Léolo* (1851), *Safer ou les houris espagnoles* (1854), and others. In Bayonne he was the editor of the *ARIEL* magazine (1844-1852) until he had to go into exile because of his views. Highly successful works were *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835), and *Aitor, Légende Cantabre*, which has been translated into Spanish and Basque and which led to the origin of the popular patronymic **Aitor**.



**EZ** dirudi Parisen giro oso liluragarria, ez erakargarria edireiten zuenik Agostik 1840ko hamarkadaren hasieran, adixkide oso onak bertan eginak izan arren<sup>1</sup>, zeren laister ikusiko dugun Argien Hiria abandonaturik urte mordoxkarako Euskal Herriranzko bidea hartzen. Antza denez, irabaziak zituen bere idatzi sutsuen bitartez etsairik frango, baina ez zion horrek atzeratuko, aitzitik uste dugu bere helburua, egitekoa, aztiaren misioa hobeto gauzatu eta gorpuztu zedin Euskal Herriratuko zela.

Horrela bada 1843. urteko udan irakasle bezala ikusiko dugu Zuberoan, Xohütako gazteluan jaio zen Hortense Carricabururi frantses klaseak emanetz<sup>2</sup>. Garai horretakoa behar du izan, noski, Jose Antonio Donostiak aipatzen digun *Règles de prononciation et de prosodie française* delako laurogeita lau orrialdeko eskuzkiribua.

<sup>1</sup> Ikus besteak beste, aurreko garaiaz: Patri Urkizu, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*. Euskaltzaindia-BBK, 1992; *Azti-Begia eta beste izkribu zenbait*. Klasikoak 64, Elkar 1992; *Agosti Chahoren Kantutegia*. Susa, Zarautz 2006; « Agosti Chaho erromantikoa Parisen (1830-1842) », *Hegats* 48, Donostia 2011, 33-94.

<sup>2</sup> Jose Antonio Donostia, «Souvenir des Pyrénées. Recuerdo de los Pirineos. 12 canciones escogidas y anotadas por Mme de la Villéhelio», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Donostia 1954, 309-337.

Carricaburu andereñoa, Félix-Elisabeth-Paul le Saulnier de la Villéhélio-rekin ezkondu zen urte hortan bertan. Musikazale amorratua, euskal kantak biltzen saiatu zen eta antza denez, Xohütako gaztelura erakartzen zituen soroetan entzuten zituen kantariak, eta hantxe, pianora eseririk koplariak abesten zituen zekitzan aide eta melodia zaharrak, berak kopiazen zituen bitartean. Honela bada utzi zigun bilduma lehenetarikoa dugularik, Mme Villéhélio XIX. mendeko lehen folkore biltzaileen zerrendan ezar dezakegu Juan Ignazio Iztuetaren ondoren.

Atharratze utzi eta Baionako bidea hartzen du hemen kokatuko delarik hurrengo zortzi urteetan (1844-1852). Badirudi Lespès inprimitzailearen familiar oso onartua izan zela, eta Lespès-ek berak gonbidatu zuela *Trilby*<sup>3</sup> literatur aldizkarian parte hartzera. Vinsonen<sup>4</sup> hitzetan Lespès moldiztegi-gilea izan zen XIX. mendean zehar izpiritu liberal eta askearen babesa, atar-bea, sustengua eta esperantza.

Jakina denez, *Trilby* Charles Nodier-en *Trilby ou le Lutin d'Argail* (1822) eleberraren pertsonai nagusiaren izena da, egileak ipui eskozesetarik jasoa. Deabrutxo berezi bat da, bihurriago gaiztoa baino, eta bihurria baino areago bitxia, maiz ezti eta zerbitzari delarik, mutil koxkor eskolagabe baten akats eta birtute guztiak dituena.

### Chahoren kantutegia (1844)

Chahok artikulua bakarria idatzi zuen *Trilby*-n (ezagutzen dugunez), eta hau Euskal Kanten aurkezpen bat izan zen. Laburbilduz honakoa zioen.

Europako herri bakarra garela bertsoaritza, bapatekotasun herritarra mantentzen, herri ttipia izan arren talde jakintsu garrantzitsu baten jabe ere izan garela, eta artzai-laborariak ere badakitela noizpehinka erraztasun handiz bertso grazios eta kaustikoak osatzen, zioen. Hauetan historia osoa, bi-

<sup>3</sup> *Trilby, journal non politique*, Bayonne 28 juillet 1844, n° 1.

<sup>4</sup> Jules Vinson, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. J. Maisonneuve, Paris, 1891, T. 1, xxxvii.

zitza osoa, egoera politikoa eta intimoa, jokoak eta gudak tratatzen direla, eta horregatik gal daitezen baino lehen hasi dela erreskate lanean. Doinuak ere emango, ezarriko dituela, piano eta kitarrarako talentu berezia duten konpositore zenbaiten laguntzarekin.

Tamalez, *prospectus* deituriko hau ez zuen bete ahal izan osorik.

Agosti Chaho, erromantizismoaren lekuko eta gurean aitzindari aparta izan zen, XIX. mendearen erdi aldean prestatzen hasi zen garai hartan ederrera eta oparoena izan zitekeen kantu bilduma, euskal kantak pairatzen ari ziren galera eta hondamenditik salbatzearen.

Leku berezia eman zien egile ezagunen (Jean Diharce «Pudes», Erle Gallarragakoa, Jean Martin Hiribarren, Hohi Xohütakoa, Jose Maria Iparragirre, Agustin Iturriaga, Juan Ignazio Iztueta, Jean Baptiste Larralde «Bordaxuri», Jean Robin, Pierre Topet Etxahun...) poemei eta kantei, hala nola ahoz-ahoz zebiltzanei eta herria sortzaile zutenei.

Badirudi beti eztabaidatsu diren ortografi arazoak izan zirela, tamalez, euskal kantu bilduma honen moldiztegitratzea oztopatu zutenak, 1845ean Chahok kantutegiko bigarren kanta plazaratzearekin batera ARIEL literatur aldizkarian honakoa adierazi baitzigun:

*La seule question de l'orthographe, si importante pour la popularité et le succès de toute ouvrage, nous fait retarder la mise sous presse de L'Histoire des basques, des Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques, et d'un Dictionnaire Vasco-Cantabre universel, que la philologie réclame depuis long-temps et dont nous ferons bientôt hommage à la science européenne*<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> ARIEL, 1845-II-16, 3.

*Lehen Floria.*

*Eigerra zua maitia  
Erraiten derazur eghia,  
Ezirik eraman othe deizun  
Tra la la la la la la, la --  
Zure lehen floria*

*Eskuzkribuaren detaile bat*

Bildumako hamar kantu besterik ez zituen argitaratu ahal izan berak zuzendutako *ARIEL* aldizkarian, eta aipatu hiztegitik *Abade-tik Manteliña*-rainoko Maileguen Hiztegia soilik<sup>6</sup>. Gazte hiltzearen ondorioak, agian, Chahoren heriotza 1858an gertatu baitzen eta orduz geroztik ia mende eta erdi iragan behar izan du kantutegiaren eskuizkribuek plazara bidea ediren dezaten.

Eskuizkribu hauek oso sos guti batzuen truke salmenta publiko batean Baionan erosi ahal izan zituen Julien Vinson hizkuntzalariak, hitzon araberak:

*Une précieuse source de renseignements m'a été fournie par un lot de papiers, dont je me suis rendu acquéreur à Bayonne, dans une vente publique, pour un prix minime; j'y ai trouvé beaucoup de chansons basques et beaucoup de musique: la plupart de ces papiers venaient de mon ami regretté Alexandre Dihinx, les autres avaient appartenu au brillant mais dangereux, écrivain basque Augustin Chaho<sup>7</sup>.*

<sup>6</sup> Patri Urkizu, « Agosti Chahoren Hiztegia », *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*,... ed. J.A. Lakarra. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 349-363.

<sup>7</sup> Julien Vinson, « Avant-propos », *Le Folk-lore du Pays Basque*. Les Littératures populaires de toutes les nations. G.P. Maisonneuve & Larosse, Paris 1883, T. XV, xv.

Bitxia da ohartzea nola, Vinsonek 1883an hitzok argitaratu zituelarik, zortzi urte geroago, 1891n hain zuzen, ageri den Parisen plazaratu katalogo batean Chahok eta bere adiskide Antoine Serpeillek moldatutako *Poèmes et chants populaires basques*<sup>8</sup> izena daraman eta topatu ez dugun liburu edo eskuizkribua, zeina izan zitekeen beste kantu bilduma bat edo Vinsonek erakusketarako utzitako huraxe bera.

Urte batzuk geroxeago, 1898an Vinson berak Charles Bordes musikologoak argitaratu berri zuen lan bat komentatzean diosku, hura baino lehenago ere pertsona asko saiatu zela kantik biltzen. Bere bibliografia saioaren bigarren liburukian aipatu kantuez ari zelarik honelaxe zioen:

*Mais avant M. Bordes, beaucoup de personnes avaient recueilli dans le pays basque de la musique et des chansons. Je crois avoir, en originaux ou en copies, presque tout ce qui a été noté de 1850 à 1880 environ; et quant aux chansons, j'en possède plusieurs collections manuscrites fort intéressantes, notamment une qui avait été formée par A. Chaho. Cet ardent écrivain annonçait dans le Trilby, de Bayonne, le 11 août 1844, la publication prochaine d'un recueil de Chants basques: Romances, Mélodies, Chants de genre, Chansons de table, Récitatifs, Danses, Mélopées, etc., le ms. qui est entre mes mains se compose de 70 numéros comprenant chacun deux ou trois chansons ou diverses variantes de la même chanson avec des corrections et des notes de la main de Chaho. Il manque malheureusement les numéros 2, 3, 9, 16, 17, 26, 31, 33, 35 et 54; mais la table en donne les titres ou les premiers vers, ce qui permettrait de les retrouver*<sup>9</sup>.

Bozkarioz esan behar dugu, 1898an maleruski falta ziren kanta horiek ediren ahal izan genuela beste eskuizkribu batzuei esker, eta osatu egin dugula 70 poema zituen Chahoren kantu bilduma.

Julien Vinson hil zelarik 1927an, badirudi bere aitaren paperak Paul Vinson semeak gorde zituela eta honek Georges Lacombe hizkuntzalariari saldu

<sup>8</sup> Augustin Chaho & Antoine Serpeille, « Poèmes et chants populaires basques », *Catalogue d'une belle collection des livres et manuscrits...*, Paris 1891.

<sup>9</sup> Julien Vinson, *Essai ... aip. lib.*, T. II, 657.



zizkiola, eta hau eskuizkribu eta ikerketa lan paper mordo baten jabe egin zela.

Jose Antonio Arana Martijak<sup>10</sup> moldatu duen Lacomberen katalogoak 405. zenbakian honelako xehetasun adierazgarriak ematen dizkigu eskuizkribuari buruz:

*Collection de chansons basques (Vinson, Lacombe, Vilallonga, M. Sota, Dassanceren oharra). Doinuak eta aireak.*

*Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques: 114 kantu zerrendatuak (Falta dira: 1, 3, 9, 16, 17, 26, 31, 33, 54).*

*Chansons copiées dans le manuscrit prêté par E.: 11 kantu.*

*Zerrendatu gabeko kantuak.*

Antza denez, Lacombe bildu paperen artean beste kanta mordoxka bat ere agertu zen, eta ondorioz hasieran 70 kanta soilik zirenak ehundik gora izatera iritsi ziren. Horrela, eskuizkribuko ohar batek adierazten digunez –Jean Haritzelharren eskuz egina dudarik gabe–, bilduma hau Manu de la Sotak berrikusi eta berbildu zuen 1957ko urrian, 114 kantaren lehen bertolerroa emanez<sup>11</sup>.

Georges Lacombe hildakoan, honek bildutako liburu eta eskuizkribu oparoetatik batzuk Telesforo Monzonek eta beste batzuk Julio Urkijok hartu zituzten 1948an, Pierre Lafittek dioskunez: *Lacomberen liburu eta paper andana bat Monzon jaunak erosi baitzituen gure adiskidearen arrebari, nor harritu, ni harritu paper horietan ikusi ditudalarik Darricarrère zenaren esku-lanak.*

Duela aspaldixko Haritzelharrek zioen bezala<sup>12</sup>, Monzonen liburutegian zegoen Chahoren kantu bilduma hau oso garrantzitsua zen euskal kantaren historiarako eta ikerketarako, Chaho 1858an hil zenez, J.D.J. Salaberrik

<sup>10</sup> Jose Antonio Arana Martija, «Georges Lacomberen artxiboa», *Federiko Kruwig-i omenaldia*. Iker-10. Euskaltzaindia, Bilbo 1997, 49-77.

<sup>11</sup> Jean Haritschelhar, « En torno a la balada », *Congreso de Literatura (Hacia la literatura vasca)*. II. Euskal Mundu Biltzarra. Ed. Castalia, Madrid 1989, 461-493.

<sup>12</sup> Jean Haritschelhar, «La chanson “Bortian Ahüzki” et son auteur inconnu», *Gure Herria*, Baiona 1962, 124.

publikatua baino bederen hamabi urtez zaharrago baitzen, edota oraindik gehiago, dirudienez jadanik 1845. urterako burutu samarra baitzuen. Monzonen eskuetara Luis Dassance Uztaritzeko alkatearen alabaren bitartez iritsi ziren. 1975eko abuztuaren 13an igorritako gutun batean honela mintzo zitzaigun Dassance:

Adiskide maitea,

Berant bada berant, bainan esku on eta seguretan emanik gibeletat igortzen daizkituz Chaho eta Lacombe bildu kantu zaharrak.

Bihotzetik milesker, kantu hoiekin pasatu baititut oren goxo batzu...

Bainan orai ez detzazket balia. Zenbeit ilabethe hautan, bixta galitzen hari dut eta biziki nekez dut irakurtzen eta iskiriitzen. Egingo nintuen lanak betikotz utzi behar...!

Agur bihotzetik eta, Jainkoak nahi balinbadu, elgar ikus arte zure fidel.

[Gutun-azaleko oharra: Hirur aldiz huts egin zitu ene alabak. Bar-katu, beraz, berant izaite hau. Bihotzetik, agur].

Behin baino gehiagotan altxatu izan ziren ahots zenbait dolu eginez, Chahoren kanta bilduma oraino argitaragabea zegoelako; hala nola Pierre Lafitte, Jean Martin Hiribarrenez mintzo zelarik, Chaho beraren hitzak jasoz eta komentariotxo bat eginez zioenean:

Nous prions d'ici notre ami phileuskarien de recueillir pour nous, dans le cercle des ses pérégrinations poétiques, toutes les improvisations dignes d'enrichir notre prochain édition des *Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques*. Cette édition des Chants populaires n'a jamais paru et c'est regrettable<sup>13</sup>.

Chahok 1845ean ARIEL-en egindako eskaeran nabarmentzen da Jean Martin Hiribarren adiskidea izan zuela kantu bilketan laguntzaile –eta honen eskua nabari da eskuizkribuko zenbait kantutan–. Bestalde, ezaguna da

<sup>13</sup> Pierre Lafitte, « Jean Martin Hiribarren (1810-1866) », *Euskal Herria (1789-1850). Actes du colloque internationale d'Études Basques (Bordeaux 3-5 mai 1973)*, Société des amis du Musée Basque, Baiona 1978, 188.

baita ere, 1973ko Lafitteren kexua, non esaten zuen dolugarria zela oraino kanta bilduma hura plazaratu gabea izatea.

Hogeita hamar urte geroago, euskal ikerketek aitzinamendua egin dutelarik ere, 2006 a arte argitaragabe egon da Chahoren kantutegia, nahiz eta anitz, besteak beste Jean Haritxelhar, Jean Baptiste Orpustan eta Antonio Zabala, bere barneko urre bitxiez baliatu ahal izan diren.

Susan plazaratu ediziorako erabili nituen eskuizkribuak, beraz, Chaho, Dihinx, Vinson, Lacombe, Etxart (?), Monzon eta azkenean Euskaltzaindiaren liburutegian dagoen CD-ROMaren kopia fidagarriak dira, besterik ezean.

Eskuizkribuetarik liburura ekarri nituen Chahok bildutako 70 kantak, Vinsonek jasotakoetarik falta ziren hamarrak barne, hala nola *ARIEL*-en eta bere liburuetan aipatzen zituen beste zenbait, 101era iritsi arte. Badakit zenbait kanta ezagunak izango zitzaizkiola askori, baina segur naiz beste zenbait ezetz.

Étienne Boucher de Crevecoeur-ek<sup>14</sup>, 1819-1820 urteetan Pirinioetara eta Euskal Herrira egindako bidaiaren oroitzapen liburutxoan bi euskal kanta jaso zituen. Bat, *Izar bat klaritatez beterik* da, Chahok ere geroxeago jaso, eta bestea *Urak harria bolatzen* hasiera duena.

Juan Inazio Iztueta folklorista, historiagile eta poeta gipuzkoarrak urtebete geroago argitaratu zuen *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira...*<sup>15</sup>, non hogeita hamar kanta inguru bildu zituen, bereziki dantzakoak, falta ez diren arren amodiozkoak, ardoarenak, sehaskakoak edo bestelakoak.

Frantzian kanta bildumak argitaratzeari jarraituko zitzaizkion garaian literatur gizon ospetsuak, hala nola Théodore Hersaut de La Villemarqué<sup>16</sup>,

<sup>14</sup> Étienne Boucher de Crevecoeur, *Souvenirs du Pays Basque et des Pyrénées en 1819 et 1820*. Goetschy, Paris 1823.

<sup>15</sup> Juan Ignacio Iztueta, *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia, beren soñu zar eta itz neurtu edo versoquin*. Baroja, Donostia, 1824.

<sup>16</sup> Théodore Hersaut de La Villemarqué, *Barzhaz Breizh. Chants populaires de la Bretagne, recueillis et publiés avec une traduction française, des éclaircissements, des notes et les mélodies originales*. Paris 1839.

zeinak 1839an bildu zuen Britainako kanta multzoa itzulpen frantsesa eta doinuak emanaz. Gérard de Nerval<sup>17</sup> poetak ere plazaratu zituen 1842an frantses balada zaharrak, pitzuz ahantzixek zeuden antzinako kantak. Jean Sacaze<sup>18</sup> historiagileak ezagutarazi zituen 1843an Ossau haranekoak. Frédéric Rivarès-ek<sup>19</sup> Biarnoko kanta eta herri doinuak 1844an. Claude Furiel-ek<sup>20</sup> bi liburukitan bildu zuen poesia probentzala 1847an, eta Damase Arbaud-ek 1862an beste askoren artean Provence-ko herri kantak<sup>21</sup>.

Chahoren euskal kantak biltzeko eta argitaratzeko saioa eta ahalegina testu-inguru honetan behar da kokatu. Eta berak kanta batzuk plazaratzea besterik lortu ez bazuen, Francisque Michelek Parisen 1857an plazaratu *Le Pays Basque* liburu mardulean berrehun orrialdetik gora eskaini zizkion euskal kantari, eta Charles August Friedrich Mähnen-ek urte berean Berlinen *Denkmaeler der Baskischen Sprache*-n hogeit hamar kanta bildu zituen, neuk *Egan*-en berrargitaratuak<sup>22</sup>.

Agosti Chahoren anaia Jean Baptiste eta Jean-Pierre izan ziren lehenetarikoa, lehenak ez baziren izan, Pierre Topet Etxahunen kantez arduratzen, 1842an idatzi baitzuten batek frantsesez *Histoire du Poète Etchaon de Barcus* eta besteak itzuli zubererara *Barde baten izaitia*<sup>23</sup>. Lan honen frantses bertsiok, maiz gertatu ohi izan den bezala, lehenago ikusi zuen argia, Agosti Chahok Parisen zuzentzen zuen *Revue de voyans*-en plazaratu baitzituen 1838an.

<sup>17</sup> Gérard de Nerval, *Œuvres Complètes*. 3 Vols. Ed. de Jean Guillaumme et Claude Pichors, Gallimard, Paris 1984-1993.

<sup>18</sup> Jean Sacaze, *Chansons populaires de la vallée d'Ossau*. Pau 1843.

<sup>19</sup> Frédéric Rivarès, *Chansons et airs populaires du Béarn*. Vignancour, Pau 1844.

<sup>20</sup> Claude Fauriel, *Histoire de la poésie provençale*. 2 vols. Paris 1847.

<sup>21</sup> Damase Arbaud, *Chants populaires de la Provence*. 2 vols. Makaire, Aix, 1862.

<sup>22</sup> Patri Urkizu, « C.A.F. Mähnen-ek kanta eta Bertso Bilduma, Berlin 1857 », *Egan*, Donostia, 1986, 13-84.

<sup>23</sup> Agosti Chaho, *Azti begia eta beste izkribu zenbait*. P. Urkizuren edizioa. Klasikoak 64, Donostia 1992, 97-117.

## ARIEL, Courrier des Pyrénées, et de L'Imbecilium-Club de Paris, scientifique, artistique et littéraire (1844-1852)

*Trilby* aldizkari ez politikoa zenez, Chahoren asmoetatik urrun gelditzen zen eta, beraz, hasieran igandero soilik, eta Lespès beraren zuzendaritzapean aldizkari berri bat sortzera abiatu zen. Lehen alea 1844ko irailaren 6an plazaratu zen titulu honekin: *ARIEL, Courrier des Pyrénées, et de L'Imbecilium-Club de Paris, scientifique, artistique et littéraire*.

Bere helburua titulutik aparte honako hau zen: *Favoriser des publications importants relatives à la Gascogne et aux Provinces Basques*. Alegia, Gasconia eta Euskal Herriari buruzko argitalpenak laguntzea eta bultzatzea. Bosgarren alean (1844-XI-3) modan zeuden historiako eleberrien ildotik beste foiletoigile zenbait bezalaxe hasi zen Chaho bere eleberri bat argitaratzen honako tituluz: *Safer ou le diable fait homme*, hamar urte geroago osorik argitaratuko zuena<sup>24</sup>.

Esan bezala eta *Trilby*-n iragarri bezala kanta zaharrak eta bertsoak argitaratzen hasiko zaigu 1845. urtean barrena.

Bestalde, *ARIEL*-en erredaktore buru bezala Chahoren lana etengabea izan zen, bere luma zorrotzez bazterrak astintzen zituelarik. 14. alean *L'Imbecilium Club de Paris* titularretarik desagertu egin zen ordainez *Journal International* irakur zitekeelarik, eta 58.ean (1845. X. 19) ez da izanen *Courrier des Pyrénées, Courrier de Cantabrie et de Navarre* baizik, eta abendu bukaeran *Courrier de Vasconie*, 1848.ean *Le Republicain de Vasconie*, bataiatuko du, nazioartekoa, zientifikoa, artistikoa eta literarioa izaten jarraituko duelarik.

### *Doctrine philosophique...* (1845)<sup>25</sup>

Hamar kapitulu ezberdinetan pentsaturik dagoen tratatu hau Jules Balasque, adiskide eta kolaboratzaileari, geroago Baionako historialari<sup>26</sup> izango

<sup>24</sup> *Safer ou les houris espagnoles*. Paris, J. Laisne, 1854.

<sup>25</sup> *ARIEL*, 1845, III-9.

<sup>26</sup> Jules Balasque, *Études historiques sur la ville de Bayonne*. Bayonne 1875.

zenari eskainia dago, eta hiru zutabe nagusitan oinarritzen du bere pentsaera filosofikoa: Historiaren Filosofian, Erljioen Filosofian eta Politika Filosofian. Beste gaien artean Politeismoaz, eta honen bilakaeraz sortu zenetik Chahoren garairaino mintzo zaigu. Dotrina eta fede kontuez, ebidentziaz, segurtasunaz eta autoritateaz, Misterioez eta beste.

### *AITOR, légende cantabre (1845)*

1845. urteko orrialdeetan *Aitorren istorioa*<sup>27</sup> irakur daiteke, urte batzuk geroago Arturo Campionek itzuli zuena *Revista Euskara*-n argitaratuz (1878-1879)<sup>28</sup>, hala nola *Euskal Erria* aldizkarian (1890-1891)<sup>29</sup>.

Bada Hector Iglesiasek sortu itzulpena frantsesetik euskarara<sup>30</sup>. Vahan Sarkisianek dioen bezala Campionen itzulpena ez izan arren oso literala, hedatuena eta literarioena da eta gero, Iñaki Urdanibiak<sup>31</sup> prestatu zuelarik berea ia ukiturik gabe mantendu zuen.

Beraz arrakasta haundiko sorkuntza izan zen hau. Ez da noski, hain eza-guna urte berean idatzi zuen *Greziako pinturaren historia*<sup>32</sup> edota Paris eta Tolosan jada idatzitako artikulu hauxe kazetaritzaz: *Du journalisme en général, et des journaux de l'opposition révolutionnaire en particulier* (1845.XII.31).

Kazetaritzari buruzko ageri hau Lambert-ekin batera buruturiko kanta batez amaitzen da, zeinen titulua eta pare bat bertso honakoxeak diren:

<sup>27</sup> Aitor, légende cantabre (ARIEL, 1845: VI.8, VI. 15. VI, 22, VI, 29, VI.6)

<sup>28</sup> Arturo Campión, «La leyenda de Aitor», *Revista Euskara*, Pamplona 1878,1: 220-230,241-248,281-289; 1879: 12-17,44-53.

<sup>29</sup> *Euskal Erria*, Donostia 1890: 353-357, 385-390,417-420,449-457,481-487,513- 517; 1891: LX 33-40; 1909: 409-508, 547-552; LXI, 42-48, 70-73, 138-144,361-363, 433-440. Jon Juaristi, «La leyenda de Aitor», *La tradición romántica. Leyendas vascas del siglo XIX*. Pamiela, Pamplona, 1986,93-132.

<sup>30</sup> AAVV, *Aitor*. Erevan-Bilbao, 2008, 125-197.

<sup>31</sup> Iñaki Urdanibia, *La leyenda de Aitor y otros relatos*. Egin, Orain 1995: 9-49.

<sup>32</sup> ARIEL 1845-III-23, 26, 30 ; -IV-5 ; V-11, 18.

## Les journalicules<sup>33</sup>

*Chanson-omnibus, chanté à Bayonne par une société de Chats français, gascons et basques, qui ne sont pas enrhumés de cerveau*

*Dédiée au CHAT-BOTTÉ*

*AIR du Concordat de BERANGER*

...

II Anem haout ! le Muse gascoune,  
Heï tout petbira, carrilloune :  
Qu'ens ban regalà de sermouns  
Aü caresme, aü loc de saoumouns.

*Gloria tibi Domine*

*Vive Bayonne,*

*Plus de Sorbonne:*

*Gloria tibi Domine.*

L'ADOUR adore l'abonné.

XI

*Abogadu Paristarra*  
*Sentinelak<sup>34</sup> du autora,*  
*Bethi prosesez leherra,*  
*Badu norbaiten beharra.*

*Gloria tibi Domine*

*Vive Bayonne,*

*Plus de Sorbonne:*

*Gloria tibi Domine.*

L'ADOUR n'aura pas d'abonné.

...

XIII Messieurs Chevé, Hubert, Vauzy,  
Jaon aphezak , et coeteri ;  
Tombatis in patas nostras :  
Qu'aouran bere teque de nas.

<sup>33</sup> ARIEL, 1845-XI-9.

<sup>34</sup> *La Sentinelle de Bayonne, Journal politique, commercial, littéraire et maritime* . Rue Bourg-Neuf, n° 66, Bayona. 1831 (abuztuak 11)-1833 (abendua, n° 373).

*Gloria tibi Domine*

*Vive Bayonne,*

*Plus de Sorbonne:*

*Gloria tibi Domine.*

Nos compliments à l'abonné.

...

Entzuten ditugunez, katu frantses, gaskoi eta euskaldun haiek ez zuten bur-muinetan batere erreumarik, arin eta zorrotz baitzituzten bertako neuronak, bat ere usteldu eta, noski, umorez eta ziriz bete-beteak.

### **Iruñeko bestak (1845)**

Berrogeita bosteko *ARIEL*-ean Hiribarrenen bertso zenbait ageri dira 1845. urteko Iruñeko bestez mintzo, hango jai, zezen korrida, zaldi lasterke-ta eta dantzez. Eta, nola ez, Chahori eskaintzen dizkio lehen bertsoak, honela diotenak:

*Izan haiz, Chaho, Irunian,  
Iraila zenian lauian.  
Bada zer dukan han kaustu  
Zertako ez duk kondatu?*

*Egotu nauk beha gosia,  
Noiz, egorriz behin asia,  
Hik, ARIEL aberatsa,  
Ezkiltzen huen hatsa.*

*Ah! Ez dakik bada othe,  
Jendek zenbat hauten maite,  
Jainkua utziz elizekin,  
Mintzo bahiz gizonekin!*

*Paristarren koplak utziz  
Hitan baduk bethi untziz  
Eltze ustelian iraki,  
Izpiritua ausarki.*



Paristarrak gatzik eztik,  
Emaguk, beraz, hiretik.  
Errak: gazen Iruinerat,  
Hango besten ikusterat<sup>35</sup>.

Hiribarren berak dioenez, lapurteraz idatzitako poema txiki bat da : *Petit poème sur les fêtes de Pampehune 1845. En dialecte labourdin le plus pur*. Baditu, ordea, poematxo honek ehun eta hogeitamar zortziko, beraz, 1362 bertsolerro, aitzakitzat harturik Chahok, Nemours-eko duke eta dukesa, Aumale-ko dukeak eta beste konpainia eder batek (tarteana bera) 1845 urteko irailean Iruñeara egin zuten bidaia eta hemen dastatu zituzten bestak.

Dukeen Euskal Herrirako bisitak utzi zizkigum hainbat bertso eta kanta nola Bizente Etxegaraik eskaini ziena *Le Phare des Pyrénées* aldizkarian Donostiatik igarotzean edota Tolosatik, hala nola Hazparneko Larralde Bordaxurik kantatuak eta *Le Courrier de la Gironde*-n jasoak. Baina ez ziren iristen Hiribarrenen tamainara, noski, zeinen obraren zati bat Chahok argitaratu zuen, pentsatzen baitzuen edizio elebiduna, euskara-frantsesa, egitea, asmo huts gelditu zena, ordea.

Azkaindarrak atharraztarraren aipamenarekin hasten digu poema *Ariel*-en, kortesiazko deikia, noski, baina poema berridatzi zuenean, urteak igaro eta, zati hau aldatu egin zuen, beste zenbait orraztu eta zuzenduz. Beraz azken idazkera moldatu genuen gure ediziorako. Bidaiariak, muga pasa ondoren Urdazubi, Arizkun, Elizondo, Moringo Zubia, Belate, Ultzama eta azkenean Iruñeara iritsiko dira erregina Isabel IIarekin eta honen gortearekin elkartzeko.

Hau, bere ama Kristina eta ahizpa Luisa Femandarekin Donostiatik zetorren, hemen mainu batzuk hartu eta hiriak harrera benetan ederra eskaini ondoren. Boulevard-eko *Txakur-Txulo* zeritzaion ostatuan egonak ziren eta musika jaialdi bat oparitu zion hiriak Luisa Fernandari, Bizente Etxegaraik, okasio guztietarako prest zegoen donostiar poetak, asmatu zortzikoak kantatu zizkiotelarik. Hauetariko bigarrenak honela zioen:

<sup>35</sup> Ikus bidaia eta bestak osorik: Patri Urkizu (ed.), «Jean-Martin Hiribarren, *Iruñeko bestak 1845*». LAPURDUM VI, Baiona 2001, 319-335.

*Infanta gaztetxoa Espainiakoa,  
Isabelen aizpatxo biotz gurekoa :  
erregeren alaba zorionekoa,  
ar ezazu oroitze Donostiakoa<sup>36</sup>.*

Hemendik Iruñeara joan ziren eta Joakin Ignazio Menkos, Guendulaingo kontearen etxean hartu zuten ostatu. Eta bertan biltzen ziren Frantziako printzeekin, egun batean hirurogeita hamar gonbitatuei platera ugari eta onaskoak eta dantza eder bat eskaini zitzaielarik.

Poemak ez dioen arren, printze frantsesek Ezpeletako Kontearen jauregian hartu zuten ostatu, bertan banketeen ondoren serenatak, gau-dantza eta gau-argiak dastatu zituztelarik. Erregina Isabelek Frantziako printzeak erregalatu nahi zituen, eta honetarako momentuan zen toreatzailerik famatuenari eskatu zion torea zezan Iruñean. Gonbitea *Ministro de Instrucción y de Hacienda* zenak berak egin zion, eta Madridetik pasatzerakoan Montes bere koadrilarekin jai eder bat ere eskaini zitzaion.

Frantziako eta Espainiako korteak Iruñean iraun zuten bitartean, hau jendez beterik zegoen, ezen topaketa illustrearen aitzakiaz iragarritako ikuskizunek Pirineoetako mainutegietarik ur-hartzaile anitz erakarri baitzuten.

Poemak bederatzi atal ditu : Bidaia (1-12); Argiak (13-21); Zezenetako tokia (22-62); Zezenak (63-125); Zaldi Lasterketak (126-140); Zuziak (141-148), Zuziazko Tiruak (149-155); Pasaiuak (156-162); eta Harmada (163-170). Zatirik nagusienak, beraz, zezen plazako giroak eta zezenek hartzen dute (22-125) bertan kantatzen direlarik garaiko toreadore famatuenaren, Francisco Montes en hazaina beldurgarriak.

Lehen korridan zazpi zezen jokatu zituzten. Montesek lehen estokadaz etzanarazi zuen lehenbiziko arerioa. Bigarrenean, nola ez baitzen oso oldarkor, jendetza *zakurrak! zakurrak!* oihuka hasi zen, Santerak azkenean lau estokadaz hil zuelarik. Hirugarren zezena Chiclanakoak guztiz dotore eta ederki akabatu zuen txaloen artean. Laugarrenean zaldia lurrean sabela

<sup>36</sup> Jose Vicente de Echagaray, *Festara (Bere bertso guzien bilduma)*. Ed. A. Zavala, Auspoa, 35-36, Donostia, 1964, 210.

urraturik, lehen estokadaz bota zuen Montesek. Bosgarrenean berriro zaldiak lurrean etzanik tripak kanpoan, eta banderilak ezarri zituenean usoak atera ziren txorimalotik zezenak hau adarkatu zuenean, eta bigarren aldian sartzerakoan hil zuen Montesek. Seigarrenak berriro pikadoreak bota zituen, berriro Santera zezenzalearen kontra madarikazioak entzun zirelarik. Zazpigarrena eta azkena irinez betea atera zen, eta hamabi mutil errotariak, galtza txuri, alkandora txuri eta zapia buruan loturik, hamar mila liberaren ordainez saiatu ziren zezena botatzen, halere eskerrak azkenean toreatzailea atera zela, ezen batzuek gaizki zauriturik bukatu baitzuten.

Korrida arratsaldeko hiruretan bukatu zen, eta bostetan berriro itzuli ziren printzeak atsedean zertxobait hartu ondoren. Zaldun mordo bat atera zen beren zaldi dotoretan Luis XV eta Felipe IV garaiko jantziez, eta bukatuta-koan antzekizuna erregina Isabel IIak parte hartzaileen artean dominak hedatu zituen. Besta hau zazpiretan amaitu zen.

Bigarren korrida irailaren zazpian ospatu zen. Erregina ordubiak pasata iritsi zen plazara, idazkariak zilarrezko platera batean eskaini zizkion hiriko giltzak alkateari, eta honek erreginari, zeinak halaberetsu eskuinean eserita zegoen Nemourseko dukesari, beronek jendeari bota ziezazkion. Zeremoni hau egindakoa korrida hasi zen.

Lehen zezenak zaldien artean triskantza izugarria egin zuen. Montes, dirudienez, ez zegoen forman eta hiltzera sartu zenean jendetza aspertu egin zuen eta txistuak entzun behar izan zituen. Beste zezenak aski oldarkor aritu ziren eta txaloak errebitu zituzten. Bosgarrenari hiru gizonak zaintzen zituzten bost zakurtzar bota zizkieten, eta zakurrek zezena kozkatzen zuten bitartean, ezpata sartu zioten. Zakur hauek Jose Joakin Arrese Tolosarrak eramanak ziren bi mila eta zortzirehun errealean truke. Ikuskizun krudel eta odoltsu hau, ordea, ez zen izan ikusleen gustokoa.

Ekintza hau Iñaki Azkunek<sup>37</sup> beste era honetan biltzen eta itzultzen digu, *El Heraldo de Madrid*-etik harturik:

---

<sup>37</sup> Iñaki Azkune, *Zezenak Euskal Herrian, gure baitan dituzten erro luze-erakutuak*. UEU, Bilbo 1989, 349.

Lehen hiru zakurrek ez zuten horzka egiterik lortu. Gero zezenari bota zizkioten beste biak, hain txikiak zirenez gero, ez ziren zaunka egitera ere ausartu. Joaldunak atera eta orduerdia baino gehiago behar izan zuten zezena plazatik eramateko. Errotariak zezen hura eskatu zieten orduan agintariei biharamunean lantzaz hiltzeko. 24 errotarik heren haga punta zorrotzak lerrokaturik ipintzen zizkioten zezenari, eta zezenak hirutan hautsi zien lerroa, mutik-gazteak lurrera bota eta zapalduz.

Printze eta Printzesa frantsesek Montes zezenlariari eta bere pikatzaile Joakin Coyto, alias *Charpa*-ri diamantezko eraztun bat eta esmeraldez hornitu orratz bat oparitu zieten. Dena den, ez zuen utzi gure Hiribarren poemagilea ikuskizun krudel honek oso kontent eta honako bertsoa idatzi zuen:

Ni banintz erregetarik  
Ez liteke zezenarik. [124.b.]

Irailaren zortzian goizeko zortzietan irten ziren printze frantsesak hiritik, hiru mila liberako oparia eman zitelarik bertako benefizentziazko etxeei, eta Elizondo eta Kanbon gelditu ondoren abiatu ziren Baiona eta Pariserantz.

\* \* \*

Izpiritu ausart bat ez ezik bazen Chaho baitan erudito eta historiagile bat, arduratzen zena adibidez edo Greziako pinturaz edo eta batik bat Euskal Herriko Historiaz, eta horrela estilo zuzenketa ttipi batzuen ondoren argitaragabe ziren Belaren oroitzapenak emango dizkigu lehen aldiz<sup>38</sup>. Nongo eskuzkiributik kopiaturik ote? Ez dakigu. Baina ez litzateke harritzeko Pariseko Liburutegi Nazionalekotik izatea.

\* \* \*

1846an Jean Crouzet-ek dioenez<sup>39</sup> masoi, alegia, arginbeltza bezala juramentatu zen Saint Esprit-eko *La Parfaite Réunion*, izeneko logian. Baina

<sup>38</sup> « Mémoires du chevalier de Bela » (ARIEL, 1845: IX, 5,12; X. 10, 26; XI. 2, 9, 16, 23, 30; 1846, XII. 15, 17, 20, 22, 24, 27, 29, 31; 1847: I. 3, 5, 7, 10, 28, 31.)

<sup>39</sup> Jean Crouzet, *Bayonne entre l'équerre et le compas*. Ed. Harriet, Bayonne, 1987, T. II, 116-117.

politikoki zenbait taldetan onartua bada ere, batik bat bere lagun karlistek aski kritikatu dute, beste anaia arginbeltzak zirikatu eta astintzen zituelako gogorki *ARIEL* aldizkarian, Raspail-en kasuan bezalaxe.

Arginbeltzen ikur bereziak noizpehinka ere bazerabiltzan, hala adibidez hiru izartxo sinatzen duenean (\*\*\*) 1847. IX. 26, *Un beau concert...*).

Genioen bezala eztabaidatan jotake, sutsuki ziharduen, esate baterako, *Réveil*-ea aurka erlijioaz eta filosofiaz mantenduko duen eztabaidak, bien arteko solas kontrajarriak luzaro dirau 1847. urtean.

Erantzunik ere ez zitzaion falta, ordea, nola *Un jeune Croyant*-ek sinatzen duena, ihardetsiz *Au poète des Voyans* (1847. IV. 13), izen hori bera emango diolarik ere Paul-Emile Palisse poetak (1847. IV. 18).

### *Les Mystères de Madrid* (1846)<sup>40</sup>

Mila zortzirehun eta berrogeita seian 44ean hasitako eleberraren iragarria damaigu (1846-VIII-23), alegia, *Safer*-en segida, eta *Les Mystères de Madrid*<sup>41</sup> eleberrri tamalez amaitu gabearekin hasten zaigu, zazpi kapitulu soilik utzirik.

**Feuilleton** titulupean, alegia, garaiko egunkarietan foiletoiei eskainitako lekuetan hasi zen Chaho ematen eleberrri hau. *Préface* edo aitzin-solasean esaten zuen *Nouvelle* delako honek ez zuela bere asmoen artean Madridedo herriaren ohitura materialen margotzea, ez eta fikzio huts bat izatekoa, non pintura koloretsuak eta abenturen dramen interesa bildurik agertuko lirartekeen, baizik beste zerbait sakonagoa : *nous voulons examiner la société de Madrid, sans haine et sans adulation*. Hots, nahi zuela aztertu Madridedo gizartea, gorroto eta zurikeriarik gabe.

Bere eleberrigile maitatuenak eta berauen estiloa ere aipatzen ditu. Adibidez, Walter-Scott, Victor Hugoren *Notre-Dame de Paris* (1831), Alexandre

<sup>40</sup> *ARIEL*, 1846: X, 18, 20, 25; XI: 1, 3, 8, 10, 12, 15, 26; XII, 6.

<sup>41</sup> *ARIEL*, 1846: X. 18, 20, 25; XI. 1, 3, 8, 10, 12, 15, 26; XII. 6.

Dumas aita eta Auguste Maquet-en *El Conde de Montecristo* (1844-45) eta Eugène Sue-ren *Les Mystères de Paris*, zeina honek *Le Journal des Débats* aldizkarian 1842ko ekainaren 19tik 1843ko urriaren 15era plazaratu zuen. Ez du ahanzten ere gaztelaniazko nobelista lehena..., *pour ce genre de romans historiques dont Cervantes donna les premières définitions et même les premières exemples.*

*Historia* honetan kontatzen da, nola Pedro de Astorga izeneko indiano bat iristen den bere jaioterrira, Madridera eta rue Poisson-era, hots, calle del Pez izenekora bere seme Jaimerekin eta bi morroiekin. Bere portaera filantropikoa Madridera Kortean, *Las Cortes* deituetan. Eta kritika punturik ere ez zaio falta, hala nola dioenean neskame batek:

*Et pourquoi non? Il n'y a pas en ceci le moindre mystère. Son propriétaire n'a rien volé à personne ; il n'a été ni notaire, ni ministre de finances, ni directeur de la Bourse, ni d'aucune des ces maudites choses ; mais, tout au contraire, un bon et honnête personnage qui a entassé ses gros sous à rédiger des réquetes et à gagner des procès.*

Tamalez, ez zena ez *roman oriental*, ez eta *légende*, baizik eta *nouvelle réaliste* delako hau ez zuen amaitu ahal izan.

### ***Histoire primitive des euskariens-basques... & Histoire des basques... (1847)***<sup>42</sup>

*Euskaldunen antzinako historia* : hizkuntza, poesia, ohiturak eta herri honen nortasuna, sarrera bere historia zahar eta modernoari, darama lehen tomoak titulu gisara eta *Euskaldunen Historia*, mendebaldeko Pirineetan ezarri zirenez geroztik *gaurdaino*, bigarrenak. Beltzuntzeko bizkontearekin batera plazaratu zituen bi liburukiok.

Noski, elkarrekin plazaratu aurretik badirudi egun zeharo abandonaturik dagoen Mehaineko Beltzuntzarren gazteluan iragan zituela Chahok denboraldiak prestatzen eta pilatzen informazioak.

<sup>42</sup> *Histoire primitive des Euskariens. Basques: langue, poésie, mœurs, et caractère de ce peuple; introduction à son histoire ancienne et moderne* T. I; Bayonne, Jayrnebon, 1847. *Histoire des Basques depuis leur établissement dans les Pyrénées occidentales jusqu' à nos jours*. T. II. T. III, Bayonne, Lespès, 1847.

Polydore de Labadie<sup>43</sup> Duvoisin kapitainari eginiko gutun batean dioenez, obra honetan erudizio frango bada eta beraz ona izango da kontsultatzeko, hobeto egin bazezakeen ere. Gizon talentu handikoa, sutsua eta bihotz xit onekoa dela Chaho, diosku; baina, akats bat dutela liburuek, alegia, salneurria, hamabost liberatan baitaude hiru liburukiak, horrelako prezioan inor gutxik eros dezakeelarik

Agostiren liburukiak sarrera luzexa baten ondoren, non Aztiari eta Aitorren semeei buruzko ideiak berragertzen dituen, hamahiru kapituluxkatan euskaldunen historia agertzen digu, eta amaitzeko Aitorren istorioa berriro ematen. Historia eta linguistika eskutik daramatza eta halaberetsu noizpehinka politika eta bertsoak, Annibalen, Leloren eta Altabizkarko kantak komentatzen dizkigunean.

Jakina da eta ezaguna Lekobideren eta Erroldanen kantak apokrifoak direla eta XVI. eta XIX. mendeko egile ezagunak dituztela.

Chahok Annibalen kanta aipatzerakoan, *Txori khantazale eijerra*, XVII. mendekoa omen dela kritikoen arabera, diosku, eta bi estrofa besterik ez dituela ezagutzen, gehiagoren frantses itzulpena ematen digun arren. Frantsesezkoa da ere Eugène Garay de Monglave, beste apokrifo sortzaileak ematen digun bertsoia *Chants Nationaux Basques (Le Courrier de Bayonne, 1853. III. 10)* artikuluan, non dioenaren arabera 1821eko urriaren 7an kopiatu zituen Hondarribiko kaputxinoen komentuko liburutegian. Apokrifoen ixtorio eta kritika zehatz zenbait irakur nahiko lukeenak jo lezake *Balada zaharrez*<sup>44</sup> burutu ene liburuaren bigarren kapitulura.

## 1848ko Bigarren Errepublika Baionan

Horrela bada iristen gara Chaho politikaria garaile atera zen urtera, hots, Bigarren Errepublikaren urtera, 1848. urteko otsailera, Baionan gertakizun horietan parte zuzen eta nagusia hartuko zuenera.

<sup>43</sup> « Lettres adressées au capitain Duvoisin », aip. Art. (Uztaritz, 20 juillet 1858), RIEV, II,267.

<sup>44</sup> Patri Urkizu, « Apokrifoen eta kritikarien saltsa-maltsez », *Balada zaharrez*, Erein, Donostia 2005, 17-39.

Otsailaren 23an Paris altxa egiten da, eta bertan sortu asaldamenduen ondoren erregeak abdikatzeko duelarik eta ihes egiten Ingalaterrara, behin-behineko Gobernu osatzen da Errepublikak proklamatu. Gobernu berria osatzen dutenak hauexek izango dira: Arago, L. Blanc, Dupont de L'Evre, Crémieux, Flocon, Garnier-Pajes, Lamartine, Ledrun-Rollin, Marie eta Marrast.

Deputatuen Ganbara desagitea eta, sufragio unibertsala berreraikiz elezioak deitzea Asanblada Konstituyente baterako (1848. apirilean) izan zen honen lehen egitekoa. II. Errepublika Parisen aldarrikatu eta Jean-Martin Hiribarrenek (bere paperen artean ediren baititugu) honako bertsoak idazten zituen:

### Jo du, jo, nizpeit orena<sup>45</sup>

Jo du, jo nizpeit orenak  
Justizia dakharkenak,  
Orai bada Eskaldunak,  
Porroska zuen burdinak.

Errege da populua,  
Altxa lezake burua,  
Hanbat mendez lehertua,  
Ager bedi zutitua.

( ... )

Ez nihor aitzindari  
Odolaz bada egarri,  
Bethi beira frantsesari  
Nola zuen anaiari.

( ... )

<sup>45</sup> Patri Urkizu, «Euskal idazleen bertsoak bigarren errepublikaren gainean (1848-1851)», *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIX<sup>e</sup> siècle*. Ed. de Jean-Baptiste Orpustan, Actes du colloque de l'URA 1055 du CNRS, Izpegi, Baigorri, 1994, 121-147.



Ez beza nihork engana,  
 Higuin mende gezurrena,  
 Lezian iri sartzen dena,  
 Ez diteke frantses ona.

Libertatiaz pikainak,  
 Gure meneko dohainak,  
 Zorrotz itxikin haginak,  
 Beira nola buru fuinak.

Agostik berak PARISEKO BERRIAK<sup>46</sup> artikuluan horrela kontatuko dizkigu:

*Bena mintza gaiten lehenik otsailaren hogei-eta-laurian emanik izan zen Reboluzioniaz erregeren kasatzeko.*

*Orduko bataila populu xehiaren moienez irabazirik izan zen. Esperantza ukhan zien populiak harentzat egirik izanen zela zerbait abantaila eta aisetarzun zenbaitez noizbait izanen zela dotatia.*

Igande goizean (1848- II- 27) Chaho, Stein eta Villa Baionako *Comité Républicain Central* delakoaren partaideak, jente xehea eta arginbeltz mordoa atzetik zutelarik Harisperi bisita eginen diote honi eskatuz, jaialdi hiritar bat antola dezan, herria eta troparekin batean anaitasunean ospatzeko egun handi hura. Harispek ordenak espero dituela ihardesten die, baina populua ez zegoen itxoiteko. Harispe utzirik, Udaletxera dihoaz, non udala bilduta zegoen. Hemen zeudenek eskaerak onartuz *Garde Nationale*-rako eta udala organizatzeko elezioak prestatzen dituzte. Askatasunaren zuhaitza eraikiko da plazaren erdian. Okasio horrekin Hiribarren bandera errepublikanoa bedeinkatu ondoren solas eder batez mintzatu zen<sup>47</sup> askatasunaz (*Libertatia zein eder den!* aldarrikatuz), berdintasunaz eta anaitasunaz laudioak eginez. Gero Baionako burgesia guztia bildurik dagoen Barroilhet aretorantz abiatuko dira, eta Biba zenbait hala nola eguneko berrien parte eman ondoren sei komisario eragile hautatuak izango dira: Frédéric Accu-

<sup>46</sup> *Uscal Herrico Gasetta*, 1. Z., 1848. arramaitzaren 30 a.

<sup>47</sup> « Discours de M. Hiribarren, curé de Bardos, prononcé après la bénédiction du drapeau », *Journal du peuple*, Bayonne, 10 avri 1848, n.<sup>o</sup> 9.

duts, Edmont Faulat, Plantié Junior, Jacques Portes, Agosti Chaho eta Paul Bouesseliaux. Denak arginbeltzak.

Lehen erabakiak hauexek izan ziren: suprefeta zaindarien pean ezarri eta manifestazio handi bat osatu. Hau, *ARIEL-Républicain de Vasconie* (40, rue Victor Hugo egun) kokaturik dagoen lekurantz abiatzen da, bertako leihotik bandera errepublikanoa jeitsiz Monsegu jerenteak Udaletxera eramango duelarik, hiri osotik paseatu eta lau haizetara astindu ondoren, eta bai Marsellessa [*Harmak har ditzagun*] bai *La Chanson du Départ* [*Hau da partitzeko tenorea*] kantatuz.

Gardia nazionalaren zortzi konpainia eratu ziren bakoitzaren buru kapitana bat, liutenant eta sulientant bat zirelarik. Horrela gauzak Chahok, Harispe komandante jeneralari tropak bil zitzala esijitu zion eta arratsaldeko lauetan, martxoaren lauan eta Errepublikaren alde ager zedin, lortu zuelarik baigorritarraren mintzaldia honela buka zedin:

(... ) *Le vieux vétéran des armées de la liberté qui vous commande, attend de vous calme et discipline. C' est le premier devoir d' un bon soldat. C' est le plus sur rempart contre l' agression de l' étranger. Vive la République!* <sup>48</sup>.

Ez dirudi doinuaren arabera oso gogo onez esan zituenik hitzok. Beraz ikusten dugu bazituela Errepublika horrek bai gudaostearen bai elizaren onespak, ez halere orenak, garbi ageri den bezala Michel Elissambururen liburuan<sup>49</sup>.

Memento mugituak izan ziren bai udaletxean, bai arginbeltzen artean, eta arazoak ez zirela ondo erabakitzen ikusten zuenean, behar bezala ez zihoazela ohartzean zorrozki kritikatzin zituen Chahok bere kazetan. Bide-nabar, bere ideien hastapenak zabaltzen zituen, komunistak atakatzin, bere ustez haien ideiek demokrazia guztiaren desegile izanen baitziren. Tiraniaren infernuaren orde z anaitasunaren paradisia nahi zuen ezarri, eta hona bere ideiak irakaskintzaren gainean:

<sup>48</sup> Jean Crouzel, aip. lib., II, 167.

<sup>49</sup> Michel Elissamburu, *Frantziako hirur Errepubliken istorioa laburzki*. Baiona, Lasserre, 2. arg, 1890.

*Je veux que l'enseignement soit réglé par la loi, et exercé par L' Etat en ce qui touche les enfants dont la République doit faire avant tout des hommes libres et des citoyens ici-bas, et nullement des croyants pour la vie éternelle. J' accorde aux prêtres de toute secte, liberté plénière de prédication comme j' exige pour tous les citoyens la liberté de l' expression et de la presse. Mais les prêtres, en tant que prêtres, doivent être exclus des écoles de la République pour tout ce qui ne concerne pas l' enseignement purement religieux. Leur enseignement est moral, dit-on. Celui des écoles de la République, tel que je le conçois, sera plus moral encore. Leur enseignement est, dit-on encore, économique. Mais je ne souffrirais pas en même temps, que ceux qui le répandent soient condamnés à vivre dans une pauvreté honteuse. Je proposerai un salaire minimum*<sup>50</sup>.

Adierazpen eta prentsa askatasuna aldarrikatzen zituen eta eskatzen hitar ororentzat. Eta apezak eskoletan erlijioa soilik irakastea, hala nola soldata duin bat irakasle guztientzat.

Konstituzio berriaren egileak izango zirenak hautatzeko elekzioak 1848. apirilaren 23an eman ziren. Martxoan hasi eta abuzturarte ere *ARIEL*-en argitaratu zuen Chahok berriro *Lélo ou la Navarre il y a 300 ans*<sup>51</sup> historia eleberria.

Baina Chahok bezala, Errepublikaren aldeko sua piztu zuten Ipar Euskal Herrian zenbait gizon argik, hala nola Donapaleun Saint Gaudens abokatuak eta Donibane Garazin Michel Renaud-ek.

Udaberri politiko honetan lagundu zuen abenturero aleman batek, Karl von Gagern<sup>52</sup> berlindarrak, zein Pariseko iraultza ikusi ondoren Euskal Herriari bisita egin zion eta Lizarrako konplotan parte hartzeagatik heriotze zigorrara kondenatu zuten eta azken mementoan afusilatua izatetik libratu zen.

<sup>50</sup> « Exposé de principes » (*ARIEL*, 1848. III. 28.)

<sup>51</sup> *ARIEL* 1848. III 14, 16; IV. 20, 23, 25 27, 30; V. 2, 4, 7, 11, 23, 25, 28, 30; VI. 1, 4, 6, 8, 11, 13, 15, 18, 20, 27; VII. 2, 4, 9, 11, 13, 16, 20, 23, 25, 30; VIII, 1, 3, 8.

<sup>52</sup> Marianne O. de Bopp, «Carlos van Gagern, Chaho y el complot de Estella en 1848», *Príncipe de Viana*, Iruñea 1975, 667-672.

Garai honetako gertakizun bat aipatzen digu Lafittek<sup>53</sup>. Bertan Chaho eta Duvoisinen haserreak ageri zaizkigu, eta batik bat azken honen gaiztakeria. Merkatu eguna zen Heletan. Arratsaldea. Plaza guzia jendez bete, eta Chahok bere programa aurkezten ari zen unean Duvoisinek ezin pairatuz haren hitzak eta ideiak herriko mutiko batzuek bilduz halako zarata eta istilua sortu zuten, kantuz eta irrintzinaka ez ziotela atharraztarrari hitz egiten utzi, hau bere lagunekin lekua hustu beharrean aurkitu zelarik.

Ohizko kanpainen ondoren hauteskondeek emaitza hau izan zuten: zortzi errepublikano eta hiru kontserbadore, eta, noski, errepublikanoen artean ere gehienak kontserbadoreak. Galtzaileen artean gelditu ziren besteen artean Chaho 21.728 botoz eta Navarrot 19.154kin. Deputatu hautatu eta Pariserat zoazenei zuzendurik Xavier Navarrot<sup>54</sup>, biarnes poetak, bertso hauk eskainiko dizkie:

*Aux Deputés partants*

*En attendant, sur l'arène altérée  
vous me laissez vaincu, non sans honneur;  
Heureux vainqueurs, mettez-vous en curée,  
Moi, puis Chaho, Pinède et Monseigneur  
Bon voyage Chers concurrents.*

Diputaturako galtzaile atera baziren ere maiatzean Udaletxeko hauteskondeak izango dira, eta hogeita hiru hautatuetarik bat Chaho izango dugu. Eta oraindik beste elekzio mugatu batzuek ere gertatu ziren 1848. ekainaren 4ean (87.000 hautale ordez 39.345) Marrastek bere lekua utzi baitzuen libre Pariseko departamendua hobesterakoan Basa Pireneetakoaren lekuan eta irabazle Barthe izan zen 12.972 botokin, Chahoren 7.276 botoen aurka<sup>55</sup>.

<sup>53</sup> Pierre Lafitte, *Euskal Literatura*. Ed. Patri Urkizu, Donostia, Erein 1990, 198.

<sup>54</sup> *ARIEL* 1848.V. 2

<sup>55</sup> René Cuzacq, *Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque de 1848 à 1870*. Bayonne, 1948,30.

## Uscal-Herrico Gaseta (1848)

Arramaiatzaren 30ean (ekainaren 30ean) hain zuzen argitara eman zigun Agostik euskaraz idatzitako lehen aldizkaria: *Uscal-Herrico Gaseta*. Honek tamalez bi ale bakarrik izan zituen, eta dituen zenbait xehetasun Beñat Oihartzabalek aztertu zizkigun zehazki<sup>56</sup>.

Lehenbiziko aleak artikulu nagusiok ditu:

- I. *Herritar Maitiak*
- II. *Zer den ARIEL*
- III. *Errepublikak zer den*
- IV. *Laborari baten letra*
- V. *Zer da berri*
- VI. *Espainako berriak*
- VII. *Pariseko berriak.*

Lehenean, euskararen arazoa du mintzagai, eta euskalkien aurrean geratzen diren arazo eta gora-beheren aurrean behin betirako honakoa erabakitzen du: *Eztakitxanak ikhas bitxa. Eta, behin betikoz erranik, aski den.*

Bigarrenean, *ARIEL* definitzen saiatzen zaigu, alegia, amorio eta indar berezi bat dela argitzen digularik.

Hirugarrenean, Errepubliketaz mintzo, Populua dela erregea eta etsaien kontra gerla ematera prest dagoela.

Laugarrenean, elektioez mintzo delarik garbi uzten du oraindik gobernamenduaren giltza herrixketako apezek dutela, berak direlako auzapez, kontseilari eta idazkarien buru; hala nola aberatsak.

Bosgarrenean, eztabaidatan sartzen da, Euskal Herriko albisteak eman ondoren, garaiko zenbait aldizkarirekin.

Seigarrenean, F.M. sinatuz horrela zuzentzen zaie euskaldun espainolei:

<sup>56</sup> Beñat Oihartzabal, « Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chahoren *Eskual Herriko Gaset* (1848) », *Patxi Altunari Omenaldia*. Mundaiz, 5, Donostia 1990, 191-207.

*Prest izan zaitetze gerlako trunpetaren seinaliari, biktoriarat kurrütze-ko, fite arrabostuko da gure arroka urrunetan, eta soinu ark erranen zitu: Altxa! Benzitu behar dugu edo hil, eta segurantz badut, libertateko bandera agertzen denian gure mendi puntetan, zuetatik bat ez dela izanen Eskualerriaren salbatzeko atzeratuko denik.*

Zazpigarrenean, *Pariseko berriak* deitua bertako albisteak eman ondoren beldur da Europako errege guziek ez ote dioten Frantziari gerra egingo, botaturikoaz gainetik tronua ezartzeko.

*Uscal-Herrico Gaseta*-ren bigarren eta azken aleak (1848.VII.25) egitura berdintsuarekin jarraitzen du Elekzioez mintzaturik, apez batekin eztabaida gogor batean, hala nola Frantziako eta Espainiako berriak emanez. Azken artikulua horretan karlismoarekin hausteko gomendu bizia ematen du, haren prailekeria eta kontserbakoikeria ezin baitzuen haboro pairatu ikusi dugun bezalaxe, hitz hauekin hain zuzen bukatzeko:

*Nork oihu eginen du, azkenian, errege-erreginak eta haien partidario tontoak edo anbiziosoak akazatu ondoan: Biba Independentzia! Biba Errepublikak! Biba Euskal Herria?*

Chahoren oihu ausart eta kuraiez betetako hauek ez dirudi oihartzun handirik ukan zutenik, zeren eta Léonard Berterreix lagun zaharrak euskaraz idatziriko beste artikulua batean eta *Jouhane Lestartarra* bezala sinaturikoan honako elkarrizketa plazaratzen zuen *Journal du Peuple*-n:

– *Katalina, nun da igaran iganteko gazeta?*

– *Armairun gainean utzi nizun, bena goiz huntan Judas haur hoiak, behartto batentako enplegi dizie.*

– *Hebentik harat gorderik eretxekiren duzu, entzun duzia? Uskal Herriko gazeta eztuzu haurren ez eta haien zerbutxientako eginik izan. Jakin ezazu hori, Kattalina<sup>57</sup>.*

Beraz eta haurrak zebiltzan lekutik ezkutaturik behar zen eduki Chahoren gazeta arriskutsua, garairako ideia aurreratuxegiak zabaltzen zituen nonbait eta.

<sup>57</sup> *L'International*. N<sup>o</sup> 150, 1848. VIII. 10.

— 1848 — 11 OCTUBRE.

N. 1.

ANNALETS CHAREN 30.

REDACTORE,  
AUGUSTIN CHAHO.

USCAL-HERRICO

Caseta

ACURATÇEN DA

ASPAN-BEHUN.

BAYONAN,

FORT-MATOUO CARICAR, 7<sup>me</sup> AVENUE.



P. LESPESEN,  
IMPRIMERIAN.

PRECIOA:

Etchera affranchitua;

OURTHECO.

GAZPI LIBERA.

NUMEROBAT,

HIROUN SOB.

# USCAL-HERRICO GASETA.

## HERRITAR MAITIAK.

Gaseta hauoen hastiarequi, ezta ichipi ican goura embrassia, eia couin herri edo probinciataco *Uscaraz*, *Escaraz*, *Eusqueraz* edo *Hescuaraz* hauu eguin behar-gujan izquiribateco. Hasteco, cer icon emanen dugu eguin Guiteen-den hilabetari: *Arramatataco*, *Ekhaina*, *Errearaa*! Hoho ligato guisa-hatez goretaco, hobequi coumprenituric igateco. *Uscara*-bat-haicie ezpoliz; eta horreo-gagneu, erraa ahal dioquegu, goura aberatstar-cunian praube guirela. Cer eguin? Ahal begala impri-matu, batian Ciberoutarra, bestian Bache-Nabartarra, Laphourtarra edo Guipuzcoarra, iracourcaliac *Uscara* subertiac oro balaquitça beçala. Ezlaquitçauac ikhas-bitça. Eta, behin bethicez erranic, aski den.

## CER DEN ARIEL.

Nour da edo zer da *Ariel*? Ainguru-bat. Cer da *Ainguria*, eta noun-ngo hartu-du *Uscara* *ainguru* icen hori? Haü dugula hitz eder horren centia: Indietaco erdaraz, *angui*, amourio-bat edo indar-bat; grecquez eta latiz *angelus*, *angelus*, meçuler-bat.

Ainguricac dirado, holatan, Gincouaren meçu-eguniac; eta, hobequi orraitera, Gincouaren bertlutiac, Gincouac lurrian eta celian erabiltten-dutian photeriac, couin he-tira arguiceco ainguricac.

Eta Ifernuco gai-ainguricac dirado aldiz, mundutic eta guicometic jalkhiteen diren indar-gaichtonac eta bicouac, aplez-guisa mintatcera, *Debriac* (erdaraz, *diabolus*, *diabolus*, *diablo*, *diabla*).

Hitz errotz, erdarac eman-hortaric, eztozu *Uscara* çaharrian khaüssiteen hili-bat.

Asqui-da jaquitia ainguricac badutela erdaraz bere

icen curiousac, bere destinouareu eta calitate houu edo gaichtouen marcatoco: *Mikael*, Gincouaren guertlaria; *Gabriel*, Gincouaren bertlutia; *Ariel*, Gincouaren indarra.

Arren-beraz, entçun-dianac coumpromi-beça; coumpreniteen diana ikhou-beça *Uscal-herrico* gasetaren ainguria, *Ariel*.

Mendietaric horra-çauco hegaltaz, bere icen ederra celian izquiribatouric balu beçala. Burutic eguertce-çauo su-gar-bat, cougnece marcateen heitu ezpitiaren gogo-arguia. Escugueco esquia bilotçaren gagueu, ichquerreco hessonac khatia-haütse plusçabat; ifer-niaren esclabo ican-dela, orai seculacoz Gincouac libratu dila egagutera emaitco.

## ERREPOUBLICA CER DEN.

Cer erran nahi-da Errepublikac?

Errepublikac (Latinez *Res publica*) erran nahi-da ororen houu den gauceu.

Ah! hitz eder, hitz çharmagarria!

Oraino, *malerousqui*, *Popoulia*, Errepublikaren icena hecie eztoze, abantsitaric eta houmic hater'ez.

Popoulou, phenacalia, hiro etsaiac ordou-douc eça-gout-ditçacan.

Hire etsaiac nor dira? Guicouan aither abaricicac eta carguicn moyenez aisetarcunian bici nahi direnac.

Badea moyenic hire etsaien benciteco? Moyena hiro esquian douc.

Houua icanen douc, cargoulant gouciac heome hoteçz icemlateen batouc.

Houua icanen douc, guicou abaricicosen placen dihou-ria, Gohernamendiac hire helar-orduc emanen halimba-daouc, çhoumarendaco hirou libera intres pagatouz.

*Uscal-Herrico Gasetta*, (1. zkia, 1848-VI-1)

*Journal du peuple*-n, alegia, *Herriaren Egunkaria* deituan<sup>58</sup> beraz, ezkerraldetik erantzungo diote Agostiren erasoei, esanez, bere artean ez dela apezik, ez fraile-rik eskriba dezaten erdaraz edo euskaraz, eta *ARIEL* aingerua beti apezekin amestetan dabilela, eta apezekilako gonbategian bista lausotua badu, har dezala Aragoen kataloxetarik bat, edo eros dezala *atso luneta pare handi bat gure artikulubak klarki erakurtzeko*. Halaber, euskaraz irakurtzailearekin irri egin nahi luketenean bakarrik nahi luketeke idatzi, laborariak aski izerditzen baitziren politikazko istorioekin gehiago nekazarazi gabe, eta gainera zer esateko? *Errepublikex ez bazen ere, errepublikanoak deitzen ziren gizon haietaz aseak zirela hortzetaraino* esateko?

Benetan bi ikuspundu aski ezberdin Agostiren eta *Journal du peuple*-ko gazetariarena euskararen eta gazeten zer eginaz, biek, noski, eta dudarik gabe ezkertiarak ere izanik.

Errepublikanoez hain agudo asetzeko zer gertatu zen bada? Ekonomi krisiak asaldamenduak sorrarazi zituen Pariseko hirian eta ekainaren 25ean eta 26an Louis Cavagnac<sup>59</sup> gerra ministroak bortizki zapaldu zituen eta ondoren ordena mantentzeko neurri gogorak hartu.

Baina dena ez zen zapalketa izan, ordena fermuki ezartzea eta protesta manifestaldiak, azaroan Apirilean hautaturiko Diputatuen Asanbladak beste erabakien artean hauexek hartu baitzituzten:

- a) Lanerako eskubidea.
- b) Prentsa eta Bilera askatasuna.
- d) Arazo politikoengatik heriotza zigorra kentzea.
- e) Kolonietako esklabotasuna desegitea.

Gorrien aurrean, moderatu eta kontserbadoreak bildu ziren, presidentea hautatzeko abenduaren 10ean.

Udalan Dindaburu eta Chaho ziren demokrazia garbiaren zale bakarrak, eta Ledru-Rollin<sup>60</sup> radikalaren aldeko. Bonaparte, Cavaignac errepublikano

<sup>58</sup> «Bi-Hitz Eskal Herriko Gazetari », *Journal du peuple*, 1848.VIII. 6.

<sup>59</sup> Louis Eugène Cavaignac (Paris, 1802-Ourne-Sarthe, 1857), gerra ministroak zapalduarazi zituen 1848. urteko kale asaldamenduak.

<sup>60</sup> Alexandre Auguste Ledru-Rollin (Paris, 1807-Fontenay-aux-Roses, 1874), abokatua eta politikoa. 1848.eko gobernu behin-behinekoan barne-ministroa, 1849. urtean saiatu zuen kolpearen



liberala, Ledru-Rollin errepublikano radikala, Lamartine utopikoa ... eta beste zenbait dira lehendakaritzaren atzetik. Arginbeltzak zatiturik daude ere.

Abenduaren 3an, elekzioak baino aste bat lehenago hain zuzen, bankete bat antolatzen dute Chahok eta bere gogokideak Jannin pilota lekuan. Hogeita hamabi mahaietan, gazta, intxaurrak eta Nafarroako ardo gorria. Mintzaldi ederrak. Txaloak eta braboak. Gizonaren eta Herrien eskubideak go-raipatzen dira, eta Chahok du azken hitza. Bonaparte, asto ohoragarria, Lamartine haize-orratza, Cavaignac sable zapaltzailea ... horrelaxekoak dira arerioentzako darabiltzan laudorioak, eta solasaren buruan azkenik ministro zapaltzailearen irudia erretzen du.

Pariseko biltzarraren ondorioak, ordea, honelakoak izan ziren: Louis Napoleonek ehunetik hiru laurdenak bere alde bildu baitzituen, 1848. abenduaren 10ean II Errepublikako lehendakaria bezala hautatua izan zen. Chahok, lau urte geroago 1848. urteko gora beherak honelaxe laburtzen dizkigu:

*Lehen urhatsaren egitiareki sarthu zen bide gaiztuan berrogei-eta zor-ziriko Errepublika malerusa. Erran ahal diokegu Barkoiztar laborariak izkiribatu zeitaden leteraren konforme, izan ginela memento batez alagrantzia handitan, ustez jinen zen khanbiamentu handirik alde hunilat; ustez legarrak demenituko ziren. Fite jin zen khanbiua, bena alde kuntrilat. Legarrak demenitu plazan berrogei-eta-bost zantimak ikhen zuntien. Ah! zer gizon banuak, zien urthe hartako deputatu jaonak; batak traidore bestiak indiferent. Klar da Frantzia trunptaturik izan zela ordunko elekzione miserabletan. Eta zer deputatu saldua! Zer konstituzione bastart egiliak! Garruzeko merkhatian hobeki eginik izanzen zen kunstituzione okher bat!* <sup>61</sup>.

Hala eta guztiz ere gogo eta bihotzeko errepublikanoak ez ziren esku loturik egon 1849.ean eta II. Errepublikaren lehen urtebetetzean festak eta banketeak izan ziren orotan, eta halaber Baionan, Berterretche, Camps,

---

ondoren Ingalaterrara desterratua eta hemen beste zenbait iraultzaileekin (Kossuth, Mazzini, Ruge) bizi izan zen.

<sup>61</sup> ARIEL, 1852. II 19.

Lacombe, Justin Larrebat poeta gaskoina ... eta Chahok osatzen zuten taldeak eraturikoa,

Lege Biltzarrerako Eleakzioak 1849. maiatzaren 13an zirela eta Chahok bere kideekin gogor aritu zen prestatzen hauteskundeak, euskal testuetan<sup>62</sup> ikus daitekeenez. St-Gaudens, eta Renaud ziren besteen artean Chahoren autagaikideak.

Zortzi pundutan finkatzen zuten beren programa. Hala, lehenak gatza zergak hautsiak zitezen eskatzen zuen; bigarrenak armadak txipituak ... eta beste. Euskalkiz aldatzen zen ere Chahoren solasa entzulearen arabera, eta horrela lapurtar laborarier, ofizialer eta langileer zuzentzen zaienean lapurtarrez mintzatuko da.

*Maiatzaren hamahirurean behar ditugu izendatu hamar deputatu gure departimendukotzat. Hameka egorri ginituen gan den urthean; ez dute gauza handirik egin populu xehearen alde; xoilki kontserbatu dauzute gutarik bakoitxaren boza, ala aberats ala pobre, higual kondatzeko dretxua; gainerakoan, gure alde proposatu diran legetan, hamarretarik zortzi edo bederatzik kontra izan dire.*

Beste boza nori eman ondo jakiteak duen garrantziaz mintzatu ondoren dituzten aukerak adierazten dizkio irakurleari, alegia, bonapartistak, filipistak, henrikinkistak, hau da, karlistak, eta errepublikanoak direla hautagai. Nola hiru lehen taldeok bildu diren herri xehearen zankapetan ezartzeko, eta nola errepublikanoek soilik maite duten benetan herria, herriko seme direlako, eta nahi dutelako egiaz, libertatea, berdintasuna eta aurridetasuna mundu guztian. Beraz, badakitela nori eman botoa, horrela, *bai ziek, bai zien haur txipiek denbora gutitan barnen untsago izanen ziradie.*

Kanpaina honen mementorik sutuenean zegoela Pabetik irteterakoan 1849. maiatzaren 5ean, beraz, hauteskundeak izateko aste bat bakarrik falta zela, igande goizean Nay-rako bidean, lagun baten etxera zihoalarik, zaldiak zoratu eta Chahoren karrosak istripu bat sofritu zuen. Karrosatik jauzi

<sup>62</sup> «Donapalheuko populian eta republicain aldeko phartez, laborarier, ofizialer, langiler eta braseruer» (ARIEL, 1849. IV. 5), «Nekazale baten kontseilua» (ARIEL, 1849. IV. 29), «Herritar maitiak» (ARIEL, 1849. IV. 29)

egiterakoan Agostik kolpe handi bat hartu zuen buruan, konortea galduz. Berehala M. Beaumonten jauregira eraman zuten eta hantxe Pabeko medikuak saiatu ziren etengabe Chaho zorigaiztokoaren bizitza salbatzen. Bazkalondoko hirurak aldean esperantzarik ia ez zegoen, baina sei t'erdia inguruan bazirudien bere onera zetorrela, eta gabeko bederatziatan sendagileek idatzitako txostenean eta berehala Baionara bidali zuten mezuan, bizirik irtengo zelakoaren esperantzan zeuden<sup>63</sup>.

Egunetik egunera hobetzen zihoala ikusirik, *ARIEL*-ek demokrata guztiei dei egin zien ahantzi ez zezaten igandeko hauteskundeetan, alegia, maiatzaren 13an Chahorentzat izan zedila botoa. Pertsona mota, klase eta kolore guztietakoak zihoazkion bisitan Agostiri, eta horrela 11an ohizko hotelera eraman zuten, bere heriotzari buruz lehen unean zabaldu ziren zurrumurru interesatuak isiltzen joan zirelarik.

Beraz, Chahoren hitzetan hautatuen artean zortzi lejitimista, filipista bat eta errepublikano bat, Michel Renaud, gertatu ziren. Agostiri 30.453 boto jaso zituelarik, ehun eta hogeita zortzi bakarrik faltatu zitzaizkion hautatua izateko. Hola bada, bigarren aldiz, galtzaile aterako zaigu, nahiko arrakasta handia izan arren jende xehe eta langileen artean. Baina, nola eskuindarrak, nobleak eta apezak kontra zituen, garai hartan zail zen bestelakorik gertatzea.

*ARIEL*-i jarraituz, ohart gaitezke nola Pariseko bozketa gehienetan Renaud ia beti bakarrik gelditzen zen bozketetan, legerik atzerakoienak horrela aurrera zihoazelarik.

Chaho gaixo egon zen bitartean *ARIEL* zuzentzen zuen elkartea honako gizonok osatzen zuten: Dindaburu, Lacombe, Tarda, Moreau, Monsegu atharraztarrak eta Steinek. Baina izpiritu bizi eta sutsu hark berehala hartu zuen sendabidea eta jada uztailearen hamalauan irakur dezakegu bere istripuaren ondorengo lehen artikulua bertan akzidente hura zela eta hiltzat hartu zuten eta berria zabaldu zuten gezurtien aurka idazten duelarik eta istripu unean mozkortua zegoela zioen iraina hedatu zutenei bere bizitzako hogeitertan ur garbia besterik ez zuela edan ihardetsiz.

<sup>63</sup> *ARIEL* (1849. V. 8)

Irakur ditzakegu ere *ARIEL*-en orrialdetan murgiltzen bagara bi alkateren testuak. Bata, Pharaz Zuberoako, Arrokiaga herriko meraren idatzia, herrietako delegatuei zuzendua, oihanen arazoei buruz<sup>64</sup> esperantzarekin gizon adituek jakin zezaten zegoen estatu triste hartarik jalgitzeko bidea topatzen. Bestea, Etchecoin Berterreix, Baxanabarreko Gabadi herriko auzapezarena<sup>65</sup> bere auzokideei zuzenduz, sofritzen dituen irain eta erasoen kontra defentsa sendo eta finkoa egiten duelarik, gertatutakoen argitasunak xeheki ernanez.

Irailaren 29an antolatuko dute errepublikanoek Baionako Jannin pilotalekuan berriz beste bazkari bat, ogia, gazta, intxaurra eta ardo gorriarekin, Renaud deputatuaren omenez, eta bertan bukaeran honakoxea zioen bazkaliar batek (Chahok?):

*Ontsata abiatu zinenaz geroztik. Mor de Renaud, hola hola segi zazu, atxiki zazu bethi populiaren amodiua bihotzian, defenda errepublika etsai guzien kontra, bortxa gobernamentua zerga eta phetxa guzien ttipitzera, eta horien ahalaz aurthikitza aiserik pagatzen ahal tuztenen gainera; kargulari soberakinen khentzera, haur ororen eskatzeko moienen hartzera; zahar zein beste eta pobre sostengatzera; laborarien eta beste jente ttipiendako banka batzuen formatzera, nun han atzemanen baitute bere behar ordietan dihuria intres ttipi batian; hitz batez, so egizu populiari honen xorte tristiari; egin gero, orai artio bezela, zure bihotz hunak erranen dautzunak; eta gu ere, gure aldetik, ohituko gira igaran egunetan bezala zutaz, eta erranen bethi orok, ala Pariserat igortzeko ala Parisetik jin onduan: Biba Mor de Renaud! Biba Errepublika!*<sup>66</sup>.

*ARIEL*-en ziri eta erasoak ez ziren erantzunik gabe gelditzen, eta adibidez, Oloruen agintariek debekatu egin zuten haren salmenta. Halaber, auzitaratu egingo dute haren erredaktore buru zen Agosti, eta ondorioz deitua izango da Pabera 1850. apirilaren 30ean. Baina bai Chahoren defentsa, bai bere abokatu Michel de Bourges-ena<sup>67</sup> hain izango dira eder, sakon eta lilu-

<sup>64</sup> *ARIEL*, 1849. VII. 26.

<sup>65</sup> *ARIEL*, 1849. VIII. 30.

<sup>66</sup> *ARIEL*, 1849. IX. 29.

<sup>67</sup> « ... Michel de Bourges, son défenseur et son ami, c'était une République aux institutions grandes et libérales, et non une de ces Républiques bourgeoises où les petites ambitions de clocher se

ramenduz beteak Etxahunen beste kasu hartan bezala, non libre utzi baitzuten Agosti, besterik gabe.

Istripuak, erasoek eta auziek ez dute, Chaho kokilduko ez bildurtuko ez eta atzera botako, beti bezain tinko eta berme jarraituko baitu Pariseko gobernuaren lege desegoki eta herriaren aurkakoak salatzen.

Ez zen ordea, bakarrik asetzen *ARIEL* Frantzian gertatzen ziren jazoerekin, Edouard Robinet-ek Parisetik berriak bidaltzen bazituen ere, Théodore Pelloquet-ek Alemaniatik igortzen zituen. Halaber, Italia eta Espainiatik iristen zitzaizkion berriak xehetasun eta puntualitate handiz. Beraz, bertako irakurleak bazuen zerekin entretenitu, eta batez ere Chahoren artikuluekin gozatzen zuen, hauek batzutan frantsesez, bestetan gaskoinez, orain euskaraz eta gero gaztelaniaz ere zirelarik.

1851. abuztuaren 27 an<sup>68</sup> gutun bat idatziko diote Chaho atharrartzarrak eta Dindaburu baxenabartarrak Baxa-Pireneetako Prefetari bere karguen uztea, dimisioa aurkeztuz. Alegia, zehazki zuela hiru urte juxtu hautatua izanik Chaho Baxa-Pireneetako kontseilari jenerala bezala Atharrartzeko kantoitik, eta bere lana ahalik hoberen betetzen saiatu ondoren, egin berri zen legearen aurka beren gaitzespena adieraztearren. Hain xuxen, sufrajio unibertsala deusezten zuen lege berriaren aurkako protesta ekintza bezala aurkeztuko dute beren dimisioa bi kontseilariak.

Esan bezala Agostiren kezkak Espainiara ez ezik Portugalera ere hedatzen ziren eta hor ikusten dugu idazten Agiri bat, non egituratzen zen Portugal eta Espainia arteko Iberiako Errepublika Federalen Erakundea<sup>69</sup>.

*ARIEL*-en bizitza, ordea, poliki-poliki ahultzen joan zen, eta azken alea 1852. otsailaren 19koa izango da. Beraz, politikazko Chahoren euskarazko azken bi testuak komentatuko ditugu. Biak *Herritar ezinago-mai-*

---

cachent sous un masque patriotique» (Léonard Laborde, *Souvenirs de jeunesse*. Bayonne, 1875, 189) . Michel de Bourges (Purrières 1797 – Montpellier 1853). Abokatu ospetsua, oposizio liberalaren buru, George Sand-en separazioan abokatu eta adiskide, *La Revue du Chair*-eko zuzendari.

<sup>68</sup> *ARIEL*. 1851. VIII. 28.

<sup>69</sup> «Organización de la República Federal Ibérica». *ARIEL*, 1851. IX. 30.

*tiak* dute titulu gisara, eta politikagintzan izan zituen azken ahaleginen adierazgarri dira.

Jakina den bezala Charles Louis Napoleon Bonapartek 1851. abenduaren 2an estatu kolpea jo zuen, eta handik urte batera Enperadoretzat bere burua hautatu. Bitartean, errepublikano ezkertiarrenak Frantziatik bidali zituen, eta hauek, noski, desterruko bidea hartu beharrean aurkitu ziren.

Aipa ditzagun, ordea, Baionan gertatuak Chahoren ahotsa erabiliz. Hona nola aurkezten zuen bere dimisioa:

*Dugun orai esplikatu bi hitzez zertako nik eta Dindaburuk eman dugun kunteiler-jeneral bezala gure demisionia, Herritar ezinago-maitiak (... ) Nola Gobernamentiak eta kanteilerak ezpeitie nahi ukhen Elekzione berrik: orano errixkatu, Frantziako bi mila zortzi ehun eta berrogei eta zazpi kunteiler-jeneralen herenaren berritzeko edo arraizentatzeko, jakinen duzue gure Deputatien, lege batez, kunteiler jeneral ororen photeriak kunteileru eta luzatu dutiela (...)*

*Soldado izateko, errepublikaren defendatzeko, Frantziari zor lukie bere odola eta bizia. Eta sependent, ezte botz baten emateko permissionerik..*

Hona nola gertatu ziren bada oraingoan Crouzet-en arabera<sup>70</sup> Estatu kolpearen ondoren hasi zen errepublikano benetazkoen ehiza. Abenduaren zazpian agintariak itxi zuten lehenik Capo de Feuillide idazleak zuzentzen zuen *L' Eclairneur* aldizkaria, eta burua preso hartu. Chahok, arrisku gorrian zelarik ere, aukera izan zuen bere testu zahar baina oraino baliagarriak argitaratzeko *ARIEL*-en: *La propagande russe à Paris* (1851. XII. 28-30); eta *De L'Agonie du parti révolutionnaire en France* (1852.I.1).

Ez zuen etsitzen, eta hala azken saioa 1852eko otsailaren 29ko elekzioetan emango du. Oraingoan, hautatua sei urtetarako izanen zen eta diputatu bakarra zen euskal probintzietarako. Harispe jeneralak, Bonaparteren adiskide zaharrak, Jean Baptiste Etcheverry baigorriarra hautatu zuen diputaturako, eta noski, honen garaipena elekzioetan ikusgarria izan zen. Halere, Baionan bazituen Chahok bere zaleak, juramentuak bakarrik bere

<sup>70</sup> Aip. lib., 176-177.

izenean botaez gero onartzen zituztenak, eta Etcheverrik 758 atera bazituen, desterruko ezpata buru gainean zintzilik zeukan Agostik 643 jaso zituen.

René Cuzacq-ek<sup>71</sup> aipatu liburuan adierazten digu ez duela ezagutzen zein izan zen Chahoren jokabidea erbesteratze aurreko azken elektzio hauetan, baina euskarazko testu bat badugunez, badakigu Agostiren luma zorrotza ez zela gelditu azkeneko mementoraino. Honelaxe zioen, hain zuzen, azken deian:

*Aldi huntan ezta hamar ez hameka errepresentanten izentatzerik. Hirur deputatu baizik ez tute Baxapireneetako departamentiak. Baxenabarrek, Ziberuak eta Laphurdik, hori erran nahi beita Uskalherriak eta Uskaldunak orok, ez tute deputatu bat baizik. Departamentiak hirur; Uskal Herriak bat. Denak aski, hun balira!*

Salatzen zituen ere eta esplikatzen gobernu berriaren antolamenduaren xehetasunak, Ttipi Urruñako bertsolariaren bere aldeko bertso zenbait orotaraziz, hala nola ondorengo hauek:

*Herri hautan ibili da kalomnia franko,  
Chaho etzela behar diputatuko,  
Hoberena daitzat dela laborariendako.*

Bukatzen zuen esanez, *Eskerrak deitziat zien amistatiaz eta fideltarzunaz! Uduri zait egun jinkuak deitzen naiala Pariserat*. Baina ez zen hala gertatu. Capo de Feuillide-ren ondoren, Nicolas Plantié, Théodore Délissalde eta bera ere preso hartu baitzituzten. Aldiz, Théodore Plantié eta Emile Silva Pasaiara zihuan itsasontzi batean ihes egitea lortu zuten. II. Errepublikara garaian gehien mugitu zirenak epaitzeko sorturik zen Basa-Pireneetako komisio berezi batek juzkatu zituen eta erabaki hauek eman Capo de Feuillide Argeliara bidali zuten, Agosti Chahori bost urtetako desterru zigorra ezarri zioten Théodore Délissalderi bezala. Modu berean edo gogorrago zigortuak izan ziren Théodore Plantié, Michel Renaud eta beste hainbat.

<sup>71</sup> Aip. Lib. 84.

1848. eta ondoko urteko iraultza frakaso izugarri bat izan zen, Bowman-ek dioen bezala<sup>72</sup> politika mailan, erlijio arazoetan, eta moralarenean. Agian literatur arloan eman ziren lanak dira salbagarrienak, bere ustez, prosa poetikoagoa bilakatu baitzen, eta literaturak eguneroko arazo politikoe-tan murgildu baitzen, iraultzaren oihua edertasunaren ametsarekin nahasiz, artea erreboluzioez kutsatuz.

\* \* \*

### Desterrua eta azken urteak (1852-1858)

Chaho Belgikaruntz abiatuko da 1852ko apirilaren hamarrean, hiruko agindu ofizialak bost urterako desterrua agintzen baitzuen, han Victor Hugorekin topo egiteko asmotan, omen. Baina Lille-ra iritsitakoan ezina izango zaio aurrera jotzea belgiarrek ez baitiote muga pasatzen utziko. Honelako egoera lazgarrian zirelarik arazoak, Baxa-Pireneetako prefeta izandako eta Chahoren idazlanak estimatzen zituen Cambacérès jaunari idatziko dio, Baionatik irteterakoan poliziak tratatu duen moduen kontra protesta eginenez. Prefeta ohiaren gutun baten bitartez, bada, lortuko du hobeto zain dezaten eta Espainia aldera bidalia izan dadin.

Baionarantz itzuli zen berriro, baina beti Aingeru zaindarien begirada eta arma zorrotzen pean iraganen du muga eta Arabako hiriburuan, Gasteizen geldituko. Hemen bukatu zuen, antza *Safer* eleberria, aipatu Lambert-ek dioenez, hala nola benetan interesgarriak lirakekeen eta ezagutzen ez ditugun *Lettres d' un exilé*, hau da, desterratuaren gutunak.

José M. Iribarren, nafar folkloristaren liburu batean<sup>73</sup> irakur dezakegunez XIX. menderdian Gasteizetik iragaiten zen Madridetik Pariserako eguneroko korreoa, eta udan Bergara, Bilbao, Iruñea, Baiona, Logroño, Zaragoza eta Valladoliderako dilijentziak ere ateratzen ziren.

<sup>72</sup> F.P. Bowman, «La littérature révolutionnaire en 1848 », *Histoire littéraire de la France IV. De 1789 à 1848*. Paris, Les éditions sociales, 1972.

<sup>73</sup> J.M. Iribarren, *Vitoria y los viajeros del siglo romántico*. Dol Arga, 1950.



*Fonda de Pallarés* delako bat ba omen zen fama handikoa, eta *La Gran Plaza*-n biltzen omen ziren garaiko burgesak, politikoak, komerzianteak, eta beste ofizioetako pertsona inportanteenak, bertan kafetegi, goxotegi eta liburu dendak ere aurki zitezkeelarik.

Desterruan urte pasatxo eman ondoren Arabako lurretan, non amaitu zuen *Safer* eleberria, eta *Lettres d'un exilé* deituak eta galduak diren gutunak, aita oso gaixorik zuenez, etxeratzeko baimena eskatuko du, eta emango zaio *acte de soumission* frantsesez deitzen dena sinatu ondoren. Meneko agiri honetan borroka politiko guztietatik erretiratzeko hitza eman eta agintzen zuen. Grazia 1853ko urtarrilaren 8an sinaturik dago<sup>74</sup> eta Chahok, hitzezko gizona zenez gero, zehatz eta zorrotz bete zuen.

Bilbaoko frantses kontsulak 1853ko otsailaren 17an baimena eman zion, beraz, Frantziara itzultzeko, eta horrela bere sorterrira abiatu zen, non 1853ko maiatzaren 9an aita hil zitzaion 76 urtekin<sup>75</sup>. Politika gaiak debekaturik, zer gelditzen zitzaion Chahori bere literatur eta hizkuntzalaritzako lanetan murgiltzea baizik? Mintza gaitezen, bada, aurkezpen honekin amaitzeko azken une honetan burututako lanez.

### ***Safer et les houris espagnoles (1854)***<sup>76</sup>

Eleberri honek badu hasiera bat *Ariel*-en 1847-ko ekainaren 15ean, *Safer edo deabrua gizon bihurtua*-n, non Lehen kapitulua agertu zuen<sup>77</sup>. Labordek kontatzen digunez Gasteizen, desterruan zegoelarik bukatu zuen eleberri oriental delako hau.

<sup>74</sup> Danis Habib, *Demandes et dossiers de recours en grâce des condamnés des comissions mixtes de 1852. Inventaire-index des articles BB /22 /131 à 189. Chaho (BB/ 22/145)*. Grâce du 8 /1/ 1853. v. Internet.

<sup>75</sup> E- Archives AD 64. Tardets.

<sup>76</sup> A. Chaho, *Safer et les houris espagnoles*. Jules Laissé, Paris, 1854.

<sup>77</sup> *Safer ou le diable fait homme (ARIEL, 1847-VI-15)*

Hona nola haste den hamalau kapituluatarik lehena Safer-i eskeinia :

*Safer, le plus beau des génies inférieurs, présidait à l'étoile de Vénus, appelée par les Arabes zaharah, c'est-à-dire fleurie, par allusion à sa brillante lumière...*

Eta bukaera honelaxekoa du :

*Il était temps pour Safer de sortir du Sérail. Il avait sur les bras bien d'autres affaires, plus intéressantes que l'évanouissement de Radidja : Satiwa: Rachel, Aïxa de Cordoue attendaient impatiemment le Roi des Génies. Il disparut de l'Alcazar, avec la rapidité de l'éclair. À la même heure, au même instant, au fracas du même ouragan qui étendait au loin ses ravages, la Comtesse de Castelmogreb appelait à grands cris le prince de Navarre, dans un souterrain de Bandoliers : le cor d'argent que Fleur-de-Beauté avait donné à Don Garcie retentissait avec une force incroyable sur les plus hautes montagnes de la Sierra-Morena.*

Gustave Lambert-ek dioskunez Mila eta bat gau bildumako ipuinen artean parte oso ongi hartuko luke, eta opera fantastiko batean bilakatuko balitz pertsonaiak honela batuko lirateke :

SAFER	1 <sup>o</sup> ténor de force
Don Garcie de Navarre	1 <sup>o</sup> ténor léger
Ben-Gari	2 <sup>o</sup> ténor
Boheloul	Basse profonde
Castel-Mogreb	2 <sup>o</sup> basse
Le calife Alhaken	Père noble
Le Wali Ismaïl	Trial
La Bramine Satiwa	1 <sup>o</sup> forte chanteuse
La poëtesse Aïxa	1 <sup>o</sup> chanteuse légère
La comtesse Castel-Mogreb	2 <sup>o</sup> chanteuse légère
La sultane Radidja	Dugazon
Rachel	2 <sup>o</sup> chanteuse légère
La Bohémienne Fleur-de-beauté	2 <sup>o</sup> Dugazon
Hommes d'armes, seigneurs, valets...	

*La scène se passe à Cordoue, sous le califat d'Alhakem.*

Alegia, eleberri historiko baten aurrean gaude, zehatzago esateko Erdi Aroko garaietan eta Kordobako kalifa Alhakan zen garaietan, hots, bigarrena balitz, X. mendean, non Gartzia Santxez lehenak, Iruñako erregeak 963an kristau gudaloste bat osatu zuen Alhaken Bigarrenaren kontra baina musulmanek garaitu egin zuten. Dena den garaile ez da errealitate historikoa, giro orientala eta Chahoren irudimena baizik. Hots, orientalismoak eta Espainiak Frantziako idazleen artean zeukaten eraginaren beste adierazgarri bat gehiago.

### *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan... (1855)*<sup>78</sup>

Literatur Saio honek badu bi tomo eta bakoitzean Euskal Herriko gai ezberdinak tratatzen ditu, historiadore, folklorista eta antropologo gisa estilo argi eta klar batez. Tituluan bertan erromantizismoarekin batik bat oso modan ipini zen adjetibo bat dakar : *pittoresque*. Alegia, italieratik hartu hitza (*pittoresco* < *pittore*) esan nahi du idazleak, pintoreen erara, koloretsu eta irudi biziz nahi zuela jantzi bere liburua. Jean Haritschelharrek ikertu eta aurkeztu duenez bi liburukiok ez goaz bertan esanak errepikatuzera, baizik eta soil oroitaraztera teatroaz eta poesiaz Chahok esandakoak komentatu izan ditugula behin baino gehiagotan gure lanetan<sup>79</sup>.

\* \* \*

Baionatik irtetzeko debekuak ez zion, noski, etxetik teatrora joatea galeraziko Chahori zenbait musika kontzertu entzutera, eta honen adierazgarri dugu adibidez, Virginia eta Carolina Ferni, bi ahizpa biolinista italdarrei eskainitako poema<sup>80</sup>, zein argitaratu ondoren hauen albumera pasatu zen.

<sup>78</sup> Augustin Chaho, *Biarritz entre les Pyrénées et L'Océan . Itinéraire pittoresque*. A. Andreossy, Bayonne 1855.

<sup>79</sup> Patri Urkizu , *Agosti Chahoren Kantutegia*. Susa, Zarautz., 2006; *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*. Madrid. UNED, 2009.

<sup>80</sup> *À Mesdemoiselles Virginia et Carlina FERNI (Pour leur Album)*, 1856. www. gallica fr.

### *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin (1855-57)*<sup>81</sup>

Hiztegi honen Hitzaurreaz eta garrantziaz mintzatu ginen aspalditxo eta nahi dituenak xehetasunak jo beza bertara<sup>82</sup>. Laburzki esanez, Chahok utzi zigun sarrerak<sup>83</sup> eta **Abade-tik Mantelina**-raino<sup>84</sup> doakigun hitz maileguen zerrendak, alegia, egitasmo zabalago batez gain, erakusten duten filologi jakituria merezi zuten harrera hobeago bat, eta ez pairatu duen ahantzura.

Hitzaurrea zazpi kapitulu ezberdinetan banaturik dago, honelaxe, hain zuzen: I. «Règles d' orthographe et de prononciation euskarienne», 1: II. «Les Quatres langues du Dictionnaire», 14; III. «Les Etymologies de Larramendi», 28; IV. «Le problème à resoudre», 38; V. «Utilité de cette Introduction: 41; VI. «Origine et filiation des langues», 44; VII. «Les cantabris-mes du latin», 69-93.

Kapitulu hauen artetik, Hizkuntzen hasteaz eta etorkiaz ari dena dela gehien jorratzen duen arloa esango nuke ezpairik gabe, bera dela gustokoena duena, bere irudimena aske eta hegaltari, arin eta lasai baitabilkio bertan, esan arren zehazki, *Nous ne prétendons que notre conviction personnelle puisse avoir la moindre autorité dans cette question.*

Larramendiri egozten zion hura, gaizki hautatua zuela eztabaida lekua, horrexegatik zioen, hain zuzen, hau baitzen beretzat ia etsairik gabeko borrokatokirik aproposena, areago oraindik, bere maisuaren joera bati jarraikiz, bere asmakizunak benetazkotzat jotzen zuten haien lepotik far eta irri egiteko okasio egokia.

Chahorentzat, gorago aipatu bezala, munduaren historia bi arotan banatzen da: lehen aintzinatea eta bigarrena. Lehen aintzinatean bizi ziren he-

<sup>81</sup> Augustin Chaho, *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les Dictionnaires des Académies française et espagnole par...*, Bayonne, Imprimerie de P. Lespes, rue Lormand. n.º 1, 1855-1857 (aurrerantzean D)

<sup>82</sup> Patri Urkizu, «Agosti Chahoren hiztegia», *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Ed. J. Lakarra, ASJU, 1991, 349-361.

<sup>83</sup> *Introduction philologique, grammaticale et littéraire* (D, 1-93).

<sup>84</sup> *Vocabulaire néologique ou liste alphabétique des mots nouveaux pris du latin par L'Euskarien, soit directement, soit par l'intermédiaire du castillan, du français, des dialectes de la langue romane, etc.* (D, 94-464).

rriak bitan ziren ere banatuak: Iparraldekoak eta Hegoaldekoak. Lehen aroa 1200 urte K.a. bukatzen da Iparraldetik jaitsi ziren erraldoi barbaroen inbasioekin. Jigante hauek Europako partean keltak ziren eta Asiakoan *esita* delakoak. Iritzi hauek Philippe Cluvier<sup>85</sup> geografoaren lanetan eta Humboldt-enetan oinarritzen ditu. Lehenbizikoaren ustez, keltarren oldeen ondorioz Europa osoak Keltika izena hartu zuen, eta bigarrenaren ustetan hegoaldeko lehen biztanleak euskaldun-iberoak izan ziren.

Atharraztarrarentzat lehen aintzinatean euskaldunak ez zeuden bakarrik barreiatuak Europako hegomendebaldean, Afrikako iparraldean eta Asiako erdialdean ere hedaturik baitzeuden. Honela konprenitzen ahal zen barbaroak, keltak Europan eta *esitak* Asian, aberastu nahi izana bere gramatika analitikoak, euskarak duen deklinabide antzeko batekin, eta euskal hitz pila gelditu izana sanskritoan eta latinean, alegia, iparraldeko kelto-esiten hizkuntzan, geroago indoeuropeoa deitua izan dena baitan.

Bigarren Aintzinatean hinduek euskaldunei hartutako mailegu zenbaiten artean, adibidez, eguzkiaren hamabi ikurrak leudeke, edota sanskritoak aniztasuna adierazteko duen *-já* atzikia, zeina euskarazko *-dia* besterik ez den.

Ez gara sartuko ematen dituen adibide eta arrazoin guztiak hemen aztertzen hasiko, ez baikara gai sentitzen horretarako. Bakarrik adierazi nahi genuke, Chaho berak dioenez, ez duela euskal apologista zenbaiten moduan ikusi euskaldunengan lureko lehen biztanleak eta gurasoak, baizik eta bakarrik lehena izan dela euskara eta sanskritoaren artean diren analogiak ikusten, azpimarratzen eta frogatzen.

Ideia honen oinarriak, ziurren ez leudeke urrun bere garaian izen handiko izan zen Klapproth orientalistaren ideietarik, honek lehenagoxe idatzirik baitzuen euskara eta Asiako hizkuntzen arteko eta bereziki semitikoak zirenekiko gonbaraketa<sup>86</sup> 1824. urtean, eta 1831.ean Darrigolen liburuari bu-

<sup>85</sup> Philippe Cluvier (1580-1623), geografo, arkeologo eta historiagile alemana. *Introduction à la géographie générale, ancienne et moderne* (1629) liburu ospetsuaren egilea.

<sup>86</sup> M. J. Klapproth, «Comparaison du basque avec les idiomes asiatiques, et principalement avec ceux qu'on appelle sémitiques», *Mémoires relatifs à L'Asie*, Paris, Dondey-Dupré, 1824, 214-224.

ruzko iruzkin bat Pariseko *Le Temps* egunkari politikoan, zeinetan ere X. Raymondek komentatu zuen Chahoren *Voyage en Navarre ...* ezaguna.

Hiztegiaren hitzaurrean aipatutako gaiez gain erabiltzen ditu Chahok saihets gai bezala kontsidera ditzakegunak, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak, hala: euskal idazleak, euskara eredu eta euskal eskola.

Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* aipatzen ditu eta bertsoegile ontzat dauka (GA, 6). Arnauld Oihenart bere eredu, antza, errefrau ederren oso bilduma polit baten, historia bikain baten, zenbait kanta eta Silvain Pouvreau-ri bere hiztegirako zuzendu ohar zuhur zenbaiten egilea (GA, 4). Hiri-barren, *Eskaldunac* poema liburuaren egilea, goi argiz jantzia eta poeta distiranta (GA, 7). Eta Goyhetche abadea, La Fontaine-ren Alegien itzultzaile dotorea, Delille lapurtarra omen dena<sup>87</sup>.

Aipatzen digu nola bere adiskide Hiribarren Archu-rekin haserretu den egin kritikagatik, baina erantzuten dio esanez, antzinakoen grafiak zaindu egin behar direla behar bezala irakur daitezzen Axular, Larregi, Etxeberri, Haraneder, Churio eta Baratzart<sup>88</sup>.

Lapurdikoko euskalkia, eta batik bat Sara, Donibane Lohitzune eta kostaldeko euskalkia dela ikasi behar dena, euskal literaturaren historian aberatsena denez gero, eta gehien landu dena Larramendi aurretik eta ondotik<sup>89</sup>.

Eskolaz ere ematen digu bere iritzia, eta ondorioa hauxe da:

Euskaldunek **Instituto Nazional** bat beharko lukete, artea eta zientzia guztiak lantzeko Akademia bat, hots, zibilizazio independente bat, heziketa kontseilaritza bat, agian inoiz izango ez duena, euskara baka-rik erabiltzea eskoletan, eta honen inguruan literaturaz eta falta zaizkigun liburuez osatutako liburutegia, hitz batez, ez dugun guztia eta nazio handiek mendeen poderioz eta laguntzaz baizik lortu ez dutena<sup>90</sup>.

<sup>87</sup> Jacques Delille (1738-1813) frantses akademikoa, Virgilioren itzultzailea (*Les Georgiques*, 1770), eta arrakasta handiko idazlea : *Poésies fugitives* (1802)...

<sup>88</sup> *Le Messenger de Bayonne*, 1854.1. 19.

<sup>89</sup> Roman d'Amat, *Dictionnaire de biographie française*. Paris VI, Letouzey, T. VIII, 170.

<sup>90</sup> « Il faudrait aux Basques un Institut national, une Académie par sections de tous les arts et de toutes les sciences, c'est-à-dire une civilisation indépendante, un ministère de L'Instruction publi-

Badakigu, jakin ere, ikusi dugun bezala, Chaho Aztia zela, eta urrunera ikusten zekiela, ikusmen dohain bereziz horniturik eta jantzirik zegoela, eta bere igerkizunak bete egin izan direla. Hala nola ortografiarenak menderdi baten orde zehun urte pasatxo egiaztatzeko behar izan badu ere, edota irakaskintzarenak zertxobait gehiago. Argi eta garbi utzi zigun, bada, zein zen biderik egokiena beste herrialdeek bezala benetan gu geurearen jabe eta buru izan gintezan.

Agostik hasi zuen lan erraldoia bukatugabe utzi zuen esan bezala, bere laurdenean bakarrik burutua, baina bere hortan ere dituen balioak ukaezina dira Roman d' Amat-ek dioen bezala. Egungo zientziak ematen dituen aurrerapenen medioz eta talde lanean Mitxelena irakasleak hasi eta Sarasolaren zuzendaritzapean egin den *Orotariko Euskal Hiztegia* lan erraldoiari harenak ukan zuen baino zori eta erabilera hobegarorik izan du.

\* \* \*

Chaho, Baionako bakardadean lanean murgildurik egon arren, egiten zituen lagun zaharrekin noizpehinka solas aspertuak literaturaz eta politikaz, baina ia beti bere gelaren lau paretetatik irten gabe. Léonard Labordek dioenez, bere lan mahai gainean ikus zitezkeen La Bruyère, Pascal, La Fontaine-ren liburuak, besteak beste, eta ez omen zitzaion irrikaitzik falta, adibidez, Pyron-en epitafioaz, heriotze oroitarri famatu hartaz gogoraturik berean hau ezarriko lukeela zioenean:

*Hemen datza Agosti Chaho, deus ez da izan,  
diputatu izatera ere iritsi ez baitzan.*<sup>91</sup>

Esan bezala, ezinezkoa zitzaion Baionako kaleetan barrena ibiltzea bakarrik, beti zaindariak gertutik baitzituen, eta honela bosgarren ataleko bizi-

---

que que nous n'aurons peut-être jamais, l'emploi exclusif de la langue euskarienne dans les écoles, à côté de cela, les bibliothèques, la littérature, les livres qui nous manquent; il nous faudrait en un mot tout ce que nous n'avons pas, et ce que les grandes nations n'ont acquis elles-mêmes qu'à l'aide des siècles, pour entreprendre de jeter les bases d'une technologie méthodique ». [D, 30]

<sup>91</sup> « Ci-gît Chaho, qui n'a rien été.

Pas même simple député », aip. lib., 194.


tza estu batean, arnasa falta zitzaiolarik, amets guztiak deseginik edo erdi kolokan, beregain hartutako hiztegiaren lan gaitzak akabatu zuen Aztiaren bizitzarekin 1858. urriaren 23an, eritasun labur baina minbera baten ondoren.

**Amai dezadan**, bada, Chahoren euskal lanen aurkezpen hau bere heriotze agiri euskaratuarekin:

648. Z. Agosti Chaho

Mita zortzirehun eta berrogeita hemezortzian, urriaren hogeita lauau goizeko ordubietan, Baxa-Pireneetako Departamenduko Baionako hirian, Estatu Zibilaren ofiziala eta Delegatu laguntzailea garenaren aitzineria etorri zaizkigu Pierre Bordahandy jauna, hogeita hemezortzi urtekoa, inprimerian moldatzaite dena, eta Jean Cadillon, hogeita lau urtekoa, litografa, biak hiri honetan bizi direnak, eta deklaratu digute ilabete honen hogeita hiruan, arratsaldeko lauretan, Augustin CHAHO jauna, berrogeita bost urtekoa, letra gizona eta hiri honetan bizi zena, Basa-Pireneetako Atharratzen jaioa, donadoa, hil dela hirian, Pont Mayou karrikako 12. zenbakian, segurtatu garen bezala, eta deklaratzailleek gurekin batera zinatute heriotze agiri hau, irakurri ondoren.

Delegatu laguntzaile Bordahandy . J. Cadillont<sup>92</sup>.



Hileta agiria (1858-X-24)

Gure kontuen arabera, ordea, ez zituen Agostik berrogeita bost urte, berrogeita zazpi bete berriak baizik, mila zortzirehun eta hamaikagarrenean

<sup>92</sup> Archives Départementales de Pau, Bayonne. Actes de décès, 1858. www.archives.cg64.fr



jaioa zenez gero. *Le Messenger de Bayonne*<sup>93</sup> eta *Le Courrier de Bayonne*<sup>94</sup> garaiko bi egunkarik laburzki eman zuten albistea. Laudoriozko hitzak bere idazlanez esan ondoren, kontatzen digute nola jende multzo handi batek lagundu zuen gorpua kanposainduraino isiltasunik handienez, eta nola euskal literaturarentzat galera handi baten eguna izan zen atharraztarraren heriotzekoa.

Herri suskripzioz harrirudi bat eraiki zitzaion, Roland eskultoreak zizelkatua, eta Reclus anarkistak bere ehorzketa solasa egin zuen. Vinsonek dioenez<sup>95</sup> gainera, Joseph Augustin Chaho izan zen garai hartan erlijio katolikoaren elizkizunik gabe ehortzitako lehen euskalduna, antza.

Bere adiskideek, ordea, ez zuten ahantzi, eta honela Isidore Salles poeta gaskoinak bertso hauek eskaini zizkion:

PRAUBE CHAHO!

*Au Poun Mayou que damourabe  
Un gran Bascou tant bet que brabe  
Lous uns que creden qu' ere ho!  
Taus que disén qu' ere un pouète  
D' auts qu' on prenénét per un proufète*

*Praube Chaho*<sup>96</sup>.

Bere oroitzapena ez zen bada galdu, eta 1909an Euskaltzaleen Bilkurak oroitharria bere sortetxean ezarri zuten bezala, 1988. urtean Urdiñarben eskaini zitzaion pastoral. B. Urruty errejentaren zuzendaritzapean, garindaindar jokalaririk anitzek eskaini zioten omenaldi eder bat. Baina ez bakarrik antzertian, ikerle eta idazle askok, nola Jean-Louis Davant, Pierre Bidart, Jean-Baptiste Orpustan, Jean Haritschelhar, Beñat Oiharçabal eta Fermin Arkotxak besteen artean eskaini izan dizkiote beren gogoeta mamitsuak.

<sup>93</sup> *Le Messenger de Bayonne*, 1858-X-26.

<sup>94</sup> *Le Courrier de Bayonne*, 1858. X. 27.

<sup>95</sup> aip. lib, T. 1, 309.

<sup>96</sup> Isidore Salles, *Poésies gasconnes. Debis Gascouns-Gascougne. et inédits*. Dax, Société de Borde 1930, 41.

## Harreraz eta eraginaz bi hitz

Aipatu dugu (*Hegats* 48, 2011:33-94) zein nolako harrera izan zuten Parisen idatzi zituen Chahoren zenbait liburuk eta nola *Voyage en Navarre* alemanera itzuli zen bezala, *Paroles d'un Voyant* eta *Philosophie des Révélations* Indeean ezarri zituen Vaticanok. Dena den, eta argi dago gurean 1845ean argitaratu *Aitor, Légende Cantabre* delako ipuinak izan zuen arrakastarik handiena, gaur egun gazteen artean patronimikorik zabalduenetakoa izateraino.

Honen zabalkundean kontsidera dezakegu bi nafar izan zirela garrantziko. Alde batetik Francisco Navarro Villoslada (Viana 1818-1895), zeinarekin desterruan zela Gasteizen izan zezakeen harremanik, hau baitzen Arabako gobernadorearen idazkari, eta honen *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1877), non garbi dagoen ezagutzen zuela hark idatzitako *Aitor*. Eta bestetik Arturo Kanpion (Iruñea 1854-Donostia 1937) eta honen itzulpena «Aitor, leyenda cántabra»<sup>97</sup>. Beste zenbaitek ere Chahoren irudimenaren fruitu zen Aitorren leienda erabili zuten beren lanetan hala nola, besteak beste, Karmelo Etxegaraik<sup>98</sup> eta Sabino Aranak<sup>99</sup>. Errepublikara garaian Justo Gárate ere arduratu zen Chahoren ibilbideaz eta honen abertzaletasuna goraiapatuz Nafarroako Bidaiaren edizio berri bat moldatu zuen<sup>100</sup>. Eta gerra ostean Ziriako Andonegik<sup>101</sup> kanta ospetsu bat burutu zuen *Aitorren izkuntz zarra*

<sup>97</sup> *Revista Euskara*, Pamplona, 1879, I, 220-230, 241-248, 281-289; 1879: 12-17, 44-53.

<sup>98</sup> «AITOR-en etorrera edo Euskal-erriaren asiera». *Euskal-Erria*, Donostia, 1882.

<sup>99</sup> ... *alea-janda-iri-a*, esto es en romance, el pueblo o ciudad en que está comido ya todo el grano... es lo cierto que también dicho nombre de Alejandria pertenece a la lengua de Aitor. 1902, «El Baskuence en toda el África». *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin*. Sabindiar-Batza, Buenos Aires 1965, 2219.

<sup>100</sup> *Viaje a Navarra durante la insurrección vasca (1835)* / por Joseph Augustin Chaho. Ed. Justo Gárate. Bilbao 1933.

<sup>101</sup> Aitorren izkuntz zarra  
 nai degu zabaldu  
 Munduaren aurrean  
 gizonki azaldu  
 Baldin gure zañetan odolik badegu  
 Euzkaldunak euzkeraz  
 itz egin bear degu.

deitu zuena. Eta azkenik hogei urte geroago Varan Sarkisian armeniarrek<sup>102</sup> Hektor Iglesiasekin batera Aitorren itzulpenaren edizio berria prestatu zuen testua hiru hizkuntzatan emanez, armenieraz, frantsesez eta euskaraz.

Fini dezagun hurbiltze hau Chahori hainbeste laket zitzaizkion eta berari eskainitako pastoraleko azken pheredikuaren zenbait bertsoekin. 1988an Urdiñarben Jean Michel Bedaxgarrek ontzaile eta errejenta Battite Urruty izan zirelarik.

*Historiako zati bat  
Egün gunian ikhertzen,  
Agosti Xaho-k beitzian  
Bere phartetik edertzen!  
(...)  
Geruaren jabe gira  
Gure Zibero maitia,  
Eüskaraz ariko gira  
Hoi-ta-bat gerren mentian.<sup>103</sup>*

Hona hemen, bada, Agosti Chaho atharraztarraren, euskaldun erroman-tiko, eta errepubliza zalearen egutera-ozpelez hornituriko irudi maitekorra. Eta gure partetik, besterik ez, Aztiaren bizitza eta idazlanak hobeto ezagutarazten saiatu gara oraingoan, eta bere irudi sakon eta sutsua bezalaxe bere euskarazko emaitza ahantziak bezain liluragarriak zertxobait argitzen egini-ko ahaleginak baliagarri gertatuko balitzaizkizu, irakurle, pozik geundeke.

<sup>102</sup> Varan Sarkisian & Hektor Iglesias, *Joseph-Augustin Chaho, Aitor, Légende cantabre / Aitor: Leyenda cántabra / Aitor: kantabriar kondaira*. Erevan-Bilbao 2008.

<sup>103</sup> J. M. Bedachagar, *Agosti Chaho. Urdiñarbe 1988*. Maule, 56.